



**Euskal Lankidetzaren Publikoa. Prestakuntza-eskuliburuak**  
**Cooperación Pública Vasca. Manuales de formación**

1. Garapen lankidetzaren sorrera eta bilakaera historikoa  
La cooperación al desarrollo. Surgimiento y evolución histórica
2. Garapenerako gobernu kanpoko erakundeak  
Las organizaciones no gubernamentales para el desarrollo
3. Garapeneraren finantziaketa. Fluxu pribatuak eta garapenerako laguntza ofiziala  
Financiación del desarrollo. Flujos privados y ayuda oficial al desarrollo
4. Hondamendiak eta nazioarteko ekintza humanitaria  
Desastres y acción humanitaria internacional



EUSKAL  
LANKIDETZA  
PUBLIKOA  
Prestakuntza-eskuliburuak

COOPERACIÓN  
PÚBLICA  
VASCA  
Manuales de formación

4

**HONDAMENDIAK ETA  
NAZIOARTEKO EKINTZA  
HUMANITARIOA**

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES

ISBN 84-457-2233-6



9 788445 722336

Salneurria: 9 €

**PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos**

Hondamendiak eta nazioarteko ekintza humanitarioa / Karlos Pérez de Armiño. –  
1. argit –Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia =  
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco, 2004  
p. ; cm. – (Euskal Lankidetzeta Publikoa. Prestakuntza-eskuburuak = Cooperación  
Pública Vasca. Manuales de formación ; 4)

Contiene además, con portada y paginación propias, texto contrapuesto en  
castellano: “Desastres y acción humanitaria internacional”

ISBN 84-457-2233-6

1. Ayuda humanitaria. I. Euskadi. Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales. II.  
Título. III. Título (castellano). IV. Serie.  
341.232

Argitaraldia:	1.a, 2004ko abendua
Ale kopurua:	1.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Etxebizitza eta Gizarte Galetako Saila
Internet:	<a href="http://www.euskadi.net">www.euskadi.net</a>
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea:	Karlos Pérez de Armiño
Azalaren diseinua:	Marra Publicidad
Fotokonposizioa:	EPS, S.L. Herminio Madinabeitia, 18 Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz
Inprimaketa:	Gráficas Santamaría, S.A. Bekolarra, 4 – 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN:	84-457-2233-6
LG:	VI-301/04



EUSKAL  
LANKIDETZA  
PUBLIKOA  
Prestakuntza-eskuliburuak

COOPERACIÓN  
PÚBLICA  
VASCA  
Manuales de formación

4

# HONDAMENDIAK ETA NAZIOARTEKO EKINTZA HUMANITARIOA

Karlos Pérez de Armiño

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE  
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA  
Y ASUNTOS SOCIALES

**Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia**

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2004

## AURKIBIDEA

I. SARRERA .....	9
II. KRISIALDI HUMANITARIOAK .....	15
1. Hondamendia, katastrofea, urrakortasuna eta horiei aurre egiteko estrategiak .....	17
1.1. Urrakortasuna .....	18
1.2. Katastrofea .....	21
1.3. Hondamendia eta hari aurre egiteko estrategiak ...	22
2. Katastrofe naturalen ondoriozko hondamendiak .....	28
2.1. Lehortek .....	28
2.2. Lurrikarak .....	29
2.3. Uholdeak eta tifoiak .....	29
3. Gatazka armatuak eta larrialdi politiko konplexuak .....	29
3.1. Ekonomia formalaren hondoratzea eta ekonomia informalararen gorakada .....	31
3.2. Estatua ahultzea eta desegitea .....	32
3.3. Barruko gatazka armatua .....	33
3.4. Gosetea .....	33
3.5. Nahitaezko migrazioak .....	34
3.6. Epidemiak .....	35
4. Talde urrakor nagusiak .....	37
4.1. Nekazari txikiak eta artzainak .....	37
4.2. Hiri-pobreak .....	38
4.3. Haurrak .....	39

4.4. Emakumeak	3
4.5. Zaharrak	40
4.6. Errefuxiatuak eta barne-desplazatuak	41
III. HUMANITARISMOAREN BILAKAERA HISTORIKOA ETA KONTZEPTUALA	43
1. Ekintza humanitarioaren sorrera eta bilakaera	45
2. Laguntza humanitarioarekiko kritikak	47
3. Azken hamarkadako <i>humanitarismo berria</i>	52
3.1. Helburuak areagotzea	53
3.2. Estrategia integrala eta politizazioa	54
3.3. Baldintzatzaile humanitarioak	55
3.4. Etika kontsekuentzialista	56
3.5. Printzipio humanitarioei buruzko eztabaida	57
3.6. Humanitarismo berriaren balorazio kritikoa bat	59
3.7. Ikuspegi humanitarioen aniztasuna	61
IV. EKINTZA HUMANITARIOAREN DEFINIZIOA ETA XEDEA	63
1. Definizioa:	65
2. Edukiak eta helburuak	67
2.1. Bizirauteko oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak hornitzea	67
2.2. Urrakortasunaren areagotze-prozesua eta familien zein komunitateen desegituratze sozioekonomikoaren prozesua etetea	74
2.3. Epe motzerako prestakuntza eta birgaitzerako esku-hartzeak egitea	75
2.4. Hondamendiek kalteturiko pertsonak babestea	77
V. NAZIOARTEKO SISTEMA HUMANITARIOA	81
1. Sistema humanitarioaren aktoreak	83
1.1. Populazioa eta tokian tokiko erakundeak	84
1.2. Eraginpeko herrialdeetako gobernuak	84
1.3. Gobernu emaileak eta ECHO	85
1.4. Nazio Batuak	89
1.5. Nazioarteko GKEak	95
1.6. Gurutze Gorria	98
1.7. Komunikabideak eta iritzi publikoa	99
1.8. Armadak	101
2. Laguntza-fondoen joerak: bolumena, emaileak eta destinoak	102
2.1. Bolumena	102
2.2. Emaileak	104
2.3. Destinoak	106

3. Sistemaren arazoak, eta haren koordinazioa eta kalitatea hobetzeko ekimenak . . . . .	108
3.1. Deialdi bateratuak: aurreikusgarritasuna eraikiz . . .	110
3.2. Jokabide Kodeak . . . . .	111
3.3. Esferaren proiektua . . . . .	114
3.4. Ombudsman humanitarioa eta kontuak emateko ekimenak . . . . .	117
VI. PRINTZIPIO HUMANITARIOAK ETA OINARRI JURIDIKOAK . . . . .	119
1. Printzipio humanitarioak . . . . .	121
2. Ekintza humanitarioaren funtsezko oinarriak . . . . .	124
2.1. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa . . . . .	125
2.2. Giza eskubideak eta beste tresna juridiko batzuk . .	128
VII. LARRIALDIA/GARAPENA ARTEKO LOTURA ETA BESTE ZEHARKAKO IRIZPIDE BATZUK . . . . .	133
1. Larrialdia/garapena lotura . . . . .	135
2. Laguntza humanitarioa gauzatzeko irizpide orokorrak . .	141
2.1. Berehalako beharren eta etorkizunerako garapenaren arteko konbinazioa . . . . .	141
2.2. Ahalmenak sendotzea eta urrakortasuna murriztea	141
2.3. Ahalmenen eta urrakortasunen azterketa . . . . .	142
2.4. Kalterik ez eragitea . . . . .	144
2.5. Zerbitzuak eta azpiegiturak sendotzea . . . . .	145
2.6. Tokian tokiko egiturak gaitzea . . . . .	145
2.7. Mantenu-sistemei eustea . . . . .	146
2.8. Biztanleriaren ahalmenak aprobetxatzea eta sendotzea . . . . .	147
2.9. Biztanleriaren parte-hartzea eta ahalduntzea . . . . .	148
2.10. Genero-ikuspegia . . . . .	149
2.11. Giza eskubideen babesak . . . . .	152
2.12. Bakea eraikitzeke laguntza . . . . .	153
2.13. Kontu-ematea ( <i>accountability</i> ) . . . . .	153
2.14. Mezu eta irudi egokiak . . . . .	154
2.15. Printzipio humanitarioak betetzea . . . . .	15
BIBLIOGRAFIA . . . . .	155
Baliabideak Interneten . . . . .	162

I  
Sarrera

90eko hamarkadako egun bakoitzean, 100 milioi pertsonatik gora izan ziren gatazka armatuen edo hondamendi naturalen eraginpean. Hondamendiek 150.000 pertsona baino gehiago hil zituzten urtero, eta gerrek, berriz, 4 milioiri baino gehiagori kendu zieten bizia hamarkadaren joanean. Gainera, denboraldi horretan, 35 milioi inguru pertsonak euren etxeetatik ihes egin behar izan zuten, eta barne-desplazatu bihurtu ziren euren herrialdeetan, edo errefuxiatu besteetan.

Krisialdi humanitarioek mundua astintzen jarraitzen dute, eta ez hainbeste, ikusiko dugunez, ausaz jasandako kalamitate naturalengatik, baizik eta, batez ere, azpigarapenagatik eta berriki gertatutako gatazka armatuetan ezaugarri den populazio zibilarekiko ankerkeriagatik. Nahiz eta hasiera batean, 1990 inguruan Gerra Hotza amaitu izanak mundu segurua-goaren ilusioa piztu zuen, *bakearen dibidenduak*–gastu militarretan gastatzen ez zena, alegia– garapen-inbertsioetara erabiltzeko moduan, berehala ikusi zen errealitateak beste bide batzuk jorratuko zituela. Ekialde-Mendebalde borrokaren ondoren (gutxi-asko) barne-mailakoak ziren gerra ugari piztu ziren Hirugarren Munduko herrialde askotan, horietako askok euren estatu-erakundeak eta ekonomiak deskonposizio-prozesuan zituztela. Estatuaren arteko gerra klasikoez bestelako motibazioak, aktoreak eta taktikak dituzten gatazka armatuak dira sarritan, eta horrek kaltegarriago bihurtzen ditu giza galerei, suntsipen ekonomikoari eta desegituratze sozial eta politikoei dagokienez. Gaur egungo krisialdi humanitario handien eragile nagusiak dira gatazka hauek.

Ikus dezakegunez, nazioarteko ekintza humanitaria beharrezkoa da gaur egun ere egoera horiek pairatzen dituztenei



laguntzeko, batez ere bizi diren herrialdeetako gobernuek haiei lagundu eta haiek babesteko gaitasun materiala edo borondate politikoa ez badute.

Gaur egun ekintza edo laguntza humanitarioa deitzen dugunak bilakaera handia izan du denboraren joanean, arlo kontzeptualean zein antolamendu-arloan. Gerra Hotzaren amaierak bereiziki aurreko hamarkadetako marko kontzeptual eta operatibo askoren aldaketa ekarri du. Hori, alde batetik, munduan izandako aldaketa geopolitikoei zor zaie, aurreko borroka bipolarra gaindituta, eta, bestetik, bereiziki zailak diren krisialdi humanitario mota berri batera egokitzeko premiari, larrialdi politiko konplexuetara alegia, gatazka armatuen testuinguruetan abiarazitakoak, baita Estatuak eta ekonomia desegituratzeari dagozkionak ere.

Horrela, azken hamarkada honetan iraganeko ekintza humanitarioaren ezaugarri izan diren ikuspegi teoriko eta irizpide etiko edo operatibo asko aldatu dira, aldaketa horiek txosten eta argitalpen ugarietan botatako kritika gogorrek eragin dituztela kontuan izanda, kalte posibleen eta kudeaketa txarraren aurka, hain zuzen ere. Horrela, adibidez, normalean epe laburreko laguntza humanitarioaren eta epe luzerako garapenerako lankidetzaren arteko banaketa zorrotza neurri batean lausotu egin da, paperaren gainean behintzat, emaile eta agentzia gehienek harturiko ikuspegi berriarekin, bien arteko lotura defendatzen baitu. Horrela, ondoko ideia ezarri da; ekintza humanitarioak ez du soilik baliagarri izan behar biziak salbatu eta hondamendia pairatzen dutenen sufrimendua arintzeko (helburu horiek *aringarri* eta gutxiegitzat hartzen baitira), baita etorkizuneko helburuak sustatzeko ere, esaterako garapena eta bakea, estrategia politiko integralen markoan. Horrela, krisialdiatarako erantzun politikoago eta orohartzailegoaren zati denez, haren ardura ez litzateke soilik biziraupenerako ondasunen eta zerbitzuen zuzkidura izango, eta oso dimentsio sentisiblerak ere barne hartuko litzuzke, esaterako bakearen erakuntza, demokratizazioa edo gizarte-egituraren (berr)erakuntza. Baina zenbait autorek adierazten dutenez, ekintza humanitarioaren erabilera hori haren politizazioaren kontura egiten ari dira, behin-behineko militarizazioaren kontura (Kosovoko *gerra humanitaria* litzateke horren adierazgarri nabarmena), baita historiaren joanean ezaugarritzat izan dituen printzipio etiko eta operatiboak zalantzan jartzearen kontura ere, neutraltasuna, inpartzialtasuna edo independentzia, esate baterako.

90eko hamarkadaren hasieratik sistema humanitarioaren arkitektura birmoldatu egin da, koordinatzeko, erregulatzeko

eta kudeatzeko tresna berriak tarteko. Herrialde emaileen kanpo-politikaren tresna bat gehiago bihurtu da ekintza humanitaria, politika, ekonomia edo segurtasun arloko beste osagaiekin batera. Are gehiago, zenbait herrialde marjinal eta garrantzi geopolitiko gutxikoen kasuan ekintza humanitaria da mendebaldeak haietan politikoki jarduteko duen modu bakarra, gobernu emaileek herrialde horiek indarrean dagoen nazioarteko ordenan txertatzeko erabiltzen baitute hura. Geroz eta handiagoa den globalizazio mediatikoa ere lagungarria izan da krisialdi humanitario horiei garrantzi handiagoa emateko, edo horietako zenbaiti, herrialde garrantuetako iritzi publikoaren lehentasunen zerrendan eta haien gobernuen agenda politikoan. Nazioarteko harremanetan erabat egituraturiko errealitatea dugu gaur egun ekintza humanitaria.

Horrela, gaur egun laguntza humanitariorako fondoak 80ko hamarkadakoak baino dezente handiagoak dira, gorakada hori batez ere 90eko hamarkadaren lehen erdialdean bildu zela kontuan hartuta. Gorakada hori, epe luzerako garapenerako lankidetzarako finantzaketaren beherakada nabarmenarekin batera, lagungarria izan da ekintza humanitarioak pisu erlatibo handiagoa har dezan harekin alderatua, azken horrek ugariagoa izaten jarraitzen duela kontuan izanda. Dena den, fondo urriak dira, mundu-mailako premiak maila txikienean ere betetzen ez dituztenak, krisialdi batzuetarako bai eta beste batzuetarako bideratzen ez direnak (*ahaztutako krisialdi* ugari daude) emaileen interes politiko, ekonomiko eta segurtasun-arlokoen arabera, premia-premia irizpidearen arabera izan beharrean.

Azken batean, eraldaketa ugari izan dituzte ekintza humanitarioaren oinarri teorikoek eta praktikak azken hamarkadan, argi-ilunez beterikoak. Ahalegin handiak gauzatu dira esperientziaz ikasteko (esate baterako, laguntza-programen ebaluazioak eginda, lehen ohikoak ez zirela kontuan izanda), eragile humanitarioen arteko harremanak beregituratu eta arrazionalizatzeko, eta nazioarteko errealitate berrira eta krisialdi-mota berrira egokitzeko. Baina honek guztiak kezka sakona eragin du autore eta GKE ugariengan, azken emaitza interes politikoak printzipioen eta betebeharrak moralaren gainera nagusitzea izaten ari baita. Bestela esanda, *agindu humanitaria* ahultzea, hau da, laguntza humanitaria edozein pertsonak, bere maila aldera batera utzita, duen eskubidetzat ikustearen aukera ahultzea; *espazio humanitaria*, edo GKE humanitarioek independentzia-baldintzetan eta printzipio humanitarioen arabera lan egiteko duten aukera gainbeheratzea.

Horren guztiaren ondorioz, bereziki polemikoa eta mardula da ekintza humanitarioaren arloa, eztabaida bizien xede, errealitate konplexu eta aldakorren arabera garatzen direnak. Hortaz, liburu labur honen helburua ez da arlo humanitarioaren azterketa zorrotza eskaintzea. Ez da eskuliburu operatiboa ere, tokian bertan lan egiteko erreminta praktikoak biltzen dituena, hainbat espezialistak eta erakundek landutako horrelako zenbait baitaude. Aitzitik, helburu askoz ere xumeagoa du, krisialdi humanitarioen, eta ekintza humanitarioen ikuspegi eta tresnen zenbait oinarritzko ezaugarri zirriborratzea alegia, dibulgazio modura eta gaian hasteko.

Ondoko egitura du liburuak. Sarrerako kapitulu honen ondoren, II. kapituluak krisialdi humanitarioen kausak eta dinamikak aztertuko ditu, horiek ulertzeko hainbat kontzeptuzko elementu eskainita, hondamendiaren, katastrofearen, urrakortasunaren eta horiei aurre egiteko definizioak esaterako, baita larrialdi politiko konplexuen deskribapena ere. Era berean, krisialdi-testuinguruetan talde urrakor nagusien arazoak zirriborratuko ditu. III. kapituluak ekintza humanitarioen jatorriak eta bilakaera historikoa ikertzen ditu, izan dituen kritikak eta *humanitarismo berria* deiturikoaren ezaugarriak, gaur egun nagusi den ikuspegi dela kontuan izanda. IV. kapituluak haren jarduerak ezaugarritzat dituen berriazko eduki eta helburuetatik abiatuta definitzen du ekintza humanitaria, oinarritzko ondasunen zuzkiduratik hasi eta biktimen eskubideen babesaren barne hartuta. V. kapituluak sistema humanitaria aztertzen du, hau da, ekintza humanitaria gauzatu edo hartan eragina duten eragile-multzoa, baita haien ezaugarriak eta joerak ere. Sistemaren arazoak egiaztatzeaz gain, laguntzaren koordinazioa eta kalitatea hobetzeko zenbait ekimen berri azpimarratuko dira. VI. kapituluak ekintza humanitarioaren oinarri etiko eta legalen egokitasuna deskribatu eta aztertzen du, hau da, normalean ezaugarritzat izan dituen printzipio humanitarioak, eta nazioarteko hainbat tresna juridiko. VII. kapituluak ekintza humanitarioan nahi diren zeharkako irizpideak xehatzen ditu, horien artean epe luzeagoko helburuekiko lotura, edo genero-ikuspegi baten aplikazioa barne hartuta. Azkenik, iruzkindutako bibliografia erasten dugu; arloan oinarritzko diren hainbat erreferentzia barne hartzen ditu, baita Interneteko hainbat gune espezializatu ere, horien bidez informazio zabalak eskuratzeko aukerarekin.



## Krisialdi humanitarioak

Ekintza humanitarioa ulertzeko, zein testuingurutan gauzatzen den aztertu behar da, hau da, larrialdi edo hondamendi egoerak. Lehenik *hondamendi* kontzeptuaren osagaiak aztertuko ditugu, baita *katastrofe* eta *urrakortasun* kontzeptuenak ere. Ondoren, hondamendi-moten ezaugarriak ikusiko ditugu, katastrofe naturalak eragindakoak zein gatazka armatuen ondoriozkoak. Azkenik, hondamendi-egokierikiko talde urrakor nagusien arazoak zirriborratuko ditugu.

## 1. HONDAMENDIA, KATASTROFEA, URRAKORTASUNA ETA HORIEI AURRE EGITEKO ESTRATEGIAK

Hondamendien arrazoi eta ezaugarriak ulertzeko modua aldatu egin da denborak aurrera egin ahala. Arazoaren diagnostikoari dagokionez lorturiko aurrerapenak ekintza humanitarioaren ikuspegi eta mekanismo berriak eragin dituzte, jakina.

Nazio Batuen Gai Humanitarioen Departamentuaren definizioaren arabera, gizartearen funtzionamenduaren nahaste handia da hondamendia; giza galera, galera material eta ingurumen-galera handiak eragiten ditu, horiei aurre egiteko eraginpeko gizartearen ahalmena gaindituta bere baliabideak soilik erabiliz gero. Nahaste hori denboran eta espazioan biltzen dela gehitu dezakegu.

Krisi eta desegituratze prozesu horrek, barrengo arrazoiak ditu. Hau da, aldeko testuinguru edo haztegia sortzen da, *urrakortasuna* deituko duguna. Baina, halaber, fenomeno konbultsiboren baten ondorioz abiarazten da, *katastrofe*

(uholde bat, lehorre bat, eta abar) deituko duguna. Hiru kontzeptu hauen arteko bereizketa (bereiziki hondamendiren eta katastroferen artean, normalean nahasi egiten baitira) oso baliagarria da ikuspuntu analitiko eta operatibotik begiratuta. Hortaz, barrengo arrazoiak (urrakortasuna), faktore eragilea (katastrofea) eta krisialdi humanitario propioa dagozkion ondorioekin (hondamendia) bereizi behar dira.

### 1.1. Urrakortasuna

Katastrofe posible bat dela-eta familia edo gizabanako batek bizia, ondasunak eta jabetzak, eta bizimodua galtzeko duen arrisku-mailatzat definitu dezakegu urrakortasuna. Katastrofe horren ondoren leheneratzeko garaian izango luke ten zailtasun-mailarekin ere badu harremana maila horrek.

Bestela esanda, aldeko testuingurua da urrakortasuna, katastrofearen *birusak* hondamendiaren *gaixotasuna* eragin dezakeen haztegia, erresistentzia-ahalmen nahikoak ez dituen gorputzean.

Bi dimentsio ditu batez ere urrakortasunak: *a)* kanpo-dimentsioa, katastrofe bat izateko arriskupean egoteari dago-kiona; *b)* barne-dimentsioa, kostu handirik gabe egoerari aurre egiteko ahalmenik ezari dagokiona, hau da, krisialdiaren aurreko defentsa-gabezia.

Ikus dezakegunez, pertsonen eta familien *ahalmenak* dira urrakortasunaren aurkakoak, hau da, eguneroko bizitzari aurre egitea eta hura hobetzea ahalbidetzen dieten baliabideak eta trebetasunak, baita hondamendi-prozesuei aurre egitea eta ondoren berreraikitzea ere. Pertsona, familia edo komunitate baten urrakortasun-faktoreak haien *ahuleziak* badira, haien ahalmenak *sendotasunak* dira.

Urrakortasuna dimentsio erlatiboa da. Hau da, pertsona guztiak gara urrakorrak, baina bakoitzak, bere egoera sozio-ekonomiko eta baldintza pertsonalen arabera, bere urrakortasun-maila du, baita bere urrakortasun-maila propioa ere. Horrek zera esan nahi du, norbait balizko katastrofe-mota jakin baterako oso urrakorra izan litekeela, eta gutxi, ordea, beste baterako, horietako bakoitzak modu desberdinean jotzen baitu.

Horretaz gain, urrakortasuna ez da estatikoa, baizik eta dinamikoa denborak aurrera. Hau da, areagotu egin liteke (hainbat faktore direla-eta, esaterako pobretzea, gizarte-babesa galtzea, edo osasun-egoera hondatzea) edo gutxitu

(adibidez, nekazaritzako soberakinen produkzioa, aurrezki-pilatzea, edo osasun-zerbitzuak hobeto baliatzeko aukera direla-eta), arian-arian zein bizkor. Horrela, ahalmenak nahikoak ez direneko prozesua dugu hondamendia, eta hortaz, urrakortasuna desegituratze-maila larrietara iritsi arte pilatzen da.

Esaten genuen bezala, hainbat osagai barne hartzen dituen kontzeptu konplexua dugu urrakortasuna, pertsona bakoitzean modu desberdinean adierazten direla kontuan izanda. Bi dimentsio ditu batez ere:

- a) Katastrofeen *eraginpe fisikoan* egotea, haien eraginpean egoteak *arriskua* eragiten duela kontuan izanda, hau da, segurtasunik eza. Biktima bezala harrapatuta gertatzeko arriskua hainbat elementuren mende dago, esaterako, bizileku-zonaldea (lehorterako joera duten zonaldeak, uholdeak edo luiziak izateko arriskua duten mendi-hegalak, eta abar), lekuaren ingurumen-baldintzak (lurzoruaren degradazioak edo deforestazioak landa-arloko diru-sarrerak gutxitu ditzakete), ezaugarri klimatikoak, etxeen eraikuntza-kalitatea, eta abar. Normalean, sektore behartsuenak dira arriskuaren eraginpe handiagoan daudenak. Horrela, adibidez, Gangesen ordeketan, Indiako iparraldean, kasta pobreenak eta ukiezinak bizi dira batez ere auzo pobreetan, uholde-arriskuan dauden beheko zonaldeetan.
- b) Baliabideak, zerbitzu publikoak edo laguntza baliatzeko *aukera* zailtzen duen *ahalmenik* eza. Hainbat faktoreren ondorio da ahalmenik ez hori:
  - Pobrezia. Urrakortasunaren osagai nagusietako bat da, nahiz eta bakarra ez izan. Zenbaitetan nahastu egiten badira ere, batzuek eta besteek esanahi desberdinak dituzte: pobrezia baliabide naturalik ezari dagokio gehienbat, eta urrakortasuna, berriz, katastrofe posible batek eragin dezakeen segurtasunik ezari. Pertsona pobreenek ez dituzte diru-sarrera eta aurrezki nahikoak izaten haiekin krisialdiei, edo ondorengo berreraikuntza-aldiari, aurre egiteko, eta, hortaz, urrakorrangoak dira.
  - Mantenu-sistemaren (*livelihood*) edo familiarteko bizimodu-bitartekoaren segurtasunik eza. Zenbait jarduera ekonomiko jakin (artzainenak edo nekazaritzako jornalarienak, adibidez) krisialdietarako bereziki urrakorrak dira, eta beste zenbait sektore, berriz, (funtzionarioak, industria-langileak, eta abar) seguruagoak izaten dira.

- Norberaren defentsa-gabezia edo hainbat motatako ahalmen pertsonalik eza haiekin krisialdiari aurre egiteko, esate baterako: osasun fisiko txarra (lanerako ahalmena gutxitzeko moduan), jarrera psikologiko negatiboak (fatalismoa, norberarenganako konfiantza eta jarduteko aukerak ahultzen dituzten beste zenbait jarrera); ezagutza eta kualifikazio teknikorik eza (diru-sarrerak lortzeko eta eskubide propioak defendatzeko ahalmena gutxitzeko moduan), kapital sozialik eza (gizarte-baztertzeak edo elkartasun-loturak higatzeak laguntza lortzeko aukerak gutxitzen ditu, hura beharrezkoa izanez gero).
- Defentsa-gabezia edo gizarte-babesik eza; gizabana-koa edo familia babesteko mekanismorik eza, komunitateari (esate baterako, gizartea desegituratu denean eta ohiko elkartasun-mekanismoak gainbeheratu direnean) zein Estatuari (sorospenik, pentsiorik, oinarritzko gizarte-zerbitzurik eza, eta abar) dagokienez.

Ikusi dugunez, hainbat osagaik osatzen dute urrakortasuna. Faktore geografiko, ekonomiko, sozial, politiko eta pertsonal ugarien uztartzeari erantzuten diote arrazoiek, betiere kontuan izanda zenbateraino dauden arriskupean edo familia eta gizabanako bakoitzaren ahalmenen prestasuna tes-tuinguru jakin batean.

Azken batean, arrazoi ugariaren emaitza da pertsona ba-koitzaren urrakortasuna, faktore orokorrekin hasi eta bana-banako faktoreak barne hartuta, faktore historiko eta egitu-razkoekin hasi eta beste zenbait koiuntural eta berehalakoak barne hartuta. Arrazoen gainjarritako hiru kategoria edo mailatan bildu litezke guztiak ere:

- a) *Erroko edo egiturazko arrazoiak*, denborak aurrera faktore sendotuak eta egonkorrak direla kontuan izan-da (eta hortaz, ikuspegi historikoarekin aztertu behar-rekoak), egitura sozial, ekonomiko eta politikoetan sustraiturikoak. Ondokoak nabarmentzen dira horien artean: baliabide naturalen prestasuna, tokiko eta na-zioarteko egitura soziala eta ekonomikoa, sistema ide-ologiko eta politikoak, eta abar.
- b) Urrakortasuna eragiten duten epe ertain edo laburrera-ko *prozesuak eta dinamikak*, aurreko barrenean abia-razitakoak. Faktore koiunturalagoak dira, une edo leku jakin batean urrakortasuna areagotzea dakartenak, esate baterako ingurumen-hondatzea, kanpo-zorren krisialdia, edo erregimen autoritarioak existitzea.



- c) *Mugatzaile pertsonalak*, ikusi ditugun urrakortasunaren arrazoiek desberdin eragiten baitiote gizabanako bakoitzari, arriskupean egotea eta ahalmenen prestasuna baldintzatzen duten bana-banako faktoreen arabera. Ondokoak azaltzen dira mugatzaile horien artean: gizarte-maila, jarduera ekonomikoa, generoa, adina, arlo sanitario eta nutrizionaleko egoera, hezkuntza-maila, etnia eta erlijioa, bizitokia, estatus juridikoa, eta erabakitze borondatea eta ahalmena.

Aurrekoaren arabera ondoriozta daitekeenez, pertsona baten urrakortasuna eta haren *premiak* gauza desberdina direla zehaztu behar da: azken hauek berehalakoak dira, eta haiek, berriz, epe luzeragorako faktoreek markatzen dituzte, horietako asko egiturazkoak. Horrek, zalantzarik gabe, inplikazio garrantzitsuak ditu ekintza humanitariorako, unean uneko arintzea ez ezik gerorako garapenerako oinarriak ezartzea ere helburutzat dituen esku-hartze orok premiak betetzeaz gain urrakortasuna ere gutxitu behar baitu.

## 1.2. Katastrofea

Katastrofea (ingelesez, *hazard*, zenbaitek *mehatxu* gisa itzultzen duten terminoa) muturreko gertakaria da; leku bat eta alde zehatzetako urrakortasuneko testuinguruan bizi den populazioa une jakin batean jotzean, kalteak eta nahasteak eragin diezazkioke, hondamendi-prozesuak abiarazteko moduan. Hortaz, katastrofea krisialdiaren eragilea da, berezko arrazoi bakoitzaren bidez.

Bi sailkapen onartzen dituzte batez ere katastrofeek. Lehenik, *naturalak* izan litezke, esaterako urakanak eta erupzio bolkanikoa, edo *humanoak*, esaterako gatazka armatuak, istripu nuklearrak edo sute gehienak. Azpimarratu beharrekoa da, hala ere, 70eko hamarkadaz geroztik zabaldu den kontzientziaren arabera, kalamitate natural deituriko asko ez direla hain naturalak, gizarte-sistemari loturiko fenomenoak baizik, eta giza ekintzak bultzaturikoak. Hori litzateke ibai-arroen gehiegizko urbanizazioak errazturiko uholdeen kasua, edo deforestazioak eta berotze orokorrak eragindako lehortearen kasua. Era berean, zenbait giza katastrofe (ihes erradioaktiboa, esaterako) faktore naturalek alda dezakete, haizearen norabidea eta abiadura, esaterako. Azken batean, naturalaren eta humanoaren arteko muga lausoa da katastrofeetan, eta guztiek dute bi osagaien zati bat.

Bigarrenik, *sortze geldokoak* izan litezke katastrofeak, esaterako lehorreak, edo *bat-batekoak*, esaterako lurrikarak edo uholdeak. Alderdi hau oso garrantzitsua da, eman beharreko ekintza humanitario mota baldintzatzen baitu. Lehorreek, esaterako, denboraldi luzea har dezakete, ziurrenik bi urte edo gehiago, hondamendi-prozesu bat abiarazteko, eta hori alde aurretik atzematea ahalbidetzen du horrek, Alerta Goiztiarreko Sistemak tarteko. Horrek erantzun bizkorra ahalbidetzen du, ondo planifikaturikoa, berehalako premiak betetzeaz gain, gerorako garapenaren oinarriak ezartzeko moduan. Aitzitik, bat-bateko katastrofeen kasuan, aurreikuspena eta plangintza zailagoak dira, eta laguntzak, lehen unean behintzat, bitarteko logistikoen zabaltzea du ardura, eraginpekoek bizirauteko laguntza bizkor banatzea bermatzeko moduan.

### 1.3. Hondamendia eta hari aurre egiteko estrategiak

Bestalde, hondamendia krisialdi eta desegituratze prozesua da, horrek dakartzan ondorio humano, sozial eta ekonomiko kaltegarriekin, ondokoak esate baterako: mantenu-bitartekoak hondoratu eta familien ondoriozko miseria, goseteak, epidemiak, hilkortasun-tasa areagotzea, nahitaezko migrazioak (etxeak eta jarduera ekonomikoak utzita, baita komunitateak eta familiak zatituta ere) gizartearen desegituratzea, eta zenbait arau sozial eta etiko aldatzea.

Lehen aurreratu dugunez, ondoko egoeran gertatzen da hondamendia; katastrofe baten kolpea jasaten dutenek, betiere alde aurreko urrakortasun-egoera batean, euren kabuz haren kolpeari eutsi ezin diotenean. Hau da, urrakortasun-maila altua dela-eta, beharrezko *ahalmenak* (kapitala, bitarteko materialak, ezagutzak, gizarte-sareak, osasun ona, eta abar) ez dituztenean krisialdiari eusteko *aurre egiteko estrategiak* ezarri ahal izateko.

Izan ere, 80ko hamarkadaz geroztik eginiko ikerketa ugari erakutsi dutenez, hondamendien eraginpekoek, modu pasiboan geratzen urrun, hainbat estrategia baliatzen dituzte biziraupena ziurtatzeko, eta ahalik eta denbora luzeenez, euren produkzio-ondasunak (lurra, azienda eta abar), behin krisialdia igaro ondoren mantenu-bitartekoa eustearen mesedetan. Hiru motatakoak izan ohi dira aurre egiteko estrategia horiek:

- a) Arriskua dibertsifikatzekoak: zenbait jarduera eta diru-sarrera iturri uztartzea (nekazaritza hainbat laborerekin,

abeltzaintza, merkataritza, lan-emigrazioa soldata bat lortzeko, eta abar), batek huts eginez gero besteekin konpentsatzeko.

- b) Aurreztekoak elikagai gutxiago kontsumitzea, elikagai merkeagoak, edo basa-elikagaiak; laboreen eta bazkalekuen gehiegizko ustiapena, elikagaiak taldean erosi eta prestatzea (herri-eltzeak) eta abar.
- c) Deskapitalizaziokoak: familiarteko ondasunak arian-arian saltzea, baita produkzio-ondasunak ere (erremintak, lurra, azienda).

Estrategia hauen ezarpenak nolabaiteko progresio geometrikoa duela aipatu behar da, hondamendiaren prozesuarekiko paraleloan. Hau da, kostu eta sakrifizio txikiak eskatzen dituztenak burutzen dituzte lehenik familiek, baina krisialdia larritzen den heinean, bizirauteko premiak euren osasunerako kostu handiagoa dakartenetara jotzera behartzen ditu (elikagaien kontsumoa gutxitzea, adibidez), baita euren mantenu-bitartekorako (produkzio-ondasunak saltzea) edo ingurumenerako ere (lurrak eta bazkalekuak gehiegi usiatzea). Egoera larritasunaren eta erabilitako estrategien arteko korrespondentzia horren ondorioz estrategia horiek ikasteko aukera tresna bezala erabil liteke une jakin batean komunitate edo familia baten urrakortasun-maila aurreikus-teko. Ildo honetan, bere produkzio-ondasunak saltzen hasten denetik urrakortasun-maila oso altua izango dela esan liteke; muturreko erabakia da hori, bere etorkizuneko biziraupena hipotekatzen duen neurrian, nahiz eta ezinbestekoa ere baden, epe laburrean bizirauteko elikagaiak erosi ahal izateko.

Hainbat taldek (nekazariak, artzain nomadak, hiriko po-break, familia-buru diren emakumeak, eta abar) ezarritako estrategiei buruzko azterlanek ekarpen garrantzitsuak egin dituzte, krisialdien, haiek pairatzen dituztenen eta laguntza jasotzen dutenen zenbait ikuspegi estereotipatu zalantzan jartzen dituztenak. Lehenik, egiaztatu dutenez, hondamendiak pairatzen dituztenek euren estrategiak tarteko lortzen dituzte oinarrizko baliabide gehienak, ez nazioarteko laguntzarena edo euren gobernuena, gehienetan paper nahiko txikia betetzen baitu laguntza horrek. Bigarrenik, eraginpekoen irudia duintzeko lagungarri izan dira, ahalmen propioak eta gaintzeko borondatea duten izaki aktiboak direnez, pasiboak eta kanpoko soluzioen menpeko izan beharrean. Hirugarrenik, laguntza humanitarioak estrategia eta ahalmen horiek ez lituzkeela baztertu behar erakutsi dute, baizik eta horiek indartzen saiatu.

Azken batean, adierazitako hiru faktoreen uztartzearen fruitua da hondamendia: haren lagungarri diren urrakortasuna eta katastrofea, eta hari aurre egiteko estrategiak. Honela adieraz liteke euren arteko erlazioa:

Hondamendia = urrakortasuna + katastrofea – horiei aurre egiteko estrategiak

Hondamendiaren sakontasuna eta hedadura hondamendiaren motaren, intentsitatearen eta iraupenaren arabera dago, jakina. Baina oraindik erabakigarriagoa da komunitate edo familia batean aldez aurretik dagoen urrakortasunaren maila. Izan ere, garrantzi txikiko katastrofe batek larriki har dezake eraginpean talde oso urrakorra, eta gutxi urrakorra den talde bat, berriz, kalterik gabe irten liteke garrantzia handiagoko katastrofe bat dela-eta. Horrela, katastrofeek gutxitan eragiten dute hondamendirik populazioa gutxi urrakorra den lekuetan (herrialde aberatsetan, adibidez). Familia urrakor ugari dagoen lekuan gertatzen da hondamendia; katastrofeak gogor jotzen ditu, eta baliabide material (dirua, lurra, eta abar), sozial (laguntza eta hezkuntza-maila ematen duten gizarte-sareak) edo psikologiko (adorea, bere buruan konfiantza) oso gutxi dituzte krisialdia gainditzeko beharrezkoak diren haiei aurre egiteko estrategiak ezartzeko.

Azaldu dugun interpretazio hau –hondamendiak neurri handi batean urrakortasunaren fruitu izatea, alegia– azken hamarkadetan izandako bilakaera teorikoaren ondoren soilik izan da posible. Historiaren joanean, batez ere naturalak edo jainkotiarrek diren fenomeno gisa azaldu dituzte hondamendiak. Hondamendiak gertakari naturalak lirateke (batez ere fenomeno meteorologikoak eragindakoak), ohiz kanpoak, ezustekoak, eta inolako harremanik ez dutenak ohiko gizarte-prozesuekin, eguneroko bizimoduarekin. Ikuspegi natural hori beste hainbat azalpenekin osatu da, aztergaitzat biktinek egindako baliabide naturalen kudeaketa txarra duela (gehiegizko laboreak, gehiegizko artzaintza, gehiegizko baso-mozketa), euren ezjakintasuna edo jokabide irrazionala tarteko. *Modernizazioa* edo *desarrollismoa* deituriko garapen-ereduak bere egin zuen ikuspegi hau, 50 eta 60ko hamarkadan modan egon zela kontuan izanda; ikuspegi horren arabera azpigarapenak eragiten zituen hondamendi naturalak, ekonomiaren eta gizartearen denborazko atzerapen gisa ikusita bide jakin batean aurrera (Mendebaldeak jada beterikoa), tradiziotik hasi eta erabateko garapeneraino. Horrenbestez, *aurrerabidea* litzateke hondamendietarako soluzioa, hau da, herrialde pobreetan mendebaldeko teknologia eta egitura modernoak ezartzea, horrek gizarte industrialen segurtasuna lortzea ahalbidetuko bailieke.

70eko hamarkadaz geroztik, eta batez ere 80ko hamarkadaz geroztik, ikuspegi natural horren ondoan beste bat garatzen hasi zen, joera sozial, ekonomiko eta politikokoa. Ikuspegi alternatibo honek, nahiz eta ez duen ukatzen katastrofeek hondamendien eragile gisa duten garrantzia, gehiago azpimarratzen du desberdintasun eta pobrezia-ko egitura eta prozesu sozioekonomikoen azterketa, hondamendiak sortzen dituen urrakortasunaren eragile direnez. Eguneroko bizitzaren baldintzen ondorio bezala ikusten dira hondamendiak, ez horretatik kanpoko fenomeno bezala; garapen-eredu jakin baten emaitza bezala garapenik eza edo garapenaren etetea baino gehiago.

Ikuspegi sozial horren formulaziorako erabakigarria izan zen 70eko hamarkadan izandako hainbat hondamendiri buruzko gogoeta teorikoa; *mendekotasunaren teoria* Hirugarren Munduaren arazoak aztertu zituen 60 eta 70eko hamarkadetan, Iparraldearekiko esplotazio eta mendekotasuneko egiturazko harremanetan oinarrituta; eta Amartya Sen-en elikagairako titulartasunen teoriak (*Poverty and Famines*, 1981) egiaztatzen duenez, gosete gehienak ez dira elikagairik ezaren ondorio, baizik eta baliabiderik gabeko familiek haietarako aukerarik ez izatearen ondorio; azken batean, pobrezia-aren ondorio.

Baina arlo akademikoan hondamendiak gertakari batez ere humanoak direneko ideia errotuta dagoen arren, diskurtso politikoan eta komunikabideetan azalpen naturalek pisu handia dute oraindik ere. Hori zerari zor zaio neurri batean, gure begietara uholde edo lurrikara bat arrazoi nabarmen, zuzeneko eta sinpleen ondorio bezala agertzen direla. Baina, era berean, nolabaiteko interes ideologiko eta politikoa- ren arabera hondamendiak halabeharraren ondoriotzat, naturaren apetatzat, ikusteari ere zor zaio, gizarte-errealitate-rik kanpokoak balira bezala. Bestela esanda, fenomeno apoliti-koak, saihestezinak, lirategi, eta horien erantzukizuna ezin dakieke leporatu ez gobernuei euren politikak tarteko, ez eragile ekonomikoei euren praktikak eta interesak tarteko, ez beste ezein giza erakunderi ere.


Edozein kasutan ere, adierazi dugun bezala, apurka- apurka hondamendiak ulertzeko modu batek egin du aurre- ra, urrakortasuna osatzen duten arrazoi ekonomiko, sozial eta politikoen arrazoiak edo haietarako joera azpimarratzen duena. Faktore-sorta zabalari erantzuten diote arrazoi ho-riek, egiturazkoak zein koiunturalak, esate baterako prozesu historikoak, testuinguru ekonomikoa, gizarte eta genero ha- rremanak, ingurumen-arazoak, gizarte-politikak, pobrezia

eta gizarte-baztertzea, eta abar eta abar. Arrazoi-faktore horien artean azken boladan indartu den bat gatazka armatuak dira, eta horrek hondamendiak eszenatoki askoz ere politizatuagoan jartzen ditu ingurumen-katastrofeek eragindakoak direnean baino. Esku-hartzeek, hondamendiei erantzuteko direla zein haiek prebenitzeko direla, arrakasta izateko aukera bakarra zera da, faktore horiek euren konplexutasun osoan ulertzea, sektore askotariko azterketatik begiratura, eta hori adierazten saiatu gara hondamendiaren kausa-egiturari buruzko erantsitako irudian.

Beste bilakaera teoriko bat ere azpimarratu behar da, zenbait zirkulu akademikotan izandakoa, hondamendien eta garapenaren arteko erlazioari buruzkoa. Modu konbentzionaletan, hondamendiak unean uneko gertakari bezala ikusi dira, ohiko bizi-baldintzekiko salbuespen gisa. Horregatik, garapenera daraman ohiko bidearen etenaldi unean unekoa eta anomaloa litzateke hondamendia, behin krisialdia gainditu ondoren bideari berriz ekiteko moduan. Hala ere, hainbat autorek azken boladan adierazi dutenez, hondamendiak prozesu nahiko luzeak dira, urrakortasuneko egiturazko baldintzetan errotuta egoteaz gain, eta, hortaz, ezin dira interpretatu garapenaren bideko salbuespenezko etenaldiak bezala, baizik eta herrialde askotako garapen politiko eta ekonomikoaren porrotaren adierazgarri bezala. Hondamendi endemikoko testuinguru horietan ekintza humanitarioa beharrezkoa izan liteke, baina argi eta garbi nahikoa ez den erantzuna da.

Bestalde, adierazi dugunez, hondamendiak sozialki selektiboak dira: pobre, urrakor eta botere falta dutenekin grinatzen dira, eta gutxitan ukitzen dituzte, ordea, aberats eta boteretsuak. Are okerrago, polarizazio soziala bultzatzen duten prozesuak dira hondamenak, galtzaileak izateaz gain irabazleak ere baitituzte. Krisialdia sakona denean, sektore urrakorrenak, elikagaiak eta bizirauteko bestelako oinarrizko ondasunak erosi ahal izateko, euren produkzio-ondasunak (erremintak, azienda, lurra) sektore dirudun eta boteretsuei (nekazari handiak, merkatariak, elite politikoak) saldo-prezioran gaizki saldu beste aukerarik ez dute, horiek bai baitituzte baliabideak krisialdiari eusteko, eta horrela euren ondarea lortzeko aukera izango dute. Horretaz gain, hondamendia gatazka armatuko testuinguruan bada, populazioaren aurkako indarkeria erabiltzen da urrakorrek bizkor gabetzeko, lapurreta, nahitaezko exodoa edo «garbiketa etnikoa» deiturikoa tarteko. Hortaz, hainbat sektorek hondamendia nahita sortu edo bultzatu dezakete baliabide horiek urrakorretatik boteretsuetara eskualdatzeko aukera ahalbidetzeko.

7. grafikoa Hondamendiaren kausa-egitura: urrakortasuna, katastrofea eta aurre egiteko estrategiak



Iturria: PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos (1999), Vulnerabilidad y desastres. Causas estructurales y procesos de la crisis de Africa, Cuadernos de Trabajo de HEGOA, n.º 24, Bilbao, pp. 38-39.

## 2. KATASTROFE NATURAL EN ONDORIOZKO HONDAMENDIAK

Hondamendi bakoitzak aldeak ditu hainbat elementuri dagokionez; ezaugarriak, dinamika kronologikoa, suntsipen- inpaktua, populazioan eragiten dituen premiak eta laguntzari ezartzen dizkion zailtasun logistikoak. Uneko urrakortasun-mailaren mende egoteaz gain, krisialdiaren eragile gisa jarduten duen katastrofe-motaren mende ere badago hori. Horrenbestez, egoera bakoitzak laguntza humanitarioak erantzun propioa eta desberdina ematea eskatzen du. Hori dela-eta, zenbait kalamitate natural ohikoenen inpaktua aztertuko dugu orain, gatazka armatuen azterketa datorren punturako utzita.

Katastrofe natural hauen inpaktua areagotu egin da 80 eta 90eko hamarkadetan, 70eko hamarkadan zertxobait gutxitu ondoren. Horren arrazoia ez da hainbeste gertaturiko kalamitate-kopurua handitu izana, baizik eta batez ere zonalde jakinetan eta gizarte-talde jakinentzako urrakortasuna handitu izana. Horrela, adibidez, garapen-bidean dauden herrialdeetako eskualde erdilehor askotan, gehiegizko artzaintza eta paisaia naturalak labore-lur bihurtu izanak landare-estaldura gutxitu du, higadura ahalbidetuta eta euriuraren zurgapena gutxituta, eta horrek lehorte-arriskua areagotu du euriak urri direnean, eta uholde-arriskua ere bai, haiek ugari direnean.

### 2.1. Lehorteak

Lehorteek eragindako krisialdiek sortze-aldi geldoa dute, bizpahiru urte iraun dezakeen prozesua baita; elikagai edo diru erreserbak apurka-apurka agortzen zaizkie sektore urrakorrei, baita euren produkzio-ondasunak ere. Aurre egiteko estrategiak eta elkartasun komunitarioa nahiko eraginkorrak izan litezke, baina ahuldu eta agortu egiten dira krisialdia luzatzen bada. Hortaz, lehorteek inpaktuak pobretzea eta nekazaritza-produkzioa galtzea harrotzen ditu, euriak etorri eta uztak hobetzean prozesu horiek alderantzikatu litezkeela kontuan izanda. Bestalde, beste zenbait alderdi garrantzitsu ez dira normalean eraginpean geratzen, esaterako azpiegiturak eta zerbitzuak (ur-hornidura izan ezik), gizarte-egitura-tzea, merkataritza-zirkuituak, edo Estatuaren funtzionamendua eta legitimitatea.

Horrenbestez, lehorteetako ur-hornidurak ez ditu beste hondamendietan bezain arazo logistiko larriak izaten. Haren



sortze-aldi geldoak garaiz aurreikustea ahalbidetzen du *Alerta Sistema Goiztiarrak* tarteko, baita neurriak hartzea ere plangintza nahikoarekin ondorioak arintzeko, ez baitago denbora-premia larririk. Horri zera gehitu behar zaio, krisialdia gorabehera familia gehienek oraindik zenbait baliabide propio izango dituztela (janari-erreserbak, dirua, elkartasun-mekanismoak, eta abar). Hori dela-eta, laguntza ematerakoan autosufizientzia-maila zein den aztertu behar da, eta jada daukatena osatu soil-soilik.

## 2.2. Lurrikarak

Bat-bateko kataklismoak dira, aurreikusteko eta arintzeko zailak, batez ere etxebizitzak, industriak, komunikazio-bideak, ur-azpiegiturak eta saneamenduak, eta abar, suntsitzen dituztela kontuan izanda. Horrenbestez, ondokoak izaten ditu ondorio nagusizat; garraio-sistemanahastea, merkataritza-sareak etetea, epidemia-arriskuak ur garbirik ezak eraginda eta osasungarritasun-arazoak (hirietan), eta langabezia areagotzeagatik pobretzea. Hala ere, ez dio kalterik eragiten ez nekazaritza-produkzioari, ez elikagaien erreserbei, eta, hortaz, elikagai-defizitak izanda ere, garrantzi txikikoak, laburrak eta zonalde mugatuetan gertatu ohi dira. Horrela, elikagai-laguntza ez da lehentasuna izaten, bai, ordea, ura eta saneamenduak hornitzeko esku-hartzeak.

## 2.3. Uholdeak eta tifoiak

Hauek ere kataklismo bizkorak dira, lurrikarak bezala, eta etxeak, fabrikak, garraio-azpiegiturak eta oinarrizko zerbitzuak suntsitu ditzakete. Baina aurreko kasuan ez bezala, hauek nekazaritza-produkzioa eta elikagai-erreserbak suntsitzen dituzte. Mehatxu nagusia, edozein kasutan ere, uretik eratorritako arazoak direla-eta epidemiak hedatzetik dator. Horrenbestez, kasu hauetan premia larriena ez da janaria izaten (lehenengo egun edo asteetan behintzat), baizik eta babeslekua, edateko ura, saneamendua eta laguntza sanitarioa.

## 3. GATAZKA ARMATUAK ETA LARRIALDI POLITIKO KONPLEXUAK

Berriki izandako krisialdi humanitario larrienen arteko gehienak ez dituzte katastrofe naturalek eragin, baizik eta

barne-gatazka armatuek. Izan ere, gatazka armatuek inpaktu askoz ere gaizto, zabal, sakon eta iraunkorragoa izaten dute kalamitate naturalek baino. Hauek bezala, gerrek ere populazioaren migrazio masiboak, pobrezia, azpiegituren eta zerbitzu publikoen suntsipena, eta produkzio eta merkataritza jarduera nahastea eragiten dute. Baina, horretaz gain, gatazka armatuek beste zenbait kalte larri ere eragiten dituzte, katastrofe naturalekin batera gutxitan agertzen direnak, esaterako gobernagarritasun-krisialdia legitimitate galtzea tarteko, eta zenbaitetan Estatu zatikatzea, gizarte-sareek eta ohiko elkartasun-mekanismoek porrot egitea, eta baita gizarte-bizikidetzako jarraibideak eta arau etikoak aldatzea ere. Era berean, indarkeriak krisialdiaren aurkako familia-arloko estrategiak ezartzea zailtzen du, baita nazioarteko laguntzaren banaketa ere, alderdi borrokalariak horren zati bat bereganatu edo desbideratu egiten baitute.

Horrela, 80ko hamarkadaz geroztik eta behin Gerra Hotza amaituta ugaritu diren gatazka zibil edo barrukoak dira osagai nagusia *Larrialdi Politiko Konplexuak (LPK)* deiturikotetan. *Larrialdi konplexu* hutsaren kontzeptua 80ko hamarkadaren amaieran landu zuten Nazio Batuek ordutik hona ugaritu diren krisialdi humanitario handien izaera bereizgarria deskribatzeko. Hasiara batean Mozambike eta Sudango kasuen erreferentzia gisa sortua, berehala hedatu zen erabiltzeko aukera, gatazka zibilak ugaritu zirenez (Somalia, Jugoslavia ohia, Ruanda, eta abar). Ondoren, autore askok *politikoak* adjektiboa gehitu dute krisialdi horien izaera politikoa azpimarratzeko, eta hori dela-eta, LPK kontzeptua erabilitako beste biak baina egokiagoa iruditzen zaigu: ares-tian adierazitako *larrialdi konplexuena* eta *larrialdi humanitario konplexuena*. Edozein kasutan ere, zenbait autorek adierazten dutenez, kontzeptu hauek eufemismoa baina ez dira egiaz giza eskubideen bortxaketa masiboa eta nahita egindakoa dena aipatzeko.

Hiru arrazoiri zor zaie *konplexuak* izena. Lehena, haren kausen ugaritasuna, hainbat faktore politiko, ekonomiko eta soziokulturalen uztartzea izaten baita. Bigarrena, inpaktua- ren izaera orohartzailea, katastrofe naturalek eragindako hondamendiek ez bezala maila guztiak hartzen baititu eraginpean, efektu suntsitzaile eta desegituratzaile sendoa tarteko. Hirugarrena, nazioarteko erantzuna askotariko mandataritzan oinarritzeko premia, hainbat frontetan jarduteko moduan, esaterako biktimak laguntza materialarekin eta babesarekin hornitzea, goi-mailako diplomazia, edo baita indar armatua erabiltzea ere bakea mantentzeko edo laguntzaren eskolatanak egiteko. Horri guztiari zera gehitu beharko litzaioke,

erantzunaren konplexutasuna areagotu egiten dela dagoen gatazkarekin nahastu eta arazoaren beste zati bat bihurtzen denean, zenbait esku-hartze militar eztabaidagarriren kasuan gertatu den bezala, 1992ko Somaliako krisialdian esaterako.

LPK bakoitza desberdina da bere arrazoiei, aktoreei, eraginari, konponbideari eta abarri dagokienez, jakina. Hala ere, normalean ondoko elementuak izaten dituzte ezaugarritzat, eta horietatik bi lehenengoak gertatzen direnako testuinguru orokorra definitzen dute: ekonomia formala hondoratzea eta ezkutuko ekonomiaren gorakada; Estatu ahultzea edo porrot egitea; gatazka armatua; gosetea; populazioaren nahitaezko migrazioak; krisialdi sanitarioa; eta, aldi behin, egoera larriagotzen duen kalamitate naturalen bat. Ikus dezagun ondoren elementu bakoitza.

### 3.1. Ekonomia formalaren hondoratzea eta ekonomia informalaren gorakada

LPKak desegituratze ekonomiko nabarmeneko testuingurutan gertatzen dira, eta ekonomia formala hondoratzea (Estatuan eta estatistiketan ikus daitekeena) eta ondoriozko ezkutuko ekonomiaren gorakada, sare klandestinoek kudeaturikoa, dira horren adierazgarri. Hainbat arrazoi ditu prozesu honek. Garai bateko herrialde sozialistetan, merkatu-sistema irekirako trantsizio azeleratu eta kaotikoak atek zabaldu dizkie ustelkeriari eta mafiek buruturiko bestelako delituzko praktikei, ekonomiaren zati handi bat kontrolatzen dutela kontuan izanda. Hirugarren Munduko herrialdeetan oro har, 80ko hamarkadaz geroztik buruturiko euren ekonomien egokitzapen estrukturalako programek eta politika ekonomiko neoliberalak ezarri izanak Estatuak ekonomian duen presentzia gutxitu dute, baita haren erregulazio eta sustapen eginkizuna ere. Horri, globalizazio ekonomikoko gaur egungo prozesuan herrialde pobreenetako ekonomia hauskorrek eta gutxi lehiakorrek pairatzen duten baztertze eta presio geroz eta handiagoa gehitu behar zaio.

Ekonomia formalaren baztertze eta desegituratze prozesu hauek langabezia eta miseria areagotu dute gizarte-sektore zabaletan. Izan ere, ezkutuko ekonomiara jo behar izan dute bizirauteko, herrialde askotan izan duen gorakada handia krisialdi-testuingurura egokitzeko mekanismoa izan dela kontuan izanda. Ezkutuko ekonomia edo ekonomia paralelo hori sareetan oinarrituta egituratu da, zenbaitetan nolabaiteko nortasun-elementuari jarraiki (etnia, klana eta abar), normalean pertsona boteretsuak edo boterearekin ondo erlazio-

naturikoak buru dituztela (*gerraren jaunak*, tokiko agintariak edo naziokoak), negozioak egin eta euren interesak defendatzeko ustelkeria eta indarkeria erabiltzen dutela kontuan izanda. Sektore ekonomiko honek, herrialde pobreenetan populazioaren portzentaje handi bati enplegua ematen diola kontuan hartuta, kaleko zerbitzu txikiekin hasi eta arma-kontrabandoa edo estortsio-praktika mafiosoak ere barne hartzen ditu.

### 3.2. Estatu ahultzea eta desegitea

Estatu pobreenen krisialdi politiko eta deskonposizioko testuinguruan gertatzen dira LPKak. Prozesu hau tarteko, zein narriadura-mailalara iritsi den kontuan hartuta, hiru estatu-mota bereiz ditzakegu: *Estatu ahulak* (gobernatzeko ahalmen gutxirekin), *hauskorrak* (desegiteko arrisku larriarekin) eta *porrot egindakoak* (deseginak eta euren lurraldea gobernatu eta kontrolatzeko gai ez direnak).

Lehen maila bati helduta, porrot hirukoitza dute ezaugarritzat *estatu ahul* eta *hauskorrek*: a) garapen ekonomikoko ereduarena, desberdintasunen eta pobreziaren areagotzea eragiten duela kontuan hartuta; b) sistema politikoarena, ez baitago legitimitate eta gizarte-oinarri zabalik duen erakunderik; eta c) gatazken kudeaketarena, estatu autoritarioak izaten baitira, negoziazorako uzkur eta disidentzia politikoen errepresioaren zale. Porrot hirukoitz honen ondorioa gizarte-atsekabea eta Estatuaren herri-deslegitimazioa areagotzea izaten da.

Bigarren maila, *porrot egindako estatuei* dagokiena, aurrekoaren degenerazioa da; Estatu hondoratu egiten da, eta horrek ondokoak dakartza: gatazkek gobernatu eta kudeatzeko ezintasuna, Estatuaren absentzia efektiboa zonalde geografiko eta bizitzaren arlo jakinetan, baita indarkeriaren monopolioa galtzea ere, hainbat taldek ere luze-zabal baliatzen baitute (miliziak, paramilitarrak eta abar). Testuinguru horrek zatikatze sozial eta politikoa bultzatzen du, sarritan faktore etniko edo erlijiosoak goratzean oinarrituta, baita Estatuaren gainean identifikatzen den nortasun nazionalaren higadura eta, agian, porrota ere. Horrek guztiak asaldaketa politikoa eta liskar armatuak areagotzen ditu. Horretaz gain, Estatu desegiteko prozesu horri erantzunez, herrialde askotan botere politikoaren berregituratze gisa interpretatu dena gertatu da, boterearen forma ez konbentzionalak, oldarkorrek eta zatikatuak azaldu baitira. *Gerraren jaunak* dira, eginkizun politiko, militar eta ekonomikoak betetzen dituzten tokian tokiko buruzagiak.

### 3.3. Barruko gatazka armatua

Desegite politiko eta ekonomikoko testuinguru honetan, barruko gatazka armatuak dira LPKen eragile nagusia. Gatazka konbentzionalekiko dituzten ezaugarriei zor zaie hori gehienbat, armada erregularrek parte hartzen baitute haietan, horien gobernuek ordaindurikoak eta horien agindueta-  
ra. Gaur egun, gatazka askotan, alderdi borrokalarietako bat edo guztiak talde irregularrak dira, ez dute aginte-kate garbirik, ordaindu gabeak dira, eta harrapaketatik bizi dira. Helburua beste talde etniko bat menderatzea denez, haren bizi-bitartekoak suntsituta, bereziki suntsigarriak diren taktika militarrek erabiltzen dira, helburu militarra populazio zibila bera baita, ez armada edo gobernu etsai batek errendizio-agiri bat sinatzea.

Nortasun-elementu bereziak (etnia, klana, nazioa, erlijioa) puzteko aukerak xaxatzen dituzte gatazka horiek, sarritan elite baten estrategiei jarraiki, bezero politiko leialak ziurtatu eta boterean mantentzearen mesedetan. Gerra Hartzaren osteko munduan, zenbaitek *ideologiko ostekoa* deiturikoan, printzipio mobilizatzaile unibertsal zaharrak (borroka-klasea, iraultza) krisialdian daudenez, nortasun horiek dira eraginkorrak disidentzia bideratu eta populazioa mobilizatzeko. Baina, horretaz gain, autore ugari *gerraren ekonomia politikoa* deiturikoak bultzatzen ditu gatazkak, populazio zibila ondasunez (azienda, dirua, elikagaiak, eta abar) ilegalki gabetzeko aukeran oinarrituta. Ondasun horiek ondoren sare klandestinoak tarteko bideraturiko dituzte, gerraren jaunek edo bestelako sektore boteretsuek kontrolaturiko sareak, hain zuzen ere.

### 3.4. Gosetea

Gosetea da LPKen ohiko osagaietako bat. Krisialdi sozio-ekonomikoko prozesua dugu, ezaugarritzat desnutrizioa, pobrezia eta epidemiak areagotzea duena, eta sarritan horren emaitza heriotza-tasa ere areagotzea izaten da.

Populazio jakin bat elikatzeko elikagai nahikorik ezaren ondorioztat hartu izan dira normalean goseteak, faktore naturalak tarteko (katastrofe meteorologikoak eta hazkunde demografikoa). Hala ere, Amartya Sen-en *elikadurarako titular-tasunen* teoriaren ondorioz, 1981ean argitaraturikoa, arrazoia ez zaio normalean hornidurarik ezari lotzen, baizik eta familia urrakorrenek elikagaietarako *aukera* galdu izanari batez ere. Azalpen sozioekonomikoa da, aukera edo titulartasuna

galtzea hainbat faktoreri zor baitzaie, esaterako produkzioa eta diru-sarrera iturriak galtzea, erosteko ahalmena erortzea eta prezioak igotzea.

Azkenik, 80ko hamarkadaren amaieraz geroztik, gerra zibileko testuinguruetako Afrikako berriki gertatutako gose-teak (Sudan, Somalia, Etiopia eta abar) aztergai dituzten hainbat ikertzailek haien arrazoen azalpen nabarmen politikoa eman dute: gobernuek eta bestelako taldeek eginiko giza eskubideen bortxaketa masiboak dira goseteak; populazioari oinarrizko zerbitzuetarako aukera edo euren eskubideak baliatzeko aukera ukatzen diote, eta zenbait praktika erabiltzen dituzte horretarako, jazarpena eta nahitaezko lekualdatzeak esaterako. Are gehiago, gosete hauetako asko nahita eragiten dituzte sektore boteretsuek gerra-arma, eta sektore pobretu eta gosetuak euren ondasunez gabetzeko tresna gisa.

### 3.5. Nahitaezko migrazioak

Krisialdi humanitario handietako beste elementu bat populazioaren exodo nahigabekoa eta masiboa da, aldi baterako edo behin betirako dela. Nahitaezko migrazioetan presio hertsatzaile edo mehatxuren batek behartzen du populazioa lekualdatzera, pertsonak hori saihesteko erabakitzeke edo eragiteko ahalmenik ez dutela. Presio-elementu horiek familiarartekoen edo laguntza-esparruetako laguntza bilatzeko nahitaez emigratu beharra izan litezke, eta, batez ere, jazarpen etniko-erlijiosoak eragindako ihesa, *garbiketa etnikoa* deiturikoa, edo *erretako lurraren* taktikak (azpiegiturak, labo-reak, etxebizitzak eta abar birrinduta).

Populazio-mugimendu horiek *errefuxiatu*-saldoak eragiten dituzte, hau da, beste herrialde batera ihes egiten duten jazarritakoak edo mehatxaturikoak, baita barne-desplazatuak ere, horiek euren herrialdeen barruan egiten baitute ihes. Azken boladan, beste talde bat ere aipatzen da, *ingurumen-errefuxiatuak*, hondamendi naturalak lekualdatzera behartzen duten elementua ere izan baitaitezke, nahiz eta horiek ez diren aintzat hartzen nazioarteko legedian. Populazioaren desplazamendu masiboek desegituratze ekonomiko handia eragiten dute, ohiko jarduera ekonomikoa ezinbestean eteten baitute, eta komunitateak eta familiak zatikatzen baitira. Era berean, epidemia infekziosoak hedatzea ere ahalbidetzen du.

### 3.6. Epidemiak

Hondamendiek, eta batez ere gatazka armatuek, benetako krisialdi sanitarioak eragiten dituzte; epidemien hedadura izaten dute ezaugarritzat, horiek baitira testuinguru horietan heriotza-tasa areagotzearen arrazoi nagusia. Hiru arrazoi-rengatik abiarazten dira krisialdi sanitarioak:

- Biktinek gaixotasunak hartzeko duten joera fisiologikoa areagotzea, malnutrizioak gorputz-ahulezia eta organismoak defentsak galtzea eragiten baitu.
- Gaixotasunen arriskupean egoteko aukera areagotzea, populazio-mugimenduek eta horiek hiriguneetan edo laguntza-esparruetan baldintza osasunkaitzak tarteko (edateko urik eta saneamendurik eza) pilatzeak zenbait gaixotasun kutsatzeko arriskua ugaritzen dute, esaterako elgorria, infekzio diarreikoak, malaria edo arnas infekzio akutuak (kukutxeztula, pneumonia, bronkitisa, eta abar). Gaixotasun kutsakor hauek dira desplazatuaren artean heriotza-tasa areagotzearen arrazoi nagusia. Hori horrela izaki, bortizkeriatik ihes egiteko exodo masibo eta bat-batekoetan desplazatuak euren herrialdean ohikoa denarekiko hirurogeita hamar bidez handiagoa den heriotza-tasa pairatu dezakete, aurreikusita-koaren arabera.
- Populazioarentzako babes sanitarioa gutxitzea, gatazka plangintza eta kudeaketa sanitarioko zailtasun handiagoa eragiten baitu, baliabide finantzarioak eta giza baliabideak gutxitzen ditu, osasun-zentroetara abiatzea arriskutsu bihurtzen du, eta azpiegitura sanitarioen zati bat suntsitzea edo etetea eragiten du.

Azkenik, larrialdi politiko konplexu hauetako osagai guztiei zenbaitetan beste elementu bat gehitzen zaiela azpimarratu behar dugu, hondamendi naturalena hain zuzen, egoera larriagotzen dutela kontuan izanda.

LPKen sustraia batez ere politikoa dela azpimarratu behar da; talde jakin batzuek botere politikoak, baliabide ekonomiko urrien kontrola eta euren nortasuna berrestea lortzeko borrokatzen dute. Zehazki, gatazka zibila eta gosetea gerraren jaunei eta bestelako eragileei euren botere politikoareagotzea ahalbidetzen dieten bitarteko bihurtzen dira Estatuaren ezintasun edo porrot testuinguruan, eremu jakinetako kontrola sendotuta; baita botere ekonomikoa ere, baliabide naturalak bereganatuta edo sektore urrakorrak euren ondasunez gabetuta zenbait taktika tarteko, *garbiketa etnikoa* deiturikoa

edo nahitaezko migrazioak esaterako. Bestela esanda, larrialdi politiko konplexuak sarritan nahita eragiten eta bultzatzen dituzte talde *irabazleek* edo horien onuradun direnek.

Bestalde, ikusi dugunez, krisialdi estrukturaleko testuinguruetan garatzen dira LPKak, politikoa zein ekonomikoa, eta zenbait autorek garapen-eredu baten porrotaren emaitza gisa interpretatzen dituzte. Ideia horrek aurre egiten dio larrialdien eta garapenaren artean dagoen erlazioari buruzko Nazio Batuen agentzien ikuskera tradizionalari. Izan ere, prozesu lineal eta normaltzat ikusi izan da garapena orain arte, eta hondamendiak, berriz, ohiz kanpoko gertaera gisa, prozesu hori aldiaren behin etenda, larrialdiaren inpaktua gainditzeko denean leheneratuko dela kontuan izanda, normalean laguntzari esker. Eskema hau, katastrofe naturalek eragindako hondamendietarako baliagarria izan baliteke ere, ez da baliagarria LPKetarako, epe luzeko gainbeheraren, eta ekonomia eta Estatuaren zatikatzearen ondorio baitira. Kasu honetan, krisialdia ez da gertakari unean unekoa eta aldi baterakoa, baizik eta araua: sistemaren krisialdia da. Ondorioa zera da, LPK bati ezin zaiola behar bezala erantzun haren sintomak arinduta soil-soilik, baizik eta porrot eragindako garapen politiko eta ekonomikoko eredu berriz formulatzea eskatzen duela.

Horretaz aparte, larrialdi konplexuek erronka politiko, etiko eta operatibo ugari planteatzen dizkiote nazioarteko ekintza humanitarioari. Zehatzak izateko asmorik gabe, jarduten deneko Estatu gainbehera etortzeak nazioarteko komunitateak egiazko ahalmena duen hizketakiderik ez duela esan nahi du, boterearen zatikatzek gobernua subiranoren aurka dauden taldeekin negoziatzera behartzen duela, edo nazioarteko agentziek eta GKEek erakunde publikoei legezkiekeen eginkizunak euren gain hartu behar dituztela. Beste dilema bat zera da, zein laguntza-mota eman behar den: biziraupenerako ondasunen eta zerbitzuen hornidura, hondamendi naturaletarako nahikoa izan litekeela kontuan hartuta, erabat ez nahikoa da giza eskubideen bortxaketa masiboen ondoriozko krisialdi hauetarako, beste era bateko neurriak eskatzen baitituzte (biktimak babestea, salaketa eta presio politikoa eta abar), baina horiek burutzeko aukera aurrekoekin uztartzea zaila gerta liteke, eta GKEek jazarpena pairatzea edo haiek herrialdetik kanporatzea eragin dezakete. Hirugarrenik, egungo barne-gatazken konplexutasunak, zenbait sektorek euren mesederako bultzatzen dituztela eta populazio zibila jazarzko praktikak baliatzen direla kontuan izanda, erronka serioa planteatzen dio zenbait printzipio humanitariok irauteari, esaterako neutraltasuna eta inpartzialtasuna, eta laguntza



instrumentalizatzeko eta liskarra pizteko arriskua areagotzen du. Horretaz gain, indar militarrek ekintza humanitarioko operazioetan geroz eta gehiago inplikatzean horiek hutsaltzeko arrisku handia eragiten du. Hurrengo kapituluetan jorratuko ditugu alderdi horiek guztiak.

#### 4. TALDE URRAKOR NAGUSIAK

Ikusi dugunez, hondamendiek ez dituzte berdin erasaten gizarte bateko sektore guztiak, horietako zenbaitek etekin ekonomiko eta politikoak ere lortzen baitituzte talde urrakorrenen kontura. Oro har, pertsona eta talde urrakorrenak pobreenak izaten dira, diru-sarrera ez seguru eta gutxi dibertsifikatuen mende daudenak, baztertu sozialak, talde etniko edo erlijiosotako kideak, errefuxiatuak eta barne-desplazatuak, emakume asko, fisikoki eta ekonomikoki besteen mende daudenak (haurrak, zaharrak, minusbaliatuak), osasun eta prestakuntza maila baxua dutenak, eta, azken batean, euren gobernuen arreta erakartzeko eta euren eskubideak baliatzeko beharrezko pisu politikoa ez dutenak.

Ikus ditzagun ondoren zenbait talde urrakor nagusiren ezaugarriak.

##### 4.1. Nekazari txikiak eta artzainak

Biziraupeneko familiarteko nekazaritzan, betiere bitarteko gutxirekin eta batez ere autokontsumorako, aritzen diren nekazariak osatzen dute Hirugarren Munduko sektore sozio-ekonomiko nagusia, populazioaren bi herenak baitira. Euren diru-sarrera iturriak galtzeko arrisku handia dute, baliabide urritasunak naturaren gorabeheren oso mendeko egiten baititu, eta oso urrakorrek katastrofe posibleen eta krisialdi ekonomikotan. Horretaz gain, ia herrialde guztien historiaren ezaugarri komunetako bat boterean dauden taldeek nekazariak mendean hartu izana gertatu da. Menderatze politikoa-ekin batera esplotazio ekonomikoa ere etorri da, zergak, lan-prestazioak eta kontrako truke-baldintzak tarteko. Izan ere, aro kolonialean, beste zenbait kalteren artean, lurraren eta bestelako baliabideen gutxitzea pairatu bazuten, estatu kolonial osteko berrietan ere diskriminatuta jarraitu dute gobernuen nekazaritza-garapeneko politikak tarteko, horiek nekazaritza komertzial, moderno eta eskala handikoa izan baitute aztergai, Iraultza Berdea deiturikoan bezala. Horretaz gain, herrialde gehienek politikak publikoak *hiri-joera*

deiturikoa izan dute ezaugarritzat: nekazariak elikagaien eta lehengaien hornitzaile, eta eskulan merke gisa erabili izan dituzte eta erabiltzen dituzte gehienbat, hiriko gizarte-sektoreen mesedetan; horiek haien soberakinak berenganatzen dituzte, eta aldi berean, zerbitzu eta azpiegituretan jasotzen dituzten inbertsioak haiengandik ateratako balioak baino txikiagoak izaten dira. Horrek, presio politikoa egiteko ahalmen urriarekin batera, pobreziatik ihesbide gutxi uzten dizkie, eta talde oso urrakorra bihurtzen ditu.

Antzeko zerbait gertatzen da eskala txikiko artzainekin; sektore sozioekonomiko nagusia dira zonalde lehor eta erdi-lehor ugaritan, eta hondamendiekiko urrakorrenetakoak, Afrikako adarreko goseteekin gertatzen den bezala. Urrakortasun hori hainbat elementutatik eratortzen da; esaterako euren ohiko bazkalekuen geroz eta usurpazio handiagotik (nekazaritza komertziala hedatzeko edo garapen-proiektuak burutzeko), azienda lapurtu edo hiltzetik, barne-gatazka askotan gerra-arma gisa erabiltzen baitute, eta bizimodu honen berezko urrakortasunetik: lehortzetan, urik eta bazkalekurik ezak produkzioa gutxitzen du, eta haragi-eskaria, berriz, gutxitu egiten da, luxuzko elikagaia baita.

#### 4.2. Hiri-pobreak

Hiri-pobrezia hedatu eta larriagotu egin da, herrialde pobre gehienak eraginpean hartu dituzten hiru prozesu direla-eta: 60ko hamarkadaz geroztik landatik hirira izandako emigrazio handia (aldiri izugarriak sortu ditu, gutxieneko zerbitzurik gabekoak), 80ko hamarkadaz geroztik buruturiko egokitzapen estrukturaleko programak, eta hamarkada horretan bertan izandako krisialdi ekonomikoak. Hiri-pobreak bereziki urrakorrak dira krisialdi ekonomikoekiko (prezioen igoera, langabezia), baina katastrofe natural jakinek ere indar handiagotz kolpatzen dituzte bizi diren zonaldeak (mendi-hegaletako luiziak) eta hala-moduz eraikitako euren etxebizitzak (lurrikarak, urakanak, eta abar).

Hainbat alderditan bereizten dira hiriko eta landako pobrezia: lan-merkatuarekiko mendekotasuna, behar dituzten ondasun eta zerbitzuak diruaren truke eskuratu behar baitituzte merkatuan; gizarte-zatikatzea, hau da, ahaidetasun-loturen eta ohiko elkartasun-sareen absentzia edo ahultasuna, landa-ingurunean krisialdia izanez gero pobreentzako nola-baiteko segurtasun-sistema dela kontuan izanda, eta inguru-nearen baldintza txarrak, ongizateari kalte egiten baitiote

(etxebizitza eskasak, osasungaiztasuna, zerbitzurik eza, delinkuentzia, eta abar).

#### 4.3. Haurrak

Talde berezi urrakorrena dira ziur asko haurrak, batez ere bost urte artekoak. Euren ahultasun biologikoari zor zaio hori, beste pertsona helduekiko mendekotasun material eta soziologikoari, eta euren mugikortasun eta autonomia ahalmen murritzei. Elikadura zein sanitate arloko ikuspuntutik begiratuta, titia kentzea igaro berria duten haurrak dira arrisku handiagoa dutenak, normalean 6 hilabete eta 2 urte bitartean, ezin baitituzte baliatu amaren esnearen nutrizio-onura eta onura immunologikoak. Gosete-prozesuetan malnutrizioak lehenago eta larriki erasaten dituenak izaten dira, eta kasurik akutuenetan ahuleria eta kwashiorkor deiturikoa izaten dira horren ondorio. Titia kentzeak, osasungaiztasunarekin eta ur kutsatuarekin batera, gaixotasun diarreikoak hartzea ere errazten du, beste zenbait bezala, esaterako pneumonia, gripea, bronkitisa edo elgorria, guztiak batera Hirugarren Munduko haurren heriotza-tasaren %40 baino gehiago direla kontuan izanda.

Beste zenbait haur-talde ere oso urrakorrak dira euren jarduerak edo euren familiekiko duten urruntzea tarteko, eta, hortaz, arreta berezia merezi dute laguntza-programetan. Horien artean daude kalearen umeak, euren gurasoak abandonaturiko edo haiengandik ihes egindakoak, sektore informala edo delinkuentzia tarteko bizirauten dutenak; beste familiartekoez edo familia alternatiboez hartu ez dituzten umezurtzak; larrialdietako populazio-lekualdatze masiboetako nahaste-borrasteen ustekabeen euren gurasoengandik bereizitako haurrak; eta haur soldaduak, hainbat arazoren eraginpean (esaterako trauma-ondoko estresa, prestakuntzarik eza edo gizartearen aurkako jarrerak), euren gizarteratze eta laneratzea zailtzen dutela kontuan izanda.

#### 4.4. Emakumeak

Talde urrakor bakoitzean, emakumeek eta neskatilek urrakortasun-maila gehigarria izaten dute genero-harremanak direla-eta, hau da, gizonen eta emakumeen arteko sozialki eraikitako botere-harremanak direla-eta. Berandu izan bada ere, batez ere 90eko hamarkadatik aurrera, bibliografia

arreta eskaintzen hasi zaio hondamendiek gizonei eta emakumei eragiten dien inpaktu desberdinari buruz. Era berean, genero-ikuspegia ekintza humanitarioko jarduerari aplikatzen hasi zaie, nahiz eta aplikazio hori geldoagoa izan garapenerako lankidetzaren kasuan.

Alor honetan, hiru zirkunstantzia nabarmentzen dira batez ere. Lehenik, emakumeek gizonek baino urrakortasun-maila handiagoa dute hondamendiekiko, baliabide ekonomiko eta produkzio-baliabideen kontrol legal eta efektibo txikiagoa baitute, eta familiaren menpeko kideen (haurrak, zaharrak, gaixoak) eta etxeko ondasunen babesle-lanak betetzen baitituzte, horrek babesteko edo lekualdatzeko ahalmena murrizten diela eta hondamendiaren inpaktuaren eraginpean egoteko aukera handitzen diela kontuan izanda. Bigarrenik, premia eta arazo propioei aurre egin behar diete emakumeek hondamendietan, esate baterako elikagaiekin loturikoak haurdunei eta bular-emailei dagokienez, osasun-arloarekin loturikoak (batez ere ugalketa-osasunaren arloan), eta indarkeriarekin eta abusu sexuarekin loturikoak, batez ere gatazka armatuaren testuinguruetan. Hirugarrenik, hondamendiak ia beti luzarorako txartzen ditu emakumeen bizi eta lan baldintzak, hainbat faktoreri esker, esaterako pobretzea, euren ondasunak edo aurrezki-erreserbak saltzea (sarritan emakumeek izaten dira saltzen diren lehenengoak premia-kasuetan), elikagaien produkzio-murrizketa, ur eskasia (biltzeko joan-etorri handiagoetara behartuta) eta gizonezkoen emigrazioa (haien familia-erantzukizuna eta babesik eza areagotuta).

#### 4.5. Zaharrak

Azken hamarkadan arreta gehiago eskaintzen hasi zaio zaharrek duten urrakortasun handiari, fisikoa zein sozioekonomikoa. Zenbait testuinguru soziokulturaletan zaharrek jakitea eta agintea ordezkatzeko badute ere, zenbait arazo eta mugak hartzen dituzte eraginpean normalean. Horietako bat ezintasun fisikoa da, lan egiteko eta bizimodua ateratzeko aukera murrizten baitie, eta horrek pobreziara eta malnutriziora eraman ditzake euren seme-alaben laguntzarik ez badute. Muga fisikoek euren kabuz aritzeko aukera ere zailtzen die, baita larrialdi-egoera batean lekualdatzeko aukera ere, indarkeriatik ihes egiteko, eta babesa edo laguntza biltzeko. Era berean, gaixotasunek, iragankorrak edo kronikoak direla, ahalmen fisikoak edo mentalak higatzen dituzte, beste pertsona batzuekiko mendekotasuna eta euren urrakortasuna areagotuta.

#### 4.6. Errefuxiatuak eta barne-desplazatuak

Gerrek, batez ere barrukoek, nabarmen areagotu dute 70eko hamarkadaz geroztik indarkeria eta jazarpena direla-eta ihes egitera beharturikoen kopurua, eta are gehiago Gerra Hotza amaitu ondoren. Horrela, 1993an errekor historikoa lortu zen errefuxiatu-kopuruari dagokionez, 18'2 milioi. 1951ko Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Genevako Konbentzioaren arabera, euren herrialdeetatik kanpo egon eta bertara itzuli ezin direnak edo nahi ez dutenak dira errefuxiatuak, susmo sendoak baitituzte arrazarekin, erlijioarekin, nazionalitatearekin, gizarte-talde jakin bateko kide izatearekin eta iritzi publikoekin loturiko arrazoiak tarteko jazarri egingo dituztela. Konbentzio honek eta 1967ko haren ondorengo Protokoloak errefuxiatuentzako nazioarteko babes-sistema ezarri zuten, Nazio Batuek babesturikoa, zehazki Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak (ACNUR). Errefuxiatuak dira talde urrakorrenetakoak, harrera-herrialdeek eta ACNUREk emandako laguntzaren menpe baitaude neurri handi batean. Edozein kasutan ere, babes-tresna juridiko hori badute gutxienez.

Bestelako egoera da *barne-desplazatuena*, edo errefuxiatuen antzeko arrazoiak direla-eta euren bizilekuak utzi behar izan baina muga igaro gabe euren herrialdean irauten dutenena. Gerra Hotz ostean areagotu egin da haien kopurua, 90eko hamarkadako azken urteetan 20 milioira iritsita; agenda humanitarioaren gai nagusietako bat bihurtu da. Esanguratsuena zera da, errefuxiatuekin gertatzen ez den bezala, nazioarteko komunitateak ez duela haien laguntzeko ez tresna juridiko egokirik, ez erakunde espezializaturik. Pertsona horiek euren gobernuen subiranotasun eta jurisdikziopean egoteari zor zaio hori, haien baitira euren eskubideak gordetzeko arduradun, nahiz eta sarritan horiek beraiek izaten diren jazartzen dituztenak. Gabezia horiek zirela-eta zeuden kezkek Nazio Batuek 1998an *Barne-desplazamenduari buruzko Printzipio Gidariak* onartu izana eragin du, oso dokumentu garrantzitsua dela kontuan izanda, desplazatuaren eskubideak biltzen baititu, nahiz eta ez den loteslea. Arlo instituzionalari dagokionez, ACNUREk hartu du bere gain desplazatuentzako laguntza, baina betiere zenbait baldintza betetzen badira. Azken batean, laguntza gisa duten nazioarteko babes eskasaren ondorioz talde urrakorrenetakoak dira gatazka armatuko egoeretan.



Humanitarismoaren bilakaera  
historikoa eta kontzeptuala

## 1. EKINTZA HUMANITARIOAREN SORRERA ETA BILAKAERA

Historian izan diren kulturek eta erlijioek behartsuekiko elkartasun-balioak eta laguntza-arauak izan dituzte. Hala ere, ekintza humanitarioa, gaur egun ulertzen dugu moduan, XIX. mendean hasitako era askotako ekimenen eta bilakaeraren ondorioa da.

Abiapuntutzat Solferinoko Bataila hartu ohi da, 1859ko ekainaren 24an armada frankosardoaren eta austriarraren artean izandako bataila, alegia. Italiako hiri horretara negozio-bidaian joandako enpresaburu suitzar Henry Dunant-ek zuzenean ikusi ahal izan zuen bataila-eremuan gertaturiko sarraskia: han milaka zauritu hil ziren osasun-zerbitzuek ezin izan zirelako sorospenik eman. Bizipen horrek hunkituta, *Solferinoko Oroipen bat* liburua idatzi zuen, eta bertan herrialde bakoitzak gerra-zaurituen arretarako borondatezko sorospen-elkarte bana sortzea proposatu zuen, bai eta Estatuak nazioarteko itun bat ezartzea ere, ospitale militarrei eta langile sanitarioei babes juridikoa bermatzeko. Ondorioz, 1864an urte batzuk geroagotik Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea (GGNB) izenaz ezagutzen dugun erakundea sortu zen, eta aldi berean militar zaurituak babesteko eta aratzeko nazioarteko itunak egiteko prozesua hasi zen. Honek gatazka-egoeretan babeserako arau-sorta bat ezarri zuen, eta beraz, egoera horietako ekintza humanitariorako oinarri juridikoetako bat da (ikusi VI. kap.).

Geroago, bi Mundu Gerretan, eta bereziki bigarreanean, beste bultzada bat eman zitzaion arlo humanitarioari. Hone-la, borrokaldiaren ondorio txarrei aurre egiteko beharra zela-eta, UNICEF (Nazio Batuen Haurren Fondoa) sortu zen 1946an, eta ACNUR (Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa) 1951n.

Laguntza humanitarioaren arloan bilakaera kualitatibo nabarmena egin zen Biafra-ko (Nigeria) gerra eta gosetearen ondorioz, 1968an. Gurutze Gorriarekin bertan lan egin zuen Frantziako mediku-talde batek, *french doctors* delakoa, handik itzuli zenean desadostasuna azaldu zuen ikusitako genozidio-praktikak salatzeke ezintasunaren aurrean; izan ere, neutraltasun-printzipioa Gurutze Gorriak aintzat hartzen zuen moduan betetzeko, ikusitakoa isilpean gordetzera behartuta zeuden. Honela, Mendebaldeko Pakistanen lan egindako beste mediku batzuekin eta zenbait kazetarirekin batera, 1971n Mugarik Gabeko Medikuak erakundea sortu zuten. Erakunde honek, bere betebeharren artean, asistentzia medikoa ez ezik, biktimen eskubideen babesa ere hartzen du barne, eskubide horien urraketen lekukotasuna emanez eta salatuz.

Une horretatik aurrera, 70eko eta 80ko hamarkadetan, arlo humanitarioan garapen handia izan zen antolamendu eta teoria mailan: GKE gehiago sortu ziren, ikastegiak eta ikerketa-zentro espezializatuak sortu ziren, argitalpenak areagotu ziren, eta gai honi buruzko hausnarketa teorikoa ere handitu egin zen, ikuspegi zein teoria berriak sortu baitziren, adibidez, 80ko hamarkadaren erdialdean Afrikan izandako goseteen ondorioz. Humanitarismoaren hazkunde honetan –hein batean apolitikoa izan zen– pisu handia izan zuen 80ko hamarkadaren bukaeran nazioarteko elkartasunak jasan zuen krisialdiak, aurreko hamarkadetan hainbat erakundek Hirugarren Munduko mugimendu iraultzaileei eta askatasun nazionalakoei eman zien elkartasunak, alegia.

Baina laguntza humanitarioaren garapen handiena –garapen kuantitatiboa zein kualitatiboa– 90eko hamarkadan izan zen, hein handi batean Gerra Hotza bukatzearen ondoriozko aldaketei esker. Hamarkada horrek gatazka zibil askoren sorrera eta beste batzuen bukaera izan zuen ezaugarri, eta horien ondorioz Nazio Batuen *bake-operazioak* (Somalia, Jugoslavia ohia, El Salvador, etab.) areagotu egin ziren. Bake-operazio horien testuinguruan bideratu da laguntza humanitariorako eta gerraosteko berreraikitzearako nazioarteko fondoen zati handi bat. Nazioarteko eszenatoki berria ere lagungarria izan zen horrelako operazioak areagotzeko. Izan



ere, Gerra Hotzean Segurtasun Kontseilua geldiarazita egon zen superpotentzien betoa zela-eta; 90eko hamarkadan, ordea, eskuak libreago zituen gatazka-kopuru handi batean babetze-eginkizunetan aritzeko.

Laguntza humanitarioaren areagotzea beste faktore batzuk ere erraztu dute. Bata, komunikabideek krisialdi humanitarioei buruz egiten duten denbora errealeko estaldura da; hori iritzi publikoa eta gobernu mobilizatzeko lagungarria da. Bestea, arazo estrukturaleri epe luzerako erantzuna emateko lankidetzarako fluxua murrizteko, eta tarteka sorrarazten diren krisialdiak unean-unean arintzeko joera da.

90eko hamarkadan ere erakundeek aurrerapen garrantzitsua egin dute arlo humanitarioan. Bereziki aipagarria da 1992an Nazio Batuen Gai Humanitarioetarako Departamentu (DAH) gisa sortu eta 1998an Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulego (GHKB, ingelesez OCHA) bihurtu zena: bere eginkizuna NBEko agentziak eta ekintza humanitarioan inplikaturiko beste eragile batzuk koordinatzea da. 1992an Europako Batzordeko Gai Humanitarioetarako Bulegoa –ECHO– ere sortu zen; horri esker EBko ekintza humanitarioaren bolumena, koordinazioa eta ikusgarritasuna areagotzeko aukera izan da. GKEen hedakuntza ere aipagarria da; gero eta garrantzitsuagoa da euren gain hartu duten laguntza humanitarioko fondoak bideratzeko ardura, garapenerako lankidetzarloan dutena baino garrantzitsuagoa baita. GKEen goren une hau euren malgutasun operatiboaren ondorioa da –izan ere, horrek alde biko edo Nazio Batuen agentziak baino azkarrago eta merkeago jarduteko aukera ematen die–, bai eta laguntza pribatizatzeko nolabaiteko joerarena ere.

## 2. LAGUNTZA HUMANITARIOAREKIKO KRITIKAK

90eko hamarkadaren hasieran, Gerra Hotzaren bukaerak baikortasun handia piztu zuen mundu baketsuagoa eraikitzeari, eta nazioarteko erkidegoak, NBEk zehazki, indarkeria-testuinguruetan giza eskubideak babesteko eta laguntza humanitaria bermatzeko krisialdi humanitarioetan parte hartzeari dagokienez. Hala ere, Somalian 1992aren eta 1995aren artean eginiko esku-hartzearen porrotaren ondorioz, herri garatuetako gobernuen jarrera eszeptikoagoa eta mesfidatiagoa bihurtu zen; askoren ustez, hauxe da Ruandan 1994an izan zen genozidioaren aurreko ekintzarik ezaren arrazoia.

Krisialdi hauei eta beste batzuei emandako erantzunen porrota ikusita, 90eko hamarkadan, batez ere erdialdetik

aurrera, laguntza humanitarioarekiko korrante kritiko sendoa sortu zen. Horrelako ikuspegi kritikoak argitalpen askotan plazaratu izan dira, bai eta hainbat agentziak eta gobernuk laguntza-operazioei buruz eskaturiko zenbait ebaluazioetan ere; horien artean, nabarmenena Ruandari 1994ko genozidioaren ondoren emandako laguntzari buruzkoa da, eragin erabakigarria izan zuen-eta. Ebaluazio horrek garbi erakutsi zuen hainbat arazo, hala nola, GKE batzuen amateurismoa eta inprobisazioa, hauen eta beste eragile batzuen arteko koordinazio-zailtasunak, eta baita guztiz humanitarioak ez diren motibazioak ere.

Egin diren kritikak era askotakoak dira. Horietako batzuk duela hamarkada batzuk plazaratu ziren, adibidez elikadura-laguntzaren ingurukoak, besteak beste elikagaiak doan emateak honako ondorio txarrak izan ditzakeela ohartarazten dutenak: kanpokoenganako mendekotasuna bultzatzea, ekonomia ekimenerako eta jarduerarako asmoa kentzea, beharrezkoak diren erreforma politikoetarako eta ekonomikoetarako grina kentzea, eta azken batean, laguntza jasotzen dutenen epe luzerako garapena oztopatzea.

Dena den, azken urteotan kritika gehienak gatazka armatuko eta larrialdi politiko konplexuko egoeretan duela gutxi izandako laguntza humanitarioko esperientziei buruzkoak dira. Gehien aipatzen den argudioetako bat hau da: laguntza humanitaria onuragarria bainoago kaltegarria izan daiteke; izan ere, bilatzen ez den eragin bat izan dezake, hau da, gatazkan dauden alderdietako bat areagotzea eta gatazka bera sendotzea edo luzatzea, ondokoen bidez: elikagaiak, ibilgailuak edo dirua lapurtzea elikagaiez eta armez hornitzeko; indarkeria areagotzea laguntza kontrolatzearen; fakzioetako bat legitimatzea eta indartzea laguntzaren kudeaketari esker, etab. Horrelako kritikak ugaritu egin ziren, adibidez, lehen Zaire zenaren Ekialdean zeuden hutu errefuxiatuentzako esparruetarako laguntza zela-eta, Ruandako 1994ko genozidioaren ondoren; izan ere, batzuen ustez laguntzak errefuxiatu haien arteko hiltzaileak indartzen ziotuen, eta beraz, Ruanda ezegonkortzeko ahaleginetan laguntzen zien. Ikusi besterik ez dago Goma-ko esparruan zeuden GKE guztiek, azkenean, bertatik alde egin zutela.

Egile batzuek, gainera, laguntza humanitaria, politika alde batera utzita, neutrala izaten jarraitzea kritikatu dute. Izan ere, euren ustez neutraltasuna ezinezkoa da egungo gatazka askotan, maiz zibilen eta borrokalarien arteko bereizketa ez baita garbia. Bereizketa hori garai bateko gerretan egin zen, eta horretan oinarritzen da nazioarteko zuzenbide

humanitarioak zibilei ematen dien babesa. Are gehiago, euren ustez neutraltasuna saihestu egin behar da biztanle zibilek jazarpena eta triskantzak pairatu behar dituzten gatazketan, ezmorala baita. Kasu hauetan, eragile humanitarioek jarreraren bat hartzearen alde agertzen dira egile batzuk, giza eskubideen urraketa masiboak jendaurrean salatuzetik, zilegitzat jotzen den gatazkan diharduen alderdiaren defentsa partisanoraino irits daitekeen jarrera hartzearen alde, hain zuzen. Zalantzarik gabe, jarrera-hartze hauek, hainbat dilema etikoren artean, gatazkan dauden alderdi guztiekin lan egiteko ezintasunaren arriskua sortzen dute, eta baita herrialde horretatik alde egin behar izatea ere, errepresalien beldur.

Agentzien jardunak eta zehazki, GKE humanitarioenak ere kritika ugari jaso ditu; izan ere, kritika horien arabera: euren finantziario eta irudi interes propioak laguntza jaso behar duen biztanleriaren interesen aurrean jartzen dituzte; euren emaitzak faltsutu egiten dituzte, porrotak ezkutatzeko; eta esku hartzen duten prozesu politikoak ez dituzte ezagutzen; hala ere, erreforma ekonomiko neoliberalek Estatu pobreen jarduteko ahalmena murriztu dutenez, jarduteko ahalmen handia dute, eta hauen ordez aritzen dira eginkizun eta zerbitzu askotan. Ikuspegi erradikalenen arabera, Afrikarako laguntza humanitario gehienak ez du ezertarako balio edo kaltegarria da, eta utzi egin beharko litzateke.

Azkenik, askoz ere gehiago zabaldu den kritika hau izan da: laguntza humanitarioak ez luke krisialdiaren sintomak arintze hutsera mugatu behar. Hondamendiak –katastrofe naturalek zein gatazka armatuek eragindakoak izan– oinarritzko faktore estruktural eta politikoen ondorioa izaten direnez, laguntza humanitarioak arazoaren jatorriari aurre egiten lagundu beharko luke. Gainera, badirudi krisialdi batzuk betikotu egin direla, eta hortaz, nekez egingo zaie aurre epe motzerako larrialdiko laguntzarekin. Horretarako, unean uneko laguntza humanitario neutrala bainoago, beharrezkoagoa izango litzateke martxan dauden prozesuak politikoki aintzat hartzen dituen eta prozesu horien azterketan oinarritutako laguntza.

## Ruandarako laguntza humanitarioarekiko ikuspegi kritikoa

1994an, Ruandak gosetea ez baina genozidioa jasan zuen. 800.000tik gora pertsona, gehienak tutsi-ak, hil zituzten muturreko gobernu hutuaren aginduei jarraiki. Nazioarteko sistema humanitarioak porrot egin zuen: ez zuen genozidioa saihestu, ez zuen hura eteteko esku hartu, eta gainera ez zien etsiarazi hori egin zutenei. Erantzun humanitario masiboa izan zen, baina beranduegi iritsi zen eta gainera herrialdetik ihesi zihoazenei bideratutakoa izan zen (hutu zibilak eta euren jabe politikoak, garai bateko armada eta milizia barne, eta genozidioaren milaka errudun). Genozidiotik bizirik irten zirenak ia erabat bazter utzi zituzten orduan eta handik aurrera ere ez dituzte aintzat hartu oro har.

Triskantzarako oztopo bakarra FPRren (Ruandako Fronte Aberkoia) aurreratzea izan zen, genozidioa etetea lortu baitzuen. Nazioarteko sistema humanitarioak ez ziren FPRek aurrera egitearen alde agertu; aldiz, Nazio Batuek eta GKEek behin eta berriro eskatu zioten su-etena ezartzeko. Nazioarteko ekintza politikorik eza kontuan izanda, bazirudien horrelako neurriek genozidioa etenaraziko zutela. Dena den, su-etenak gerra etengo zuen, baina genozidioa ez. Borroka-lerroak geldiaraziko zituen, eta horrela armadak eta miliziak triskantzari eutsi ahal izango zioten inolako zigorrik jaso gabe bitarteko gobernuak kontrolatzen zuen herrialdeko leku gehienetan; gainera gobernuari legitimitatea ematea edo aintzat hartzea ekarriko zuen, eta genozidid epaitzea galaraziko zuen. Proposamen haiek, erabat desegokiak baziren ere, onargarriak ziren diskurtso humanitarioaren esparruan. Baina *neutraltasun* eskaerek genozidioaren aurkako borrokaren aldekoak ezeztatu zituzten. *Neutraltasuna* genozidioari erantzun efektiboa ematea eragotzi zuen palanka morala izan zen.

Agentzietako langile batzuek azkar asko ulertu zuten Ruandako krisialdia; hala ere, ez zuten ekintzarako estrategia garatu, eta ez zen nazioarte-mailako erantzun politikorik izan. Gertakariak azkarregi joan ziren, erakundeak eta agentziak geldo eta mantsoegi agertu ziren gertatutakoaz ikasteko, dimentsio politikoak aztertzeke astirik eta prestasunik ez zuten langileak nahastu zituzten arazoan, eta komunikabideek *anarkiari* eta *Estatuaren kolapsoari* buruz erabilitako estereotipoak gailendu ziren.

Estremistek tranpa jarri zioten nazioarteko sistema humanitarioari. 300.000 *errefuxiatuk* egin zuten ihes Tanzaniako Ngara Barrutira, ia milioi bat Gomara –Zaire– desplazatu ziren, eta beste 300.000 inguru Bukavu-ra, Zairera hauek ere. Exodo izugarri hauek ez ziren gerrak harrapatuta zibilek egin ohi dituzten ustekabeko ihesaldiak; hori bainoago, zuzendaritza politiko baten menpe planifikaturiko biztanleria-exodoa izan zen, genozidioaren arkitektoek berriro elkartu eta Ruanda erasotzeko atzerrian behar zuten babeslekua bilatzearen eginikoa. Exodoan

muturreko gobernukide gehienek eta Ruandako indar armatu gehienek egin zuten ihes. *Errefuxiatu* terminoa unibertsala izan da, baina modu desegokian erabili da pertsona hauek deskribatzeko. Gutxi batzuk egokitzen dira errefuxiatuaren legezko definiziora, eta asko justiziatik ihesi dabilta.

Estremistek bazekiten lasai egon zitezkeela nazioarteko sistema humanitarioak *errefuxiatuei* laguntza materiala emanaz erantzungo zuela-eta, bai eta ahalegin gutxi egingo zirela ere biztanleria-masetatik bereizteko; bakanen bat izatekotan. Beraz, jendea ihes egitera behartu zuten, eta gero agentzia humanitarioek emandako laguntzatik, euren boterea finkatzeko adina desbideratu zuten. Zairera ihesi joandakoei bidalitako laguntza-zen zati handi bat lapurtu zuten. Agentzia humanitario batzuek soldaduen artean banatzen zuten zuzenean, bai beste aukerarik ez zutelako, bai behartsutzat hartzen zituztelako. Bi kasuetan, tranpak bikain funtzionatu zuten. Tolesgabetasunez, agentziek sentitzen zuten euren aukera moral bakarra giza sufrimendu masiboari erantzutea zela, hori extremisten estrategiaren alde egitea bazen ere. Kasuaren konplexutasun moralak ezkutatu egin zituzten, eta komunikabideen bitartez karitatezko inperatibo xumea aurkeztu zuten: laguntza ematea!

*Bertan izateko* presioak izugarriak izan ziren agentzia guztientzat. Fondoak banatzeko erabil zezaketen erritmoa mantsoa zen hein batean, eta horrek kritika merkeak ekarri zizkien, behar adinako azkartasunez laguntzen ari ez zirelakoan. Honek, hango kideekin bereizi gabe tratatzera bultzatu zituen, eta kide hauekako batzuk, hein batean edo bestean, genozidioan nahastuta zeuden. Muturreko profesional askok, medikuak, erizainak, funtzionarioak eta kazetariak barne, enplegua bilatu eta lortu zuten laguntza-agentzietan.

Fondoak biltzeko deialdi gehienak lotsagabeki hunkigarriak eta sinplistik izan ziren. GKEak lehia gogorrean aritu ziren finantziarioa lortzeko. Goman bakarrik, esaterako, 100 bat GKE operatibo zeuden, eta horietatik 60 inguru oso denbora-tarte laburrean. Horietako asko larrialdietan lan egin gabeak ziren, eta batzuk sortu berriak ziren krisialdi honek eskaintzen zuen finantziario-rako aukera aprobetxatzeko. Erakundeen interes instituzionalak zirela-eta estandar profesional eta etikoen andeatzea orokorra izan zen; erakunde gaituenak ere ez ziren salbuespen izan.

Azken batean, mendebaldeko komunikabideek eta gobernuek agentzia humanitarioak konplexutasun eta arrisku handiko egoera honetan sartzera bultzatu zituzten. Agentziek, justifikatzeko, goi-mailako botereek saldu eta manipulatu egin zituztela argudia dezakete. Halaxe da, mendebaldeko politikaren biluztasuna estaltzeko erabili zituzten.

Hainbat egokitzapen eginda, iturri honetatik hartua: Alex DE WAAL (1997), *Famine crimes. Politics and the disaster relief industry in Africa*, James Currey, Oxford, 191-199. orr.

### 3. AZKEN HAMARKADAKO "HUMANITARISMO BERRIA"

Aipatu ditugun kritikek aintzatespen handia lortu zuten 90eko hamarkadan inplikaturiko sektoreetan (akademikoak, gobernuak eta GKEak), eta argi geratu zen beharrezkoa zela aldaketa sakonak egitea sistema humanitarioan. Honakoak ere ildo berekoak ziren: Gerra Hotzaren bukaera ondorengo aldaketa geopolitikoak, barne-gerra berrien eta larrialdi politiko konplexuen ondoriozko erronkak, eta Somaliako operazioaren porrotetik eta Bosnian izandako zailtasunetatik ateratako ikasbidea. Gainera, 80ko hamarkadan ez bezala –orduan GKEak izan ziren Afrikako krisialdi handiei emandako erantzunaren protagonistak–, politikariek eta gobernuek 90eko hamarkadaren hasieran laguntza humanitarioaren ardura berreskuratu zuten, bitarteko mediatiko garrantzitsu bihurtuta. Hala erakusten dute hainbat agintarik Sarajevora egindako bidaiak edo Europar Batasunak ECHO sortu izana.

Faktore hauen guztien ondorioz, 90eko hamarkadaren erdialdetik aurrera *humanitarismo berria* eraten joan zen; humanitarismo klasikoarekin alderatuta, helburu, oinarri teorikoak eta tresna operatibo desberdinak zituen. Laguntza humanitarioaren eredu berri hau hedatu egin da, eta gobernu emaileak, Nazio Batuen agentziak eta GKEen zein akademikoen zati handi bat aintzat hartzen joan dira. Honela, gaur egun eredu nagusia da.

Bere ezaugarri nagusia duen izaera politikoa da. Izan ere, lehengo laguntza humanitario apolitikoarekiko haustura da, bizitzak salbatzera bideratuta eta printzipio humanitario klasikoetan (neutraltasuna, esaterako) oinarrituta egonik, inozotzat ez ezik, aringarri hutsa eta moralki eztabaidagarritzat ere hartzen baita. Horren ordez, politikoki kontzienteagoa den laguntza baten alde egiten du, bizitzak salbatzea baino helburu zabalagoak dituen –garapena eta bakea, esaterako–, eta bere ekintza (edo batzuetan ekintzarik eza), ekintza horrek orainean eta etorkizunean helburu horietan ustez izango duen eraginaren kalkuluan oinarritzen duen laguntzaren alde, hain zuzen ere. Honela, gatazka konpontzeko estrategia koherente bateko beste elementutzat hartzen da, tresna diplomatiko eta militarrekin konbinatuta.

Hauek dira, laburbilduz, gaur egungo humanitarismo berri nagusiaren oinarritzko ezaugarriak. Ikus ditzagun ondoren zehazkiago.

### 3.1. Helburuak areagotzea

Laguntza humanitarioa ez da gupida eta karitate ekintza soiltzat hartzen, eta bizitzak salbatzeko eta sufrimendua arintzeko helburu tradizionalak ere ez dira nahikoak. Aringarri hutsa izan ordez, hondamendien eta gatazken jatorriari aurre egiten lagundu behar du; hau da, klasikoak baino helburu politiko zabalagoetara bideratutako laguntza izan behar du, zehazki hiru helburutara:

- Bakearen eraketa sustatzea, modu guztietan: gatazken prebentzioa, arintzea eta konponketa; komunitatea adiskidetzea; gizarte-ehuna berreraikitzea, etab. Ikusi dugun bezala laguntza humanitarioak gatazka areagotu egin badezake ere, borrokan dauden alderdiei baliabideak eta zilegitasuna emanez, bake-guneak sortzeko balio izan dezake, betiere laguntza horrekin bizikidetzaren aldeko sektoreak –aginte tradizionala duten zaharren kontseiluak edo emakume-talde jakin batzuk, besteak beste– sendotzen badira. Azken hamarkadan, erakunde ugari ikertu du ikuspegi hau, baita aplikatzen saiatu ere. Honi buruzko bibliografia ere gero eta zabalagoa da, eta hainbat dokumentu garrantzitsu sortu da. Hala ere, azpimarratu beharra dago estatu barruko gatazken kudeaketan laguntza humanitarioari ematen zaion paper aktiboa, horien jatorria batik bat barnekoak direla uste izaten delako gauza daitekeela, baina hori ez da beti egia izaten.
- Garapena sustatzea. Hau, egile eta argitalpen ugariaren arabera, laguntza humanitarioak gatazka-testuinguruetan ere egin lezake. Humanitarismo berriak bere gain hartzen ditu honela larrialdiko laguntzaren eta garapenerako lankidetzaren arteko loturen aldeko postulatuak (gai honi zehazkiago helduko zaio 7. kapituluan); eztabaida hau, eta gatazkek laguntza humanitarioaren bidez kudeatzeari buruzkoa paraleloak dira. Hain zuzen ere, laguntza humanitarioak garapena sustatzen duen heinean, barne-gatazken jatorriari heltzeko lagungarria dela onartzen da, gatazkek pobrezia eta azpigarapenak eragindakoak direla uste izaten baita.
- Demokrazia eta giza eskubideak sustatzea. Zeregin hau epe luzerako garapenerako lankidetzaren esku uzten zen lehen; gaur egun, ordea, laguntza humanitarioaren eginkizuntzat ere hartzen da.

### 3.2. Estrategia integrala eta politizazioa

Laguntza humanitarioak garapenenera, gatazken prebentziora eta gerraosteko berreraikitza bideratzeko asmo hori lagungarria izan da laguntza gero eta gehiago politizatzeke eta iraganean izan omen zuen *tolesgabetasun politikoa* arbuiaitzeko. Humanitarismo berriak, hain zuzen ere, laguntza humanitariao elkarri oso lotuta dauden arazoek eragindako krisialdi konplexuei erantzutea ahalbidetzen duten estrategia politiko orokorraren zatitzat hartzen du. Emaile gehienek lehen baino ikuspegi integratuagoak hartu dituzte krisialdi honi erantzun *adimendunak* emateko; horretarako ekintza diplomatikoa, merkataritza-loturak, segurtasun-politika, garapenerako lankidetzak eta laguntza humanitariao konbinatzen dituzte. Izan ere, emaileek, Europar Batasuna esaterako, elementu horien guztien artean gero eta *koherentzia* handiagoa lortu nahi dute; horregatik laguntza humanitariao mendebaldeko kanpo-politikaren agendako tresna bihurtu da bete-betean. Are gehiago, balio estrategikorik gabeko herrialde periferiko askotan, nazioarteko komuniteterako ekintza politikoko modu nagusi eta bakana bihurtu da.

Honek ikuspegi-aldaketa nabarmena ekarri du: humanitarismo klasikoa hondamendia jasandako pertsonari laguntza bideratuta zegoen, euren bizitza salbatzeko edo euren sufri-mendua arintzeko; humanitarismo berria, ordea, gizarte-prozesu eta emaitza politiko jakin batzuk babestera bideratuta dago batez ere. Hain zuzen ere, hainbat egileren arabera, mendebaldeak *bake liberalerako* duen proiektuaren bidez, laguntza humanitariao munduan gobernagarritasuna eta egonkortasuna bermatzeko tresnatzat erabiltzen du. Hau da, laguntzak gatazken prebentziorako eta gatazkek konpontzeko balioko luke, bai eta gizarteak eta herrialdeak berreraikitzeke ere printzipio liberalei jarraituz, hau da, ordezkari-ta-erregimenak eta merkatu libreko ekonomia ezarriz. Batzuen ustez, honek ondoko arriskua du: laguntza mendebaldeak herrialde periferiko pobre eta ahuletan esku hartzeko tresnatzat erabiltzea, euren interes geopolitikoei jarraituz, kontrolatzeko edo are gehiago kolonialismo modu berri gisa.

Esandakoaren ondorio bat, 90eko hamarkadaren erdialdetik laguntza humanitarioak izan duen politizazioaren areagotzea izan da, laguntza hau errealitatean eragiteko palanka gisa erabiltzen den heinean, aldaketa eta helburu politikoak sustatzeko. Politizazio horretarako lagungarria da, hainbat egileren arabera, garai horretatik aurrera gobernu emaileek agenda humanitarioaren kontrola berreskuratu izana, GKEek, iritzi publikoa lagun, aurrea hartua zuten urte



batzuen ondoren (80ko hamarkadaren bigarren erdia eta 90ekoaren lehena). Gaur egun laguntza humanitarioari esleituriko helburu berriak ahalbidetzeko argudioarekin, bai eta iraganeko okerrak saihestekoarekin ere, gobernu-agentziek GKE bideratzaileekiko harremanak kudeatzeko eta arautzeko prozedura zorrotzagoak ezarri dituzte azken urteotan (kontratu zehatzago eta egonkorragoko lankidetzak estrategikoak; finantziario-esparru automatikoak; proiektuen plangintza, jarraipen eta ebaluaziorako mekanismo zorrotzagoak; kontuak emateko sistema berriak, eta emaitzetan oinarritutako laguntzaren eraginaren estimazio-sistemak, etab.). Egile horien arabera, tresna hauek GKEak eta euren jardura gehiago kontrolatzeko aukera eman die gobernuari. GKEek ez lukete izango euren eskuetan erabaki politiko garrantzitsurik hartzeko aukera izango, gauzak aldatzeko aukera eta guzti; aldiz, euren erabakitzeko marjina operatibora mugatuko litzateke, eta oro har, gobernuak kontrolatutako laguntza bideratzeko tresnaren papera egingo lukete.

Laguntza, politizatu ez ezik, militarizatu ere egin da kasu batzuetan, batez ere bakea zaintzeko edo ezartzeko operazioen esparruan. Izan ere, azken hamarkadan fenomeno berri eta garrantzitsu bat izan da: laguntza humanitarioa ematen duten herrialdeetako indar armatuek harturiko gero eta inplikazio-maila altuagoa, laguntza babesteko, garraiatzeko eta banatzeko eginkizunak ere betez. Zeregin hauek garrantzitsuak badira ere –baliabide ugari baitute indar armatuek–, batzuek eztabaidatu egin dute euren efizientzia-eza, gai humanitarioetan duten kualifikazio-eza, eta batez ere, behartzeko indarraren eta printzipio humanitarioen arteko bateraezintasuna (ikusi V. kapitulua, 1. puntua). Dena den, bi joerak, politizazioa eta militarizazioa, areagotu egin dira I-11ko atentatuen ondorengo nazioarteko testuinguruan.

### 3.3. Baldintzatzaile humanitarioak

Laguntza humanitario klasikoa baldintzarik gabeko praktikatzat hartzen zen, krisialdiak kalteturiko sektoreen beharra zen baldintza bakarra; garapenerako lankidetzari dagokionez, ordea, laguntza jasotzen zuen herrialdeak baldintza jakin batzuk betez gero ematen zen (eta ematen da). Hala ere, azken bolada honetan, baldintzatzaile horiek –hala nola, giza eskubideekiko errespetua hobetzea– laguntza humanitarioari ere aplikatu zaizkio. Izan ere, honek epe luzerako helburuak lortu nahi dituzenez, «makilen eta azenarioen» estrategia erabiliz kudeatzen da, hau da, jarrerak saritu edo

zigortu egiten dira. Batzuetan erabaki zailak hartu behar direla onartzen da, hauen artean gaitzik txikien gisa laguntza ukatzeko edo kentzeko aukera ere badago, bai ez delako eraginkorra epe erdirako eta luzerako zehazturiko helburuak lortzearren aurrera egiteko, bai egoera okertzeko lagungarria izan daitekeelako susmoa izateagatik. Kasu horretan lehen-tasuna *kalterik ez eragitea (do no harm)* izaten dela onartzen da; printzipio hau zin hipokratikoan oinarrituta dago, eta gai honi buruzko ikertzailerik ospetsuenetako Mary Anderson-ek arlo humanitarioan zin hau hedatzen eta ezartzen lagundu du. Erabaki hori borondate onez eta gardentasunez hartzen bada ere, beste egile batzuek azpimarratzen dute, epe luzerako konponketak behar direla-eta sufritzen ari den biztanleria laguntzarik gabe abandonatzeak arazo moralak sortzen dituela, eta gainera ez dirudi oso eraginkorra. Afganistan erabiltzen da eredutzat: bertan gobernu talibanak emakumeen eskubideak urratu izana zigortzeko ura hornitzeko programak eten egin ziren, eta ondorioz ur kutsatuak eragindako heriotza-tasa areagotu egin zen, baina ez zen lortu erregimenak jarrera aldatzea.

#### 3.4. Etika kontsekuentzialista

Humanitarismo berriak iragana alde batera utzi du maila etikoan. Humanitarismo klasikoa etika deontologikoan oinarritzen zen, hau da, betebeharra (*inperatibo humanitarioa*) eta *printzipio humanitarioak* zituen ardatz, eta hala, laguntza humanitarioa berez ontzat eta hondamendietako biktimen eskubidetzat hartzen zen. Aldiz, humanitarismo berria etika teleologiko edo kontsekuentzialistan oinarritzen da, hau da, ona gertatzea ala ez aurreikus daitezkeen emaitzen arabera izaten da. Hau da, laguntza zilegia izateko eta ematea zentzuzkoa izateko, ez du kalterik eragin behar eta garpenerako zein gatazka konpontzeko lagungarria izan behar du. Beraz, humanitarismo klasikoak ez bezala, ez du esparru etiko zehatza, erabat malgua baizik, ez du onaren eta txarraren artean bereizketa garbia egiten, eta egoerara egokitzen da. Bestela esanda, humanitarismo berriaren jarrera-ildoak testuinguruaren azterketa da, dauden aukerak kontuan izan eta horietako bakoitzaren ondorioak aurreratzeko.

Malgutasun hau erabili du sistema humanitarioak egungo krisialdi humanitarioen konplexutasunera egokitzeko, haue-tan dilema etiko eta operatibo ugari sortzen baita (indarra erabiltzea laguntza babesteko, zibilen eta militarren arteko harremanak, asistentzia-lanak salaketarekin eta giza eskubideak

sustatzearekin konbinatzea, etab.); dilema hauek askotan erabaki zailak hartzera eta gaitzik txikiena eragitea lortzera behartzen dute. Horrelako egoeretan, ezinbestekotzat jotzen den irizpidea hau da: azterketa egitean eta erabakiak hartzean borondate onez eta gardentasunez aritzea.

### 3.5. Printzipio humanitarioei buruzko eztabaida

Esandakotik ondorioztatzen denez, humanitarismo berriak mende luze batean erreferentzia-puntu izan diren printzipio humanitario klasikoak, batez ere neutraltasuna, zalantzan jartzen ditu teorian zein praktikan. Goian aipaturiko humanitarismo klasikoari eginiko kritiken ildotik, gatazka-mota berrietan neutraltasunari eustea ezinezkoa, alferrikakoa eta baita ezmorala ere badelako ideia zabaldu da; izan ere, gatazka horietan zaila izaten da zibilen (laguntza merezi dute) eta militarren artean bereiztea, eta biztanleriaren giza eskubideak larriki urratzen dira (genozidioa, garbiketaren etnikoa, etab.).

Era berean, laguntza helburu politikoak lortzeko baldintzatzailea izateak, eta laguntza ukatu ahal izateak, alde batera uzten du *inperatibo humanitarioa*, edo laguntza obligatizat hartzeko ideia, eta baita unibertsaltasun-printzipioa ere, laguntza krisialdi bat dela-eta beharrak ase ahal izatea arriskuan duten pertsona guztien eskubidea dela dioen printzipioa, alegia. Aldiz, laguntza arrazoi politikoak medio ematen denean biktimen artean nolabaiteko hierarkia morala ezartzeko arriskua dago, laguntza *merezi duten* eta *merezi ez duten* biktimen artean, alegia. Denboraldi batzuetan, krimenak egindako buruzagiak dituen hainbat taldek ez du nazioarteko laguntzarik jaso, Ruandako hutuek, afganiarrek edo serbiarrek, adibidez.

Hein handi batean, neutraltasun operatiboak izandako atzerakadak, gatazkan dauden alderdiak neutraltasun hori errespetatzera behartzeko emaileen borondate politikorik ezarekin zerikusia du. Hain zuzen ere, 90eko hamarkadaren erdialdetik nazioarteko komunitateak errezeloa agertu du Nazio Batuek hamarkadaren hasieran Afrikan eta Balkanetan egin zituzten bezalako operazio humanitarioak politikoki babesteko –operazio horietan hizkuntza neutral eta apolitikoak biztanleriari laguntza humanitarioa eskuratzea erraztu zion–. Honek laguntza humanitarioarekiko nolabaiteko eszeptizismoarekin zerikusia du, bai eta hainbat emailek inguru jakinetan –Sahara azpiko Afrikan, esaterako– dituzten interes partikularren goieneko unearekin ere.

Baina, aurkako ingurune hau izan arren, agentzia eta GKE ugarik jarraitu dute neutraltasuna eta gainerako printzipio humanitarioak ardatz duen *gune humanitario* apolitikoari eusteko ahaleginak egiten. Horien artean, azpimarratu behar dago, adibidez, 1994an Gurutze Gorriak Laguntza Humanitarioarako eginiko Jarrera Kodea. Era berean, erakunde horrek eta beste batzuek behin eta berriro esaten dute beharrezkoa dela ekintza politikoaren eta ekintza humanitarioaren arteko bereizketari eustea, neutraltasun eta inpartzialtasun humanitarioak babesteko eta hartara biktima guztiengana heldu ahal izateko.

Laguntza humanitaria, humanitarismo klasikoaren eta humanitarismo berriaren arabera

Humanitarismo klasikoa	Humanitarismo berria
Helburu aringarria eta mugatua: Bizitzak salbatzea, sufrimendua arintzea	Helburu zabalak eta epe luzerakoak: Jatorrizko kausei aurre egitea. Bakea, garapena eta giza eskubideak sustatzea
Asistentzia-edukiak: Ondasunak eta zerbitzuak hornitzea bizirauteko	Eduki zabalak: Asistentzia, babesa, giza eskubideen defentsa, hondamendietarako prestakuntza, gatazken prebentzioa, etab.
Apolitikoa, independentea	Motibazio politikoa, politikoki <i>adimenduna</i> Estrategia politiko integral eta koherentea du abiapuntu
Pertsoneri bideratua (biktimak)	Prozesu politiko eta sozialak babestera bideratua
Etika deontologikoa (betebeharrean oinarritua)	Etika teleologikoa eta kontsekuentzialista (helburu eta emaitzetan oinarritua)
Etika-esparru zehatza: - «Inperatibo humanitarioa», nahitaezkoztasuna - Biktimen eskubidea	Etiki-esparru malgua, hauen arabera: testuinguruaren azterketa, aurreikus daitezkeen emaitzak eta irizpide politikoak: - Nahitaezkoztasunaren bazterketa - Eskubide unibertsalaren ideia bazterketa
Printzipio humanitarioetan oinarritua Neutraltasuna, inpartzialtasuna eta independentzia ikur gisa	Irizpide politikoetan oinarritua: Neutraltasuna eta inpartzialtasunari buruzko eztabaida
Ez-baldintzatua	Baldintzatua
Independentea	Gobernuen kontrol handiagoa, partzialki militarizatua

*Iturria:* batez ere ondokoetan oinarrituta egina: SLIM, Hugo (1997), «Doing the right thing: relief agencies, moral dilemmas and moral responsibility in political emergencies and war», *Disasters*-en, 21. liburukia, 3. zka., 244-257. orr.; Fox, Fiona (2001), «New humanitarianism: does it provide a moral banner for the 21<sup>st</sup> century?», *Disasters*-en, 25. liburukia, 4. zka., Overseas Development Institute, Londres, 275-289. orr.; eta MACRAE, Joanna (2001), *Aiding recovery? The crisis of aid in chronic political emergencies*, ZED Books, Londres.

### 3.6. Humanitarismo berriaren balorazio kritikoa bat

Humanitarismo politiko berriak ere, 90eko hamarkadaren erdialdera arte teoriarik eta praktikan nagusia izan dena, hainbat kritika jasotzen ditu; gainera, berriki plazaratu diren argitalpen batzuetan izugarri areagotu dira, antza.

Aurreko urteetako laguntza humanitario neutral eta apoliti-koaren aurkako kritiken ondoren sortu zen ikuspegi hau, Gerra Hotzaren osteko barne-gatazkei loturiko larrialdi politiko konplexuetarako egokitzapena izan da. Estrategia politiko zabalaren zerbitzura jarrita, laguntza humanitarioari bere helburuak zabaltzeko eta oinarritzeko arazo estrukturalak konpontzen laguntzeko eskatu zaio; paradoxikoki hau bete egin da, garapenerako lankidetzako fondoak murriztearekin batera.

Batek baino gehiagok ohartarazi du tranpa hutsa dela laguntza humanitarioa azpigarapenerako eta gatazketarako irtenbide gisa azaldu nahi izatea, kontuan izanik nazioarteko komunitateak ez duela sortu larrialdi politiko konplexuak konpontzeko mekanismo politikorik. 90eko hamarkadan, nazioarteko komunitatea uneko gatazketan esku hartzen hasi zen (lehen bukatu ondorengo gatazketan baino ez zuen jardun); hala ere, ez du gatazka horiek konpontzeko tresna efektiborik garatu eta badirudi, etsita, onartu egin duela gatazka horiek irautea. Egoera horretan, ekintza humanitarioa *nazioarteko izendatzaile komunetako txikiena* da, baina ezin da irtenbidea izan. Azken batean, norbaitek adierazi duenez, badirudi gobernu emaileak zain daudela ume batek heldu baten lana noiz egingo duen.

Bestalde, printzipio humanitarioei buruzko eztabaida logikoa izan da agian egungo gerren konplexutasuna kontuan hartuta, baina kostu izugarriak izan ditu: gune humanitarioa, murriztu eta politikoki erabili egin da, eta horrez gain, bere immunitatea galdu du, hau da, batzuetan borrokan dauden alderdiek ez dute onartzen dagoeneko guztiz neutrala ez den laguntza. Gainera, hainbat kasutan, Sudaneko Hegoaldean esaterako, antza denez bada emaitzetan oinarritutako etika berria negatiboa izan eta egoera larritu egin duelako zantzurik.

Zalantzarik gabe, nazioarteko testuinguruan eta ohiko krisialdi-motan izandako aldaketak direla-eta, beharrezkoa zen humanitarismoa birmoldatzea, baina horren emaitzak ez dira oso pozgarriak. Ziur aski, bakea, garapena eta giza eskubideak gauzatzen laguntzeko garatutako tresna operatibo eta ikuspegi teorikoetako askok baliagarriak izaten jarraituko dute, helmen mugatua izan arren. Ekintza humanitarioak ez luke hori alde batera utzi behar. Bai, ordea, presio politikorako

tresna bilakatu eta giza eskubidetzat hartzen duen ikuspegitik urrunduko duen baldintzatzailea. Baldintzatzaile hori eta helburu zabalak lortzeko lana ez dira zertan bereiztezinak izan. Beraz, beharrezkoa da oinarrizko printzipio humanitarioak, hala nola, neutraltasuna eta unibertsaltasuna, indarrean daudela aldarrikatzea. Alde biko laguntza mendebaldeko egitura politikoak eta ekonomikoak dituzten herrialdeetara gero eta gehiago mugatzen den mundu honetan, beharrezkoa da baldintza politikorik gabeko laguntza-gune bati eustea.

Ildo honetatik, hainbat erakunde humanitariok behin eta berriro esan du gatazkak konpontzeko beharrezkoa den maila altuko ekintza politikoa ez dagokiela eurei, politikariei eta diplomazialariei baizik. Hala, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearen (GGNB) presidente Sommaruga-k azpimarratu du, gatazka armatu batean, helburu humanitarioak eta politiko-militarrak bateragarriak izan arren, desberdinak direla. Baieztapen hau bat dator GGNBk inpartzialtasun eta neutraltasun printzipioekiko duen atxikimenduarekin. Bestalde, Mugarik Gabeko Medikuek erakundearen presidente James Orbinski-k, erakunde horrek 1999an Nobel saria jaso zuenean emandako hitzaldian, zera adierazi zuen: «Humanitarismoa ez da gerra amaitzeko edo bakea sortzeko tresna. Herritarrek porrot politikoari emandako erantzuna da. Berehalako erantzuna da, epe motzerakoa, epe luzera erantzukizun politikoaren beharra ezabatu ezin duena».

Adierazpen hauek egokiak dira; alde batetik, ekintza humanitarioari ezin zaiolako eskatu bere helmenetik kanpo geratzen diren arazoak konpontzeko, eta bestetik, gero eta nabarmenagoa delako ekintza humanitarioa politikaren ordeztarabiltzeko joera. Hain zuzen ere, egile eta erakunde askoren arabera, Gerra Hotzaren ostean ekintza humanitarioak izan duen goren unearen zergatia hein handi batean gobernuek hori beharrezkoak diren politiken ordeztarabiltzean datza, politika hauek Segurtasun Kontseiluan edo gobernuen artean adostea zailagoa baita, batez ere, armadak zabaltzea badakarte. Ekintza humanitarioak nazioarteko iritzi publikoa eta komunikabideak pozik edukitzeko aukera ematen die hein handi batean, baina gerta litekeen porrotaren arriskua murriztuz. Honi dagokionez, Ruandarako laguntza-operazioari buruz eginiko nazioarteko ebaluazioaren ondorio nagusietako bat hau izan zen: ekintza humanitarioak ezin du ekintza politikoa ordezkatu, ezta ekintza politikorik eza dela-eta bidea zabalik aurkitzen duen indarkeriaren giza kostuak konpentsatu ere. Horixe gertatu zen Ruandako genozidioan; txosten horrek eginiko kritikaren arabera, ez ziren

egin beharrezkoak ziren ahalegin guztiak genozidio haren prebentziorako.

### 3.7. Ikuspegi humanitarioen aniztasuna

*Humanitarismo berria* delakoa ikuspegi indartsuena, eta eragile askoren jardunaren ardatza bada ere, batik bat gobernu emaileenarena, ez da ekintza humanitaria ikusteko modu bakarra. Aldiz, ikuspegi desberdinak daude: hainbat kasutan elkarri lotuta daude, batzuk zaharragoak eta beste batzuk berriagoak dira, eta horietako bakoitzak eragin handiagoa du erakunde, egile eta inguru geografiko desberdinetan. Honi dagokionez, batzuek bi eskola handi aipatzen dituzte, bi ingurune kultural eta geografikoren arabera: eskola anglosaxoia, humanitarismo berriaren eta eztabaida berrien –hala nola, larrialdia-garapena lotura, *do no harm* printzipioa, edo ekintza humanitaria tokian tokiko bakerako ahalmena sortzeko erabiltzea– eragin handiena duena; eta eskola frantsesa edo frankofonoa, ikuspegi hauekiko errezelo handiena duena, eta agian laguntzaren neutraltasun eta independentziaren printzipioetatik hurbilen dagoena.

Laguntza humanitaria ulertzeko moduari eta honek politikarekin duen loturari buruzko korrante handien sailkapen interesgarria egin du gai honetan aditu nagusietakoa den Thomas Weiss-ek (ikusi *Ethics and International Affairs*, 13. zka.). Berak honako lau ikuspegi handi bereizi ditu:

- *Klasizista*, bizitzak salbatzera eta sufrimendua arintzera bideratuta dagoen humanitarismo tradizionala alegia. Honen jatorria Geneva-ko 1864ko Hitzarmena da, eta modu landuagoan, Genevako 1949ko Hitzarmenak, eta ondoko printzipio humanitarioetan oinarritzen da: neutraltasuna, inpartzialtasuna, unibertsaltasuna eta independentzia. Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea (GGNB) da ikuspegi honen ordezkari nagusia.
- *Minimalista*; ikuspegi honen arabera, laguntza humanitarioak, zentzuduna izateko, ez du egoera okertuko duen kalterik eragingo eta bere eragina jasangarria izango da laguntza hartzen den tokian. Ikuspegi hau laguntzari eginiko kritika ugariren eta laguntzaren akats eta arriskuak saihesteko gogoaren ondoriozkoa da, eta Mary Andersonek 80ko hamarkadaren bukaeraren planteatu zuen *kalterik ez eragitea* delako tesia da bere irudikapen ezagunena. (*Do no harm. How aid can support peace and war*, 1999). Honen arabera,

medikuen zin hipokratikoa imitatuz, laguntza humanitarioari eska dakioken gutxieneko helburua laguntza hartzen duten biztanleriei edo herrialdeei onurak baino kalte gehiago ez eragitea da.

- *Maximalista*; ikuspegi honi dagokionez, laguntza humanitarioak ez du konformatu behar bizitzak salbatzearekin eta sufrimendua arintzearekin; aldiz, helburu zabalagoak sustatu behar ditu aldi berean: garapena, bakea eta giza eskubideak. Honela, larrialdiko laguntzaren eta garapenerako lankidetzaren arteko loturari buruzko proposamena ikuspegi honen elementu nagusietako bat da.
- *Solidarioa*; laguntza humanitario politiko eta partisoaren aldekoa, adibidez, askapenerako borrokei laguntza ematera eta jazarpena pairatzen duten sektoreak defendatzen dituzten indarren alde egitera bideratua. 60ko hamarkadatik 80ko hamarkadaren zati handi bateraino asko zabaldu bazen ere, Gerra Hotzaren ostean presentzia galdu du.

Arku teoriko honen bi muturretan dauden ikuspegi klasizistak eta solidarioak errotze historiko handiena dute. Aldiz, euren artean bateragarriak diren minimalista eta maximalista, joan den hamarkadan garatu ziren. Hala, minimalismoa eta, batez ere, maximalismoa, azaldu dugun –eta gaur egun nagusia den– humanitarismo berriaren oinarri nagusiak osatzen dituzten ikuspegiak dira.



# IV

Ekintza humanitarioaren definizioa  
eta xedea

## 1. DEFINIZIOA:

Ez da erraza zehazki definitzea zer den ekintza humanitarioa, hainbat egilek eta erakundek ikuspegi desberdinak baitituzte horren esanahiari eta helmenari dagokienez. Ikusi besterik ez dago jardun-mota konplexua dela, bere tresnei, jardueri, helburuei, eragile inplikatuari, eta aplikazio-tesuinguruei dagokienez.

Oro har, esan genezake hondamendietako (katastrofe naturalek edo gatazka armatuek eragindakoak) biktimenezko laguntza-ekintzen sorta bat dela, biktimen sufrimendua arintzera, euren biziraupena bermatzera, euren oinarriko eskubideak babestera eta euren duintasuna defendatzera bideratuta daudenak, bai eta, batzuetan, komunitatearen desgaiturazte sozioekonomikoaren prozesua etetera, garapena eta bakea sustatzera, eta gerta litezkeen katastrofe naturalei aurre egiteko prestatzera ere. Honela, garapenerako lankidetzako jardunen helburua epe ertain eta luzerako eragina izatea bada ere, ekintza humanitarioarena, batik bat, premia larriko egoera bati epe motzerako erantzunak ematea da. Ezaugarri honek zehazten ditu bi jarduteko moduen arteko desberdintasun nagusiak.

*Ekintza humanitarioa* zer den zehazteko, egokia da batzuetan identifikatu eta nahasten den beste kontzeptu batzuekin alderatzen saiatzea, hala nola, *sorospen humanitario*, *larrialdiko laguntza*, eta batez ere, *laguntza humanitarioarekin*. Honi buruz ikuspegi desberdinak daudenez, zaila

da definizio eztabaidaezinak eskaintzea; hala ere, horietako bakoitzaren ezaugarri nagusiak aurreratzen saiatuko gara, liburu espezializatu gehienetan biltzen diren bezalaxe.

*Sorospen* kontzeptua hondamendia edo arrisku-egoera jasan duenarentzako laguntza da batez ere. Hala ere, egin-tza hau ez da zertan ekintza humanitarioak berezkoak di-tuen printzipio etiko eta operatiboek (gizalegea, neutraltasu-na, inpartzialtasuna, etab.) gidatutakoa izan halabeharrez. Izan ere, laguntza alderdikoia izan liteke, armada bateko sa-nitarioek euren bandokoei soil-soilik ematen dieten asisten-tziaren modukoa. Beraz, printzipio humanitario horiek errespetatzen direnean soilik esan dezakegu hori *sorospen humanitarioa* dela. Eskarmentu handiko erakunderen batek, Gurutze Gorriak esaterako, kontzeptu hau erabiltzen jarrai-tzen badu ere, badirudi gaztelaniazko bibliografian dagoe-neko ez dela erabiltzen.

*Larrialdiko laguntza* hondamendien biktimei ematen zaien premiazko asistentzia da. Laguntza hau ia beti doakoa izaten da, eta berehalako biziraupenerako ezinbestekoak di-ren ondasunak eta zerbitzuak hornitzen dira (ura, elika-gaiak, berokiak, sendagaiak eta atentzio sanitarioa). Honela-ko esku-hartzeak epe mugatua izan ohi du, normalean 6 edo gehienez 12 hilabetera artekoa.

*Laguntza humanitarioak*, zenbait agentziak definitzen du-ten bezala, esparru zabalagoa hartzen du barne. Aipaturiko *larrialdiko laguntza ez ezik, errefuxiatuentzako eta barne-desplazatuentzako operazio luzeen* moduko laguntza ere hartzen du barne. Operazio hauek, Elikagaien Munduko Pro-gramak (EMP/PMA) 1989tik aurrera egindakoak esaterako, hamabi hilabetez larrialdiko laguntza eman ondoren egiten dira; izan ere, kolektibo horiek denbora luzean behar izaten dute asistentzia, ihes egitera bultzatu zituzten arrazoiak kon-pondu eta etxera itzuli ahal izan arte. Gainera, praktikan beti horrela ez bada ere, erakunde asko 80ko hamarkadaren er-dialdetik, eta batez ere, 90eko hamarkadatik, onartzen hasi dira laguntza humanitarioaren helburua ez dela mugatu be-har berehalako biziraupena bermatzera; aldiz, epe luzerago-ko helburuetara ere bideratu behar da, bereziki, ehun ekono-miko eta sozialaren desegituraketa etetera, eta ondorengo berreraikitze eta garapenerako oinarriak jartzen saiatzera. *Developmental humanitarian assistance* (edo *developmental relief*) kontzeptuekin bat dator, hau da, euskaraz esanda *ga-rapenera bideratutako laguntza humanitarioarekin*. Proposa-men hauek larrialdiko laguntzaren eta garapenerako lanki-detzaren arteko loturari buruzko elkarrizketaren baitakoak

dira, eta aurrerago jorratuko ditugu zehazkiago (ikus VII. kap., 1. puntua). Gainera, laguntza humanitarioaren ikuspegi zabal honek epe motzerako hondamendiaren ondorengo *birgaitzera* bideraturiko jarduerak ere hartzen ditu barne, bai eta gerta litezkeen hondamendien aurrean azkar eta modu efizientean jarduteko *prestakuntzara* ere.

Azkenik, *ekintza humanitarioaren* kontzeptuak laguntza humanitarioarenak baino eduki zabalagoa izan ohi du. Bizirauteko oinarrizko ondasun eta zerbitzuen hornidura ez ezik, biktimen eta euren oinarrizko eskubideen babesa ere hartzen du barne, batez ere gatazka-testuinguruetan, honako zereginen bidez: giza eskubideen defentsa (*advocacy*), lekukotasuna, salaketa, presio politikoa (*lobby*) eta konpainia. Kontzeptu hau ingurune humanitario frankofonotik dator, eta azken urteotan izugarri hedatu da gurean.

Dena den, garrantzitsua da azpimarratzea laguntza eta ekintza humanitarioaren ezaugarriak, aipaturiko helburu eta jarduera jakin horiek ez ezik, betidanik berezkoak izan dituen printzipio humanitario etiko eta operatiboak ere badirela, azken urteotan indarra galdu duten arren. Hauen artean, garrantzitsuenak gizalegea, inpartzialtasuna, neutraitasuna eta independentzia dira; printzipio hauek kontuan izanik, pertsonen beharrek izan behar dute ekintza humanitarioaren ardatza, ez Estatuak, euren interes politiko edo ekonomikoak eta guzti (ikus VI. kap., 1. puntua). Ezaugarri hau, erreal edo xedezkoa izan, jardun humanitarioak eta garapenerako lankidetzak bereizten dituztenentzako bat da, azken honi dagokionez, emailaren eta hartzailearen arteko harremanak askoz ere lotuago baitaude baldintza politiko edo ekonomikoen irizpideekin.

## 2. EDUKIAK ETA HELBURUAK

Zehaztu ditzagun orain lehen aurreratu ditugun ekintza humanitarioaren berriazko eduki eta helburuak. Hauek, zailtzarrik gabe, asmo handiagokoak edo txikiagokoak izango dira egileen eta erakundeen ikuspuntuaren arabera; baina, guztiak hartuta, eta praktikan denak beti gauzatzen ez badira ere, honakoak dira oro har:

### 2.1. Bizirauteko oinarrizko ondasunak eta zerbitzuak hornitzea

Hondamendiak kalteturikoei euren bizitzak salbatzeko eta euren nekeak arintzeko ondasun eta zerbitzu horiek

ematea izan da laguntza eta ekintza humanitarioaren eginkizun tradizionala, eta ohikoena izaten jarraitzen du. Ase behar diren ezinbesteko ondasun eta zerbitzuak honakoak dira, izan ohi den premiaren arabera lehentasun-ordenan:

a) *Berokiak eta aterpea*

Beroki eta aterpe ondasunak (burusiak, arropa, kanpandendak) hornitzea batzuetan beharrik premiazkoena izaten da, gizakiak izugarriko giro hotzean 6-12 orduz egon ondoren, hil egin baitaitezke. Bizirauteko, ume batek gorputzaren tenperatura 36,5-37,5 ohiko tartean eduki behar du. Baina munduko ezein klimak ez ditu tenperatura horiek bermatzen gau eta egun; hortaz, beharrezkoak dira berokiak.

b) *Edateko ura eta saneamenduak*

Urik ez edateak heriotza eragin dezake egun gutxi batzuetan; ur kutsatua edateak, berriz, osasun-arazo larriak eragin ditzake, hala nola, beherakoak eta gaitz infekziosoak, hondamendietan heriotza-tasa igotzea eragiten duten gaitz nagusiak, alegia. Nahikoa edateko ur hornitzeko, beharrezkoa da ur-iturri bat bilatzea, ura garraiatzea, biltzea, tratatzea eta banatzea barne hartzen duen sistema bat. Beharrezkoa den kopurua hainbat faktoreren baitan dago, besteak beste, klimatikoak edo pertsona bakoitzaren faktore fisiologikoak. Hala ere, gutxi gorabeherako hainbat kopuru ezarri da. Larrialdiko egoeretan biziraupena eta behar fisiologikoak bermatzeko, kalkulatu da gutxienez 5 litro behar direla pertsona eta egun bakoitzeko (l/p/e); klima beroetan, gehixeago. Larrialdia gainditu ondoren, gutxienez 15etik 20ra l/p/e bermatu behar dira oinarriko beharrak asetzeko (edatea, janaria prestatzea, garbitzea); halaxe kalkulatu da errefuxiatu-esparruetan. Hala ere, nutrizio-zentroetan gutxienez 40 l/p/e behar dute, eta ospitaletan 200 l/p/e.

Edateko urak hainbat baldintza bete behar ditu, hala nola, itxura fisikoa (zaporea, usaina eta gardentasuna), eta batez ere kalitate kimikoa (gai kaltegarriak eza: artsenikoa, beruna, nitratoak edo merkurioa) eta kalitate mikrobiologikoa (mikroorganismoak eza: bakterioak, birusak edo parasitoak). Ura kaltegarria ez izatea bermatzeko, tratatu egin behar da; horretarako hainbat metodo dago: biltzea, iragaztea, kloratzea edo irakitea.

Urak transmitituriko infekzioen prebentziorako, edateko ura eskuragarri izateaz gain, beharrezkoa da *saneamenduko*

gutxieneko neurriak hartzea, gorozkiak eta hondakin-urak bildu eta deuseztatzeko neurriak, hain zuzen. Pertsona-kopuru handia leku txikian pilatuta dauden larrialdi-egoeretan (laguntza-esparruetan gertatu ohi den bezala), horrelako neurriak ezinbestekoak dira epidemia hilgarriak, hala nola, kolera edo disenteria, saihesteko. Aldi baterako neurri gisa, larrialdiaren aurreneko egunetan libratzeko berariazko guneak ezarri behar badira ere, gune hauen ordezkari komunak jarri behar dira lehenbailehen. Zaborrak deuseztatzea ere funtsezko neurria da.

### c) *Elikagaiak*

Hasieran osasuntsu eta ondo elikatuak daudenek zenbait astetan jan gabe biziraun dezakete; hala ere, herrialde pobreetan asko dira hasiera batetik gaixorik eta malnutrizio-egoeran daudenak. Epe motzerako laguntza behar den batbaterako krisialdietan (aste gutxi batzuetan), beharrezkoak diren gutxieneko kilokaloriak ematea da lehentasuna, hau da, 2.100 kilokaloria pertsona eta egun bakoitzeko, oro har; hala ere, batzuek gehiago behar izaten dute (gaixoak, malnutrizio-egoeran daudenak, haurdun dauden emakumeak eta bularreko umeak, etab.). Helburu hau tokian tokiko zereal eta lekaleen bidez lortu ahal izaten da ia beti; hauez gain, olioak eta espeziak ere horni daitezke. Larrialdia denbora luzean garatu, eta pertsonak, ibilbide luzeak eginda, malnutrizio-egoeran eta gaixorik daudenetan, dietak ahalmen energetiko handiagoa izan behar du (2.300 kilokaloria inguru), eta gainera beste mantenugai batzuk ere eman behar dira (batez ere proteinak, eta A, C bitaminak eta baita B taldekoak ere); horretarako, tokian tokiko elikagaien konbinazio egokia (zerealak, lekaleak eta olioak) ere nahikoa izaten da. Aldiz, laguntza hainbat hilabetez edo urtez luzatu behar denean, errefuxiatu-esparruetan esaterako, dieta diabetifikatu egin behar da, fruitu eta barazki freskoak ere sartuz, hainbat bitamina eta mineral emateko.

Elikagai-laguntzaren arrakasta hein handi batean emango diren produktuen hautaketa egokia egiteak baldintzatuta egongo da, produktuen ezaugarrien eta testuinguruaren arabera. Hala, elikagai horiek honako baldintzak bete beharko dituzte: tokian tokiko elikagai-ohiturekin bat etortzea; bertan eskuragarri izatea, ahal den guztietan; kaloria eta proteina ugari edukitzea; merkeak izatea, euren mantenugai-ekarpenarekin alderatuta; eta oinarritzkoak izatea. Azken hauek lehenetsiko dira prozesatuen edo formula berezien bidez egindakoen aldean. Ildo honetatik, galleta proteiko-energetikoak

eta horrelako elikagai prozesatuak oso denbora-tarte laburretan erabili beharko lirateke (krisialdia sortu ondorengo egunetan) eta arazo logistikoak direla-eta komenigarria den egoeretan (urik edo egurrik eza beste elikagai batzuk presatzeko, garraiatzeko zailtasunak, etab.), oso garestiak eta zapore bitxikoak baitira.

Larrialdiko elikadura-laguntza batzuetan janaria lanaren trukeko proiektuen baitan egiten bada ere, hiru mekanismoren bidezko doako banaketetan datza ia beti; lehenengoa komunitate osora bideratua, eta beste biak hautaturiko taldeetara:

- *Elikagaien banaketa orokorra*; hondamendi batek kaltegarriko komunitate bateko kide guztiei oinarrizko anoa orokorrak ematean datza, adibidez, errefuxiatu-esparruetan, batez ere larrialdi-fasearen lehenengo unean, azkarrago aritzearren; izan ere, hartzaileak hautatzeko denbora beharko litzateke. Anoa horiek pertsonaren elikadura-beharrak ase behar dituzte, guztiz edo hein batean, eta bi motatakoak izan daitezke: *anoa lehorrak* (prestatu gabeak, etxera eramatekoak) edo *anoa prestatuak* (edo *elikatze masiboa*, banaketa-zentroetan kontsumitzekoak).
- *Elikatze osagarriko programak*; egunean behin edo bitan elikadura orokorreko oinarrizko anoak osatzeko elikadura ematen dute, dagoen malnutrizioa eteteko edo horren prebentziorako bereziki urrakorrak diren taldeetan: malnutrizio arineko egoeran dauden haurrak (malnutrizio larrian erortzea saihesteko) eta malnutrizio-egoeran dauden helduak. Programa hauek *orokorrak* izaten dira, talde urrakor osoak hartzen dituztenean barne (5 urtetik beherako haurrak, haurdun dauden emakumeak eta bularreko umeak, malnutrizio-egoeran dauden helduak, gaixoak, etab.); edo *selektiboak*, malnutrizio-egoeran dauden pertsona jakinak hartzen dituztenean.
- *Elikatze terapeutikoko programak* (edo *intentsiboa*); egunean sei edo zazpi aldiz banatzen dizkiete kaloria, proteina, bitamina eta ezinbesteko mineral ugari dituzten janariak malnutrizio-egoera larrian dauden pertsoneri (sarritan, haurrak), euren bizitzak salbatzearren eta errehabilitatzearren. Nutrizio-zentroetan edo zentro sanitarioetan egiten dira, langile espezializatuek gainbegiratuta.

Larrialdiko elikadura-laguntzan ematen diren produktuek bete beharreko irizpide fisiologiko, kultural eta ekonomikoen laburpena

- Ez dituzte elikadura-ohiturak epe luzera aldatu, eta beraz inportazioekiko mendekotasuna sortu behar.
- Prestatzeko errazak izan behar dute, hartzaileen ezagutzetan oinarrituz eta ahal den erregai gutxien erabiliz.
- Kulturalki onargarriak izan behar dute.
- Kostua/nutrizio-onura arteko erlazio ona izan behar dute. Horregatik, janari likidoak edo ur-kopuru handikoak ez dira erabili behar, garraiatzen garestiak dira-eta.
- Iraungitze-epe egokia izan behar dute biltegian gorde ahal izateko (gutxienez, 6 hilabete iritsi ondoren).
- Tamaina egokiko paketeetan bildu behar dira.
- Etiketek (tokian tokiko hizkuntzan, hizkuntza ofizialean edo atzerriko hizkuntza ezagun batean) honakoei buruzko informazio argia eman behar dute: edukiak, gehigarriak, produkzio lekua eta data, iraungitze-data, nutriizio-analisia eta prestatzeko metodoak.
- *Halako herrirako emaitza* bezalako mezuak saihestu egin behar dira, elikagai onuragarriagoak lortzeko trukeak ez eragoztearren.
- Lehen bidalketetan neurri metrikoak txertatu behar dira, banaketak eta nahasteak erraztearren.
- Ahal bada, produktuek ez dute balio handia izan behar merkatu beltzean.
- Hobe da eho gabeko zereala bidaltzea, biltegiratzen errazagoa delako, nutriizio-balio handiagoa duelako eta merkeagoa delako.
- Proteina-beharrak zerealak eta lekaleak erabiliz ase ahal eta behar dira. Haragia eta arraina garestiak dira eta ez dira beharrezkoak; hala ere, tokian tokiko hornidura batzuk laguntza-programan txerta daitezke.
- Epe luzeko laguntza iraunkorrean (errefuxiatu-esparruetan, esate baterako) tokian tokiko espeziak eta gatza ere sartu behar da, bai eta seguru aski azukrea, tea eta kafea ere, kultur arazoak direla medio, eta otorduak atseginagoak izateko.
- Ez dira erabili behar urez berrosatu beharreko elikagaiak, batez ere ur hotza soilik behar duten «berehalako» janariak, honen higie arazoak sortzen baititu.
- Esnekiak salbuespen gisa bakarrik erabili beharko lirateke. Esnearen Ordezkoak Merkaturatzeari buruzko Nazioarteko Kodea (OMEk 1981ean onartua) jarraitu beharko litzateke.



- Proteina edo kaloria ugari dituzten galletak, barrak edo tabletak ez dira tokian tokiko ohiko elikagaien ordeztoko egokiak. Muturreko kasu batzuetan baino ez dira baliagarriak, eta halakoetan ere, desabantailak dituzte.
- Iraungitze-epe motzeko produktu freskoak, produktu exotikoak eta industria-prestakinak guztiz desegokiak dira: ume txikien- zako janari latak eta botilak, fruituak, barazkiak, gazta, zopa, zukuak edo siropea; prestaturiko merkantziak; produktu izoztuak; janari terapeutikoak; haurrentzako esnea; titia kentzerako industria-elikagaiak, eta soldaduentzako anoak.

*Iturria:* GLASAUER, P. eta C. LEITZMANN (1988), *Food aid in disasters*, Diakonisches Werk of the Evangelical Church in Germany-rako bildua, 2. argitalpen berrikusia, Stuttgart/Giessen (Alemania), 36. orr.

#### d) *Atentzio sanitarioa*

Hondamendi-egoera batean asistentzia sanitarioa behar izatea hondamendiak osasun-arloan izan duen eraginaren baitan egongo da. Katastrofe naturalek eragindako hondamendien artean, lurrikarek edo urakanek azpiegitura sanitarioak eta ur-hornidurakoak honda ditzakete; lehorteeak, berriaz, osasun-maila kaltetuko dute malnutrizioaren eta pobretzearen bidez. Kaltegarriagoak dira, ordea, gerrek eragindako larrialdiak, batez ere barne-gerrek eragindakoak, osasun-sistema hautsi, patologia fisikoen eta burukoaren kasuak areagotu, eta krisialdi sanitarioak sortzen dituztelako; hauek dira, izan ere, egungo larrialdietan heriotza-tasa igotzearen eragile nagusiak.

Larrialdietan osasun-arloan egiten diren esku-hartzeetan, lehenbizi *ebaluazio sanitario azkarra* egin behar da, beharrak, tokian tokiko baliabideak eta laguntza-beharrak kalkulatzeko. Esku-hartze horiek, batik bat, honako helburuak izan behar dituzte, kronologikoki ordenatuta:

- Katastrofeak berak edo beharrezkoak diren zainketarik ezak, edo hauek berandu iristeak eragindako heriotza-tasaren prebentzioa eta murrizketa.
- Kaltetuei asistentzia ematea.
- Hondamendiak eragindako erikortasuna eta horren ondoriozko heriotza-tasaren prebentzioa epe motz eta luzera, adibidez, urak edo saneamendurik ezak eta arnas infekzioek transmitituriko epidemiak zabaltzea saihestuz (errefuxiatu-esparruetan eta pertsona asko pilatuta dauden zentroetan), bai eta sistema sanitarioaren kolapsoak berpizturiko epidemiek eragindakoena ere, etab.

- Epe luzerako malnutrizioaren prebentzioa, osasun-egoera ona berreskuratzea bermatzearen.
- Osasun-zerbitzuak berreraiki edo birgaitzea, eta aurreko egoera ere hobetzeko aprobeztatuz.

Hondamendiak kalteturikoen osasun-egoera zehazteko, adierazle erabiliena heriotza-tasak dira; horien arabera, larrialdiak hiru fase ditu:

- *Larrialdiaren fase akutua*, aurreneko asteetakoa: honen ezaugarriak heriotza eta hilgarritasun (gaixotasun batek eragindako heriotza-kopuruaren eta kalteturikoen arteko proportzioa) tasa altuak. Heriotza-tasa altuak batez ere bost urtetik beherako umeengan du eragina, eta lotura zuzena du malnutrizio-maila altuekin eta gaixotasun kutsakorren –beherakoak eta elgorria, kasu– prebalentzia altuarekin. Testuinguru honetan egiten diren osasun publikoaren mailako esku-hartze nagusiak hauek dira: aho-errehidrataziorako zentroak zabaltzea, sei hilabete eta bost urte arteko haurrei elgorriaren aurkako txertoa ematea, informazio sanitarioiko sistema bat ezartzea, eta horrez gain, ura, elikagaiak eta ezinbesteko zainketa sanitarioak ematea.
- *Larrialdiaren fase berantiarra*; bat eta sei hilabete arteko iraupena du. Aurreko heriotza eta malnutrizio tasa altuak murriztu egiten dira pixkanaka. Honek osasun publikoaren arloko esku-hartzeak berrantolatzeak aukera ematen du, komunitateko osasun-agentekak bilduz eta prebentzio zein asistentziako oinarritzko jardueretan prestatuz, ama-haurrentzako osasun-programak edo sexu bidez transmititutako gaixotasunak eta hiesa kontrolatzeko programak abiaraziz, sendagaiak hornitzeko programa zentzudunak ezarriz, edo agentzietako diagnostiko eta tratamendu protokoloak bateratuz.
- *Larrialdi osteko fasea*, fase akutua bukatu eta handik sei hilabetera hasten da; baldintza sanitarioak ohiko egoerara itzultzen joaten dira, gaixotasun akutuak murrizten joaten dira pixkanaka, eta kronikoak areagotu egiten dira. Beraz, egokiena osasun publikoko oinarritzko programak zabaltzea da, estrategia integralak erabiliz, honakoei buruzkoak adibidez: ama-haurren osasuna, ugalketa-osasuna, tuberkulosiaren kontrola, sexu bidez transmititutako gaixotasunak, etab. Laguntza-jardunak epe motzeko larrialdiko ikuspegitik epe luzeragoko birgaitze eta garapeneko beste baterantz bideratu behar dira pixkanaka.

## 2.2. Urrakortasunaren areagotze-prozesua eta familien zein komunitateen desegituratze sozioekonomikoaren prozesua etetea

Larrialdiko laguntza eta laguntza humanitarioa garapenerako lankidetzarekin lotzeko moduari buruz piztu den eztabaidaren esparruan (7.1 kapituluan jorratua), ikertzaile eta erakunde humanitario askok adierazi dute laguntza humanitarioak ez duela mugatu behar berehalako biziraupena bermatzeko ezinbestekoak diren ondasunak hornitzera. Aldiz, krisialdia iraunkorra edo errepikaria izatea saihesteko, bere jatorrizko kausa batzuei aurre egin behar die. Ikusi dugun bezala, *hondamendi* bat batzuetan luzea den *urrakortasunaren* pilatze-prozesu baten emaitza da, eta ondorio larriak dituen asaldaketa sozioekonomiko handia da: miseria areagotzea, gosetea, epidemiak, biztanleriaren nahitaezko migrazioak, etab. Testuinguru honetan, egile eta GKE askoren arabera, biztanleriaren urrakortasuna pilatzeko prozesu hori eteteko tresna bat da laguntza humanitarioa, krisialdia goren unera iristea saihesteko duen tresna alegia, eta baita prozesu hori bihurtzeko eta ondorengo birgaitze eta garapenerako oinarriak ezartzeko tresna ere. Honi dagokionez, hona hemen helburu zehatz batzuk:

- a) *Urrakorrenen diru-sarrerek eta erosteko ahalmenak hondoan jotzea etetea*. Horretarako, baliagarriak dira, adibidez, *janaria/dirua lanaren truke* izeneko programak, hau da, hainbat zereginen truke (errepideak edo eraikinak berreraikitzea, baso-berritzea, etab.) pertsona urrakorrei soldata bat elikagaitan edo dirutan emateko programak. Enplegu publikoko programa hauek India, Etiopia eta Botswana herrialdeetan asko erabiltzen dira, eta gauzatzeko zailtasunak eta mugak izaten badira ere, nolabaiteko arrakasta izan dute gosetearen eta krisialdi humanitarioen prebentzioari edo arintzeari dagokienez.
- b) Hondamendiak kalteturikoen *deskapitalizazio osoa* saihestea, elikagaiak erosteko euren ondasun produktiboak merkeegi saldu behar ez izateko laguntza emanaz, horrek etorkizunean mantentzeko izan dezaketen sistema hipotekatu eta miseria iraunkorrera kondentuko lituzke-eta. Helburu honetarako lagungarria izan daiteke honako laguntza hornitzea: elikagaiak, haziak, dirua, bazka, enplegu-programak, etab.
- c) *Kaltetuei euren bizilekuan ahal den denbora guztian egoten laguntzea*, miserian erortzea saihesteko asis-

tentzia deszentralizatu baten bidez euren exodoa saihestuz. Kontuan izan behar da biztanleriaren desplazamendu masiboak euren jarduera ekonomikoak etetea dakarrela (adibidez, ezin dituzte prestatu eta erein soroak hurrengo uztarako), eta kasu askotan komunitatea, eta baita familia-nukleoa ere, zatikatzea. Honek guztiak zaildu egiten du krisialdiaren ondorengo birgaitzea; beraz, exodoa beharrezkoa ez izateko laguntza emateak giza mailako kostuak eta kostu ekonomikoak saihesten ditu.

- d) Ondorengo susperraldirako eta garapenerako lagungarriak diren *tokian tokiko ahalmenak sendotzea edo sortzea*, biztanleriaren ezagutza teknikoak hobetuz, langileak eta toki-erakundeak gaituz, bai eta larrialdiaren ondoren erabili ahal izateko moduko azpiegitura publikoak sortzea ere (putzuak, errepideak, ekipamendu sanitarioa, etab.). Askotan laguntza humanitarioa kanpoko langile teknikoak bidaltzera, zerbitzuak hornitzera edo azpiegiturak eraikitzen mugatzen da, larrialdi-egoerako beharrak bakarrik estaltzea pentsatuz, eta ahaztu egiten da aldi berean gizartearen eta tokian tokiko erakundeen ahalmenak sendotu daitezkeela eta hala izan beharko lukeela, krisialdi horiei eta etorkizuneari gerta litezkeenei euren kabuz aurre egin ahal izateko. Horretarako egokia litzateke tokian tokiko baliabideak (langileak, material-baliabideak, gizarte-sareak, etab.) ahal den neurrian erabiltzea, eta baita herrialdeko erakunde publikoekin hurbil-hurbileko lankidetzan jardutea ere, euren zerbitzuak ordezkatzeko.

### 2.3. Epe motzerako prestakuntza eta birgaitzerako esku-hartzeak egitea

Zenbait egilek eta erakundeek beste bi jarduteko arlo hartzen dituzte barne ekintza humanitarioaren esparruan. Hauek, urrakortasuna murriztuz, larrialdiko berehalako helburuak etorkizuneko garapenearekin lotzea ahalbidetzen dute. Arlo horietako bat hondamendiak suntsituriko edo kalteguriko esparruak epe motzera *birgaitzea* edo berreraikitzea da, hala nola, azpiegiturak, oinarriko zerbitzuak, funtsezko jarduera ekonomikoa, gizarte-ehuna, etab. Birgaitzearen helburuak, hondamendiaren aurreko egoerara itzultze soila bainoago –hori hondamendia ahalbidetu zuen urrakortasun estrukturalera itzultzea izango bailitzateke–, urrakortasun

txikiagoko eta ahalmen handiagoko baldintza berrietan oinarrituta berreraikitzea izan beharko luke, eta honela krisialdi gehiago jasateko arriskua murriztuko litzateke.

Gerta litezkeen hondamendi naturalei aurre egiteko *prestakuntza*, berriz, horiek aurreikustea, horiei buruz ohartaraztea, eta erantzun azkar eta eraginkorra ematea ahalbidetzen duen neurri eta tresna sorta bat da. Larrialdiko testuinguruetan horietako batzuk beste batzuk baino errazagoak dira martxan jartzen; hala ere, oro har prestakuntzak honako tresnak ditu:

- Hondamendiei aurre egiteko *erakunde-ahalmena* sortzea; hau nazio, probintzia eta herri mailan egituraturiko sarea da, eta larrialdian esku hartzen duten organismo publikoek eta bestelako erakundeek osatzen dute.
- *Larrialdiei buruzko legeria*, ondo egituratua, inplikaturiko erakundeen eginkizunak modu koordinatuan zehazten duena, estandarrak eta jarduteko planak zehaztuz.
- *Urrakortasun-mapak*, hau da, talde urrakorrenak zeintzuk diren, zenbat diren, non dauden, eta zergatik diren urrakorrek zehazten duten azterlanak, hondamendia gertatuz gero horiei beharrezkoa duten laguntza azkar bideratu ahal izateko.
- *Alerta goiztiarreko sistemak*, hau da, datuak bildu, aztertu eta hedatzeko sistemak, hondamendia iragarri eta garaiz jardun ahal izateko.
- *Kontingentzia-planak*, hau da, egoerak okerrera eginez gero martxan jarri daitekeen aurrez diseinaturiko neurri, proiektu edo programa multzoa.
- Azkar eta modu eraginkorrean erantzun ahal izateko *azpiegiturak eta ekipamenduak* ezartzea: garraiobideak, komunikazio-sistemak, elikagai eta sendagai erreserbak, etab.
- Inplikaturiko erakundeetako *langileen prestakuntza*, larrialdia hobeto kudeatzeko gaitzeko, eta *biztanleriaren heziketa*, nola jardun behar duten erakusteko eta horretaz kontzientziazteko.

Epe motzerako birgaitze-lanak eta prestakuntzakoak ECHOren (Europako Erkidegoko Laguntza Humanitariorako Departamentua) laguntza humanitarioan txertatu dituzte, bere legezko oinarritik ondorioztatzen den bezala, hau da, Europar Batasuneko Kontseiluaren Laguntza Humanitarioari

buruzko Arauditik, 1996koa. Dokumentu honek ezarritakoaren arabera, laguntza humanitarioaren helburu nagusien artean epe motzerako birgaitzeko eta berreraikitzeke lanak daude, bereziki azpiegitura eta ekipamenduei dagokienez, tokian tokiko egiturekin hurbil-hurbileko lankidetzan, laguntza iristea errazteko, krisialdiak okerrera egitearen prebentziarako eta kaltetuek gutxieneko autosufizientzia-maila berreskuratzen hasten laguntzeko; ahal den guztietan, gainera, epe luzearako garapenerako helburuak hartuko dira barne (2, d art.). Era berean, beste helburu garrantzitsua hondamendi naturalen arriskuei eta antzeko beste ez-ohiko egoera batzuei aurre egiteko *prestakuntza* ziurtatzea, *alerta goiztiarreko sistema* egokiak ezarriz arrisku horiek aurreikusteko, eta baita *kontingentzia-planak* ere, azkar esku hartzeko (2, f art.). Nolanahi ere, Europar Batzordearen egituran 1999an hasitako aldaketak direla medio, badirudi azken bolada honetan ECHO berriro ere aginte mugatuagoko orientabidera itzultzen ari dela, hau da, larrialdi-egoeretan bizitzak salbatzea eta sufrimendua arintzea ardatz duen orientabidera, alegia.

#### 2.4. Hondamendiek kalteturiko pertsonak babestea

Hainbat erakunderentzat, gerren eta beste hondamendi batzuen biktimen babesak ekintza humanitarioaren oinarritzko osagarri bat da, betiere babes hori honakotzat hartuta: euren oinarritzko giza eskubideen defentsatzat, euren duintasunarekiko errespetuaren aintzat hartze eta defentsatzat, eta gerretan indarrean dagoen Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa betetzeko eskaeratzat (ikusi VI. kap., 2. puntua). Babesteko lan hau bereziki egokia da 90eko hamarkadaren hasieratik areagotu diren Larrialdi Politiko Konplexuen eta gatazka zibilen testuinguruetan; izan ere, ikusi dugun bezala, horien ezaugarri nagusia giza eskubideen urraketa masiboak dira (garbiketa etnikoa, gosea gerra-arma gisa, nahitaezko migrazioak, etab.). Hau dela-eta, egile eta erakunde ugari onartu dute laguntza humanitario klasikoak, ondasunak eta oinarritzko zerbitzuak hornitzea ardatz duena, ez dela indarkeriak eragindako hondamendiei aurre egiteko erantzun egokia, kalamitate naturalek eragindako hondamendietarako zentzuzkoa izan daitekeen arren.

Honi dagokionez, Europar Batasunaren Kontseiluaren laguntza humanitarioari buruzko 1996ko Araudiaren arabera, laguntza humanitarioa hondamendi naturalek edo gizatiarrek kalteturiko pertsonenganako *asistentzia*, *sorospen* eta *babes* ekintza ez-baztertzailen multzo bat izango da, batez

ere urrakorrenen, eta lehentasunez garapen bidean dauden herrialdeen aldekoa.

Babesa honakoetan gauzatzen da: agintariei (eta beste eragile batzuei), giza eskubideen errespetuari eta asetzeari dagokionez dituzten obligazioak betetzeko eskatzean, bai eta indarkeriak biztanleria zibilarengan duen eragina murrizteko beste jarduera batzuetan ere. Horrelako jarduerak berariaz giza eskubideen esparruan lan egiten duten erakundeak betidanik aritu izan badira ere, GKE humanitarioek eta garapenerakoek gero eta joera handiagoa dute horietan jarduteko. Babesera bideraturiko lanen artean, honakoak dira nabarmenenak:

- a) *Giza eskubideak errespetatzen direlako nazioarteko gainbegiratzea edo zaintza*. Honi dagokionez, azpimarratzekoa da Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeak (GGNB) eginiko lana; izan ere, Genevako Hitzarmenek eta horien Protokolo gehigarriek tresna horiek betetzen direla gainbegiratzeko eta bermatzeko eginkizuna esleitu diote; azken buruan, horiexek dira Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren oinarria eta gatazka armatuetako biktimak babesten dituztenak. Nazioarteko beste erakunde batzuek ere badihardute giza eskubideak zaintzeko lanetan krisialdi politikoko edo gatazka armatuko testuinguruetan. Aipagarrienak arlo honetan espezializatuta daudenak dira, hala nola, Human Rights Watch edo Amnesty International, baina haez gain, badira GKE humanitarioak eta oro har garapenekoak ere. Bestalde, aipatu beharra dago nazioarteko erakunde batzuek, NBEk edo ESLAk (Europako Segurtasuneko eta Lankidetzako Antolakundea) esaterako, gatazkan dauden herrialdeetara giza eskubideak behatzeko bidalitako misioek egin dezaketen prebentzio eta babes lana. Hala ere, azken hauek ez dira erakunde humanitario hutsak; aldiz, gobernuen arteko lankidetzako erakundeak dira, eta beraz, euren lanaren ardatza ez dira ekintza humanitarioaren printzipioak, irizpide politikoak baizik.
- b) Giza eskubideen eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketen *testigantza* eta *salaketa*, hainbat erakundek egiten dutena. Horretarako, urraketa horiek biltzen dituzten txostenak egin eta hedatu ohi dira, nazioarteko iritziz publikoa, komunikabideak, gobernuak eta Nazio Batuak horretaz ohartaraztearren. Salaketa-ekintzak burutzea dilema zaila izaten da erakunde humanitarioentzat, herrialde horretatik bota

ditzaten eta euren asistentzia-jarduerak eteteko arriskua izaten baitute.

- c) GKEek eginiko *presio politikoa (lobby)*, jardun duten herrialdeetako gobernuetarantz edo nazioarteko komunitateko beste batzuetarantz bideratutakoa. Bere ohiko helburuen artean, giza eskubideen errespetua, nazioarteko laguntza biktimengana heltzeko baimena eta askatasuna izan ohi dira, bai eta batzuetan kolektibo ahaztu edo baztertu jakin batzuen egoera ezegonkorra ezagutaraztea eta behar den atentzioa ematera bultzatzea ere.
- d) *Nazioarteko konpainia eta presentzia*, iraunkorra edo aldizkakoa, indarkeriak kalteturiko biztanleei babes aktiboa ematearren eta giza eskubideen urraketen prebentziorako gatazka-eszenatokietan laguntzaileek/behatazaleek egiten dutena. Prebentzio-eginkizun hau eraginkorra izaten da balizko urratzaileak jasan dezakeen nazioarteko presioaren beldur den heinean. Horregatik lan honetarako beharrezkoa da nazio-mailako agintari eta entitateekin aldizkako elkarrizketak izateaz gain, beste herrialde batzuetako iritzia publikoa eta organismoak sentsibilizatzeko jarduerak egitea, informazioa hedatuz eta presio-lanak eginez.

Nazioarteko erakunde baten presentzia hutsak berez nolabaiteko prebentzio-eginkizuna ekartzen badu ere, esan beharra dago zeregin hau ez dela berariaz planifikatuta egoten GKEen lanean, eta hauetan lan egiten dutenek ere ez dutela horretarako prestakuntzarik izaten. Arlo honetan espezializatuta dauden erakunde bakanetako bat Nazioarteko Bake Brigadak izenekoa da; honek gatazka-zonaldeetan bertakoei eskatuta behatzaile/laguntzaile taldeak edukitzen ditu. Sarritan, Kolonbian esate baterako, euren papera tokian tokiko erakundeak (GKEak, giza eskubideen aldeko taldeak, desplazatuak erakundeak) babestea izaten da, eta erakunde hauek indarkeria edo errepresioa jasan gabe euren eginkizunetan jardun ahal izatea lortzeko lan egiten dute. Lan honen osagarri beste hauek ditugu: nazioarteko behaketa egiaztatze-misioetan eta negoziazio-mahai mistoetan, alderdietako konpromisoen jarraipena eta gogoraraztea, nazio zein nazioarte mailako elkarrizketa eta lobbya, txostenak argitaratzea, eta gizarte-ehuna berregiteko laguntza.

Babes-eginkizun hauek nolabaiteko segurtasun-maila ematen diete gatazketako biktimei; hala ere, segurtasun hau mugatua da, armarik gabeko babesa baita. Honi dagokionez, esan beharra dago erakunde humanitarioek aspaldi honetan



behin eta berriz azpimarratu dutela NBEren agindupeko Indar Armatuak ematen duten babes militarra, edo NATOren agindupekoek emandakoa Kosovoren kasuan, ezin direla ekintza humanitarioaren osagarritzat hartu. Egiazki, Bakeari Eusteko delako Operazioetan (hala nola laguntza-konboien eskolta edo biztanleria eta nazioarteko laguntza babesteko Jugoslavia ohian, Ruandan eta Iraken ezarritako segurtasun-zonaldeak sortzea) hartu ohi diren babes armatuko neurriak lagungarriak izan daitezke ekintza humanitaria efektiboa izateko. Hala eta guztiz ere, berez ezin dira ekintza humanitarioaren osagarritzat hartu, indarraren erabilerarekin bateragarriak ez diren printzipio etiko eta operatiboak baitira ekintza humanitarioaren ezaugarria (ikusi 6. kap., 1. puntua).

V

Nazioarteko sistema humanitaria

Zeintzuk dira ekintza humanitarioaren aktoreak eta nola erlazionatzen dira euren artean? Zein arauk eraentzen dute haien funtzionamendua eta zein presioen eraginpean daude? Zein baliabide dituzte eta nola erabiltzen dituzte? Horiek dira egin beharreko zenbait galdera *nazioarteko sistema humanitaria* deiturikoaren ezaugarriak aztertzeko orduan; ekintza humanitarioan inplikaturiko erakundeen, arauen, printzipioen eta koordinazio-erakundeen sareak osatzen du.

## 1. SISTEMA HUMANITARIOAREN AKTOREAK

Hainbat mailatako kate luzea du nazioarteko sistema humanitarioak: gobernu emaileak, Nazio Batuen hainbat erakunde eta agentzia, nazioarteko GKEak, herrialde hartzaile-  
etako gobernuak, GKEak eta tokian tokiko bestelako erakundeak, eta eraginpeko populazioa bera. Horretaz gain, beste zenbait aktorek, esaterako komunikabideek eta bake-operazioetan zabalduko armadek, eragin handia dute sistema horretan.

Erabakiak hartzeko eta laguntzak kudeatzeko ardura duen erregimen instituzional honen konplexutasuna eta zatikitzea areagotu egin da azken bi hamarkadetan, eszenatoki berriak, eta askotariko ezaugarriak eta lehentasunak dituzten aktore ugari agertu baitira. Are gehiago, ikuspuntu funtzionaletik begiratuta, nekez hitz egin liteke *sistema* humanitario propio batez, nondik norako legal desberdineko eta euren artean nahiko independenteak diren hainbat erakundek osatzen baitute, eta batez ere ez dute egiturarik edo

araurik agintaritza-sistema hierarkizatu bat ezartzeko moduan. Sistema egituraturik ez izateak koordinaziorik eza eragiten du sarritan (modu boluntarioan egiten dela kontuan izanda), baita alde handiak ere larrialdi batzuei zein besteei esleituriko baliabideen artean.

Ikus ditzagun ondoren, sistemaren aktore nagusien ezau-garriak.

### 1.1. Populazioa eta tokian tokiko erakundeak

Azpimarratu beharrekoa da hondamendi-egoerei aurre egiteko beharrezkoa den laguntzen zati bat eraginpeko komunitateek beraiek mobilizatzen dutela, tokian tokiko erakundeak eta instituzioak tarteko, edo elkartasun-mekanismo informalak tarteko. Familia eta pertsona urrakorrek, baita hondamendi batean edo haren ondoren ere, ahalmen material, sozial eta psikologiko gutxi-asko dute, krisialdiari aurre egiteko moduan. Hau, esaterako, aurre egiteko hainbat estrategia ezarrita egiten dute (ikus II. kap., 1.3 puntua), eta horien artean dago elkarrekiko zenbait mekanismo baliatzeko aukera, gizarte tradizionaltan oso ohikoak baitira. Azken hauek, gainera, ingurunea ezagutzen dute, esperientziaren ondorioz, eta hori lagungarria zaie ingurunera egokitu eta aniztasunari aurre egiteko. Azken batean, hondamendiak jotako komunitateak ez dira zabar, pasibo eta kanpola-guntzaren erabat menpekotzat hartu behar, baizik eta krisialdiei aurre egiteko aktibo nagusizat, laguntzak haien parte-hartzea kontuan hartu behar duela.

Bestalde, tokian tokiko GKEak edo bestelako erakunde komunitarioak aipatu behar dira, nazioarteko GKE eta agentzien alderdi kontrario ezartzaile gisa jarduten baitute. Horiek sendotzea izaten da baldintzetako bat gizarte zibila eta garapena sustatzeko.

### 1.2. Eraginpeko herrialdeetako gobernuak

Gobernu horiek dute euren populazioari laguntza eman eta haien premiak bermatzeko hasierako obligazioa; hasiera batean behintzat eurek hartu beharko dituzte euren gain premiak aurreikusteko eta laguntzak koordinatzeko eginkizunak. Hala ere, kasu askotan errealitatea bestelakoa da. Alde batetik, herrialde pobreetan, gobernuak ez dituzte baliabide ekonomiko eta tekniko, eta giza baliabide egokiak izaten laguntzako

esku-hartzeen plangintza eta kudeaketa eginkizun horiek betetzeko. Laguntzako nazioarteko agentziek (Nazio Batuen erakundeek, aldi biko agentziek eta GKEek) emandako babesak betetzen ditu hutsune horiek, sarritan dagokion herrialdeko erakunde publikoen gain izaten dutela kontuan izanda, edo haien ordeztzen direla ere kontuan izanda hainbat zerbitzuren plangintzan eta kudeaketan. Bestalde, gobernu askok, batez ere barruko gatazka armatuetan, jarrera arduragabea izaten dute populazio zibilaren sufrimenduarekiko, ez baitiote laguntzen eta ez baitute nazioarteko erakundeek hori egiteko aukera errazten. Are eta okerrago, kasu askotan gobernuak eta euren erakundeak izaten dira krisialdi humanitarioak eragiten dituzten praktiken (populazioaren nahitaezko lekualdatzeak, *garbiketa etnikoak*, eraso armatuak, errepresio politikoa, eta abar) arduradun zuzenak.

### 1.3. Gobernu emaileak eta ECHO

Gobernu bakoitzak nazioarteko laguntzako bere alde biko agentzia du: USAID AEBetan, DFID Erresuma Batuan, Danida Danimarkan, AECI estatu espainolean, eta abar.). Azken hamarkadan behera egin du zuzenean egiten dituzten jardueren bolumenak, eta beren fondo gehienak dagozkien herrialdeetako GKEek bideratzen dituzte, baita Nazio Batuen agentziek ere.

Ikusi dugunez, 90eko hamarkadaren erdialdeaz geroztik emaileek euren kanpo-ekintzaren ikuspegi integratuagoa biltzen dute, eta horrek laguntza humanitarioa eta garapenerako lankidetzak kanpo-politikekin geroz eta gehiago lotu dela esan nahi du, arlo ekonomikoari edo segurtasun-arloari dagokienez. Horrela, laguntza humanitarioa emaileen kanpo-politikaren tresna bihurtu da, eta hori izaten da operatibo nagusia eta ia bakarra zenbait herrialde marjinal eta pisu estrategiko eskasa dutenekin. Lehen gertatzen zenarekin alderatuta, laguntza humanitarioa batez ere neutrala eta baldintzarik gabekoa zenean, orain emaileek irizpide politikoen geroz eta mendeago uzten dute helburu jakinak lortzea (esaterako, giza eskubideen errespetua, merkataritza-zabaltzea eta munduko ekonomian txertatzea, eta abar). Horretaz gain, humanitarioak ez diren irizpideek gidatzen dute laguntza, neurri handi batean, emaileen artean, esate baterako interes ekonomiko eta merkataritza-arlokoak, segurtasun edo lotura historiko-kulturalak, eta krisialdi batzuetarako eta besteetarako baliabideen arteko alde handia izaten da horren adierazgarri.

ECHO, Europako Erkidegoko Gizabidezko Laguntzako Departamentua, da laguntza humanitarioaren munduko emaille nagusia; Europako Batzordearen menpeko erakundea da, 1992an sorturikoa kide ez diren herrialdeetan laguntza humanitarioko programa komunitarioa koordinatu eta kudeatzeko. Sortu zenean, Europar Batasunak laguntza humanitariorako emandako fondoak gehitu ziren unean, arlo horretan zeuden finantzaketa eta jarduera lerroak biltzea, haien eraginkortasuna hobetzea, eta haiei ikuspen politiko eta mediatikoa areagotzea zuen helburutzat. Gainera, bazen interes politiko gehigarri bat; Europar Batasunak gutxi eta berandu egin du aurrera Kanpo eta Segurtasun Politika Komuna (KSPK) ezartzeari dagokionez, eta laguntza humanitarioa izan da bere kanpo-ekintzaren tresna nagusietako bat. Ildo horretan, Europar Batasunerako maila politikoan garrantzitsu diren bi zonalde izan dira ECHOren fondoek hartzaile nagusiak, AKP (Afrika-Karibe eta Pazifikoa) herrialdeak eta Jugoslavia ohia, hain zuzen. Azken honek baliabideen urteko %40 inguru hartu du, 70 AKP herrialde guztientzako baino gehiago. ECHOren gastuak 1994an izan zuen errekorra, Laku Handietako krisialdia zela-eta, 909 milioi dolar; horren ondoren, arian-arian gutxitu egin zen, eta 1999an baino ez zen unean uneko hautsi, Kosovoko krisialdiak eraginda. 2000 eta 2001. urteetan ere beherakadak izan dira, helburuak eta jardun-eremuak berriz beheraka orientatu izanak eraginda.

Laguntza humanitarioari buruzko Europar Batasuneko Kontseiluaren Araudiak, 1996koak, ECHOren jardun-markoa mugatzen duenak, esleitzen dion eginkizun nagusia honakoa da; hondamendi-testuinguruetan bizia zaintzeko oinarrizko premiak betetzea, baita errefuxiatuei eta barne-desplazatuei laguntzea ere. Dena den, larrialdiko eta garapenerako laguntzaren arteko loturaren aldeko jarrera duenez, bere egitekoak zabaldu egin zituen, hondamendi osteko birgaitze-lanak, eta errefuxiatuak eta barne-desplazatuak gizarteratzeari dagozkienak ere barne hartuta. Era berean, hondamendiak prestatu, arindu eta prebenitzeko aukerari ere arreta eskaini dio, esate baterako Hondamendiak Prestatu eta Prebenitzeko Ekintza programa tarteko, DIPECHO izenez ezagunagoa; 1994an sortu zen arlo horietan giza baliabideak eta administrazio-egiturak sortzeko aukerari laguntzeko. Biktimen babesa ere bere gain hartu du, giza baliabideen eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioaren defentsa tarteko, hainbat herrialdetan, esaterako Kosovon edo Afganistanen.

Dena den, 1999an hasitako Europako Batzordearen egituraren erreformaren markoan, azken urteotan ECHO berriz orientatu da bizia salbatu eta hondamendiek kalteak eragin-

dakoei sufrimendua arintzeko oinarritzko helbururantz, gainerako eginkizunak beste departamentuen esku utzita.

ECHOk bere fondo gehienak GKEak (gutzizkoaren erdia baino gehiago), Gurutze Gorria eta Nazio Batuen hainbat agentzia humanitario tarteko bideratzen ditu. Erakunde horiekiko, ia berrehun, harremana *Partenariotza Kontratu Markoa* aldez aurretik sinatu izana tarteko ezarriko da; 1993an ezarri zen mekanismo hori aldez aurretik ezarritako kontratu orokor gisa, proiektuak burutzerakoan bizkortasuna eta eraginkortasuna irabaztearen mesedetan. ECHOk fondoen %10 inguru soilik burutzen du zuzenean, proiektuak jarraitu eta ebaluatzeko baliatuta, baita prestakuntza-jardueretarako ere.

ECHOren beste eginkizun garrantzitsu bat Europako Batzordearen eta bere herrialde kideen arteko laguntza humanitarioko jardueren koordinazioa da, Laguntza Humanitarioko Batzordea tarteko, 1996an sorturiko lankidetzaren eta trukerako foroa.

#### Laguntza humanitario espainolaren azterketa

Hainbat krisialdi gertatu berritan, esaterako «Mitch» urakana, Kosovoko gerra edo Mozambikeko uholdeak, hain ikusgarria izanagatik, lankidetzaren espainolaren tresna enblematikoa bilakatu da laguntza humanitario eta larrialdikoa. AOD espainolaren osagai garrantzitsua deneko irudia zabaldu da, baita kanpo-politikaren ezaugarri bereizgarria ere. Hala ere, azterketa zehatzago batek erakusten digunez, azken hogeitun larrialdiko laguntza ez da sendotu lankidetzaren espainolaren tresna gisa, eta gabezia handiak daude baliabideei, kudeaketari eta lankidetzaren beste osagaiekin artikulatzeari dagokionez, laguntza-mota hau kanpo-politikako helburuen menpe uzteko arrisku nabarmena, eta Indar Armatuak geroz eta gehiago parte hartzearen ondoriozko arazoak.

Diagnostiko bizkor batean, ondoko arazoak nabarmendu litezke:

- a) Larrialdiko laguntzak baliabideen eskasia kronikoa izan du ezaugarritzat. Aurrekontu-esleipen murrizteak, eta baliabide teknikoaren eta langileen gabezia larriek baldintzatu dute etengabe horrelako laguntza. Espainiak bere AODren %2 gutxi gorabehera, eta CADeko kideek, berriz, %7 batez besteko gisa. [...] Baliabiderik ezak bestelako eraginak izan ditu: beste aurrekontu-sailak murriztu izana, portaera gorabeheratsua, parte-hartze oso baxua alde askotariko larrialdiko laguntzan, batez ere ACNUR/ENBGKn, eta bestelako aktoreen ahalmen logistikoaren eta haiek *tokian bertan* egotearen mendeotasuna, esateko baterako GKEak eta Indar Armatuak [...].

Gabealdien egoera honetan, indar handiz agertzen dira Autonomia Erkidegoak, udalak eta GKEak laguntza humanitariarako baliabide-iturri gisa. Azken bi urteotan, lankidetzak deszentralizatuak eta gobernuz kanpoko lankidetzak, biek batera, Gobernu zentralaren lankidetzak baino baliabide gehiago ekarri dute. Modu positiboan baloratu beharreko gertakari honek koordinazio-arazoak planteatzen ditu, hala ere.

Azken bi urteotan trantsizio eta aldaketa etapan sartu gara, eta orduan burutu dira, Erdialdeko Amerikan eta Kosovon, laguntza humanitario espainolaren historiaren operazio handienak. «Mitch» urakanak eragindako elkartasun-korronte sendoak atentzioa eman zion Gobernuari; 1998az geroztik askoz interesatuagoa agertu da gai humanitarioetan, kanpo-ekintzaren ezaugarri adierazgarrietako bat bihurtzen saiatu da, eta kanpo-politikaren eta barne-laguntza politikoa-ren bestelako elementuekin erlazionatzen saiatu da. Praktika horrek, Kosovoko gerran ordura arte ezagutu gabeko mugetara iritsi zela kontuan izanda, politizazio-maila handia eragin du, laguntza humanitario eta larrialdikoaren sinesgarritasuna eta babes publikoa arriskuan jartzeko moduan.

- b) Kudeaketa arazo serioak daude, marko instituzional eta arau-emaile desegokiaren ondoriozkoak. AECIren gaur egungo estatutuak, eta hura administrazio-zuzenbidearen eta Estatuaren Administrazio Orokorrari aplikatu dakizkiokeen kudeaketa-arauen menpe egoteak gastuen kontrol eta burutzapen prozedura oso geldo, zurrun eta alferrikakoak ezartzen ditu, eta hortaz, erabat desegokiak dira prozedura horiek definituzioz kudeaketa bizkor eta malguan oinarritu beharreko laguntza-modalitate baterako. Bestalde, larrialdiko laguntza ondasun eta zerbitzu espainolak erostera lotzen duen idatzi gabeko arauak kostu handiagoak eta atzerapen gehigarriak ekartzen ditu, batez ere aire-garrietatik eratorritakoak.
- c) Ez dago alde zuzenetik definituriko ez jardun-irizpiderik, ez kontingentzia-planik. Operazio bat abiarazi edo ez abiarazteko erabakia Administrazioaren menpe dago, eta hau ere zenbait ausazko faktoreren menpe dago, esaterako komunikabideen presioa, aurrekontu-aukerak, edo uneko kanpo-politikaren kalkuluak [...].
- d) Eredu operazional errektibo eta epe laburrera mugaturikoa, oinarritzat, gehienbat, laguntzako materiala, eta langile medikoak eta babes zibilekoak igortzea duela. Eredu hau, txosten honetan *Herkules Eredua* deitzen zaiola kontuan izanda, aireontzi horiek modu intentsiboan erabiltzen direlako, larrialdien fase kritikora mugatzen da, urrakortasun-arazo estrukturalak alde batera utzita Laguntza baliotsua da –biziak salbatzen dituen, zalantzarik ez– baina ez da betiere eraginkorra izaten, eta garaiz ere ez da beti iristen, bere baldintza propioak direla-eta. Hori bai, eredu hau oso errentagarria



da emailearen *ikusgarritasunari* dagokionez, eta horrek azaltzen du zergatik irauten duen.

- e) *Continuum humanitariorik* ez izatea: larrialdiko laguntza espainolak ez du hondamendiak/garapena zikloaren ikuspegi integratua islatzen, eta epe ertain eta luzeko bestelako jardun-tresnak ere ez ditu integratu. Hondamendiaren edo gatazkaren ondorengo eraikuntza-programa bati ekin zaion lekuetan, esaterako Erdialdeko Amerikan edo Mozambiken, GLFak (Garapenerako Laguntza Fondoak) baliatu dituzte, AODko osagai horretan baitago aurrekontu-aukerarik handiena [...].

Denboraldi horretan nabarmen gehitu da Indar Armaturen parte-hartzea duela gutxi Erdialdeko Amerikan, Kosovon eta Mozambiken izandako operazioetan [...]. ELGaren duela gutxi eginiko azterketa batean erakusten denez, operazio hauetan militarrek inplikatzeko erabakian motibazio politikoak hartzen dira kontuan, eta ez humanitarioak. Motibazioen artean NATO eta MEBen defentsa-doktrina berriak definitzea identifikatu liteke, eta Europar Batasunaren segurtasun eta defentsako politika komuna baieztatzea, guztietan ere esku-hartze humanitarioak armaden egungo eta etorkizuneko eginkizunetako bat dela hartzen baita kontuan. Horri guztiari ondokoa gehitzen zaio kasu espainolean: profesionalizazio-prozesuan dauden Indar Armatuak erakargarriak bihurtzea [...].

Bestalde, –eta Indar Armaturen logistika une jakinetan eta zenbait zirkunstantzian oso baliagarria gerta baliteke ere– bihurtzeko militarrek baliatzea oso eskasa izaten da, eta Indar Armaturek emandako zerbitzuak, segurtasuna alde batera utzita, erakunde zibilek eman ditzakete kostu txikiagoekin, bizkorrago eta eraginkortasun handiagoarekin. Kosovoren kasua adierazgarria da. Gobernuak emandako datuen arabera, Hammallaj-eko errefuxiatu-esparruan, Albanian, zainduriko errefuxiatu bakoitzeko kostua hiru milioi pezeta inguru izan zen zabalik egon zen bi hilabeteetan. Izan ere, operazio hau geratuko da lankidetzaren espainolaren historian izandako garestienetako eta alferrikakoenetako bat bezala.

*Ondokotik harturikoa: SANAHUJA, José Antonio (2000), «La ayuda humanitaria y de emergencia española», ondokoa; INTERMÓN, La realidad de la ayuda 2000/2001, Bartzelona, 88-90 orr.*

#### 1.4. Nazio Batuak

Nazio Batuak dira lankidetzako erakunde alde askotariko nagusia, eta, hortaz, aktore humanitario nagusietako bat: bere agenzia asko ekintza humanitarioan daude inplikaturik,

euren programa propioak tarteko edo fondoak GKEetara bideratuta. Bere estatus unibertsala dela-eta, krisialdi guztiei erantzuten saiatu beharra du NBEk, GKEekin eta laguntzako gobernu-agentziekin gertatzen ez den bezala.

Erakundeak nazioarteko lidertza hartu du ekintza humanitarioarekin loturiko arazo askoren tratamenduari dagokionez, esaterako elikadura-segurtasuna, errefuxiatuak, osasuna, haurren urrakortasuna, langile humanitarioen segurtasuna, prebentzioa eta gatazkak konpontzea, eta abar. Horrela, nazioarteko konferentzia ugari antolatu ditu, etorkizunerako akordioak eta helburuak bideratu ditu, eta agentziak, erakundeak eta programa espezializatuak sortu ditu.

Dena den, NBEk zenbait arazo ditu bere jarduera oztopatzen dutenak, maila humanitarioan zein beste hainbat mailatan. Horien artean nabarmentzen dira, esaterako, osatzen duten Estatu nagusiekiko independentziarik eza; egitura konplexua eta gutxi arrazionala, bere erakunde asko-askoren artean deskoordinazioa eta gainjartzeak eragiten dituela kontuan izanda; baliabide finantzarioen etengabeko eskasia, eta batez ere krisialdi humanitario bakoitzerako zehazki fondoak eskatzeko duen premia; eta baita armada propiorik ez izatea ere, hainbat Estutako tropak mailegatu behar baititu hori dela-eta.

Arazo ekonomikoek, esaterako, premia guztiei aurre egiteko dirurik ezarekin zerikusia izateaz gain, NBEko agentzien finantzaketa-egiturarekin ere badute zerikusia. Izan ere, emaileek laguntza humanitarioari eskaintzen dioten dirutik geroz eta zati txikiagoa (%45 90eko hamarkadaren hasieran, baina %25 1998an) da Nazio Batuen fondo komunerako. Aitzitik, Nazio Batuen agentziek euren finantzatu behar izan dute, bakoitzak gobernu emaileekin negoziatuta berriazko proiektuak eta programak finantzatzeko 90eko hamarkadan ezarritako finantzaketa-sistemaren fruitua da, *agentzia arteko deialdi bateratuetan* oinarriturikoa, hau da, krisialdi jakin bat dela-eta NBEk eskatzaileei eginiko eskaeretan, euren agentzien programak ordaintzeko dauden premien aurreikuspenari jarraiki.

Sistema honen ondorio bat laguntzaren diskrezionalitatea eta inekitatea da, hau da, Nazio Batuek ezin diote krisialdiei dauden premiei jarraiki erantzun, eta laguntza emaileen interesen arabera da handiagoa edo txikiagoa kasu bakoitzean. Beste ondorio bat agentzia batzuk eta besteek deialdi horiek eskatu zutenarekiko jasotakoaren alde handia izan da. Horrela, 1998an, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak (ENBGK) behar zuenaren %76 jaso zuen, UNI-

CEFek gutxi gorabehera %50, Garapenerako Nazio Batuen Programak (GNBP) %40 eta OMEk (Osasunaren Munduko Erakundeak) laurden bat soilik. Horretaz gain, berariazko deialdietarako ekarpenen mendekotasun horrek urtero agentziek erabilgarri izango dituzten fondoak maila handi batean ezin aurreikustea eragin du, eta horrek nabarmen oztopatzen du programazioa, aurrekontuak lantzea eta proiektuak ezartzea.

Hori gorabehera, ukaezina da NBEk ekintza humanitarioaren alorrean eginiko ekarpena. Esate baterako, giza eskubideen kodifikazioaren eta horiek babesteko mekanismoak ezartzearen eragile nagusia izan da. Horretaz gain, 90eko hamarkadaren hasieraz geroztik *bake-operazio* ugari hasi ditu, gatazka armatu edo gatazka armatu osteko testuinguruetan, osagai zibil zein militarrekin, gerra osteko berreraikuntzarako programekin batera. Alor honetan izandako jarduna Bake Programa bat dokumentuan ezarritako printzipio eta helburuek gidatu dute neurri handi batean; 1992an aurkeztu zuen garai hartan erakundeko Idazkari Nagusi Butros Ghalik.

Baina ziur asko, gauzatzen duen ekintza humanitarioaren koordinazio-eginkizunak betetzea da egiten duen ekarpenik garrantzitsuena. Bereziki, 1992an Nazio Batuen Gai Humanitarioen Departamentua (DHA) sortu izana azpimarratu behar da, 1998an Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoak (GHKB) ordezkaturikoa; hondamendi-egoeretan Nazio Batuen agentzien eta bestelako emaileen arteko koordinazioaz arduratzen da, baita adierazitako *agentzia arteko deialdi bateratuak* lantzeaz ere.

Nazio Batuen agentzia nagusiak ekintza humanitarioan
<p>Elikagaien Munduko Programa (EMP)</p> <p>1963an sortu zuten FAOk eta NBEko Batzar Nagusiak; Erroman du egoitza, eta elikagai-laguntzaren banaketa da bere eginkizuna. Horretarako gobernu emaileen ekarpenak ditu, gehienak haien soberakinetik datozen elikagaiak direla, eta neurri txikiagoan, dirua. Elikagai-laguntza alde askotarikoaren %95 inguru banatzen du, eta gainerakoa batez ere UNICEFi eta ENBG-Kri dagokie. Gainera, Nazio Batuen deialdi bateratuen zati handiena (%51 1998an) hartzen duen agentzia dugu.</p> <p>Laguntza ez da herrialde defizitarioetarako emakida tarteko eginiko elikagaien salmentaren bidez gauzatzen (gobernu emailek egiten dute hori zuzenean), baizik eta gizarte-sektore urrako rrenetarantz orientaturiko proiektuak tarteko, pobreziaren eta gosearen aurka borrokatzeko. Hiru motatakoak izaten dira proiektu</p>

hauek: a) hondamendi-egoeretako larrialdikoak, 1998an igorpenen %55 izan zirela kontuan izanda; b) talde urrakorrenen garapen ekonomiko eta sozialekoak, esaterako enplegu publikoko programetarako babes gisa, prestakuntza-ikastaroetarako edo nekazaritza-kooperatibak eratzerakoa; aldi berean, herrialde horien ekonomietan eginiko egokitzapen estrukturalako programek dartzaten kostuak (%28 1998an) konpentsatzeko ere erabiltzen da; eta c) sorospen eta berreskuratze operazio luzeak, luzaroko errefuxiatu eta barne-desplazatuentzako (%17 1998an).

EMP aitzindaria izan da elikagai-laguntzaren bilakaera kualitatiboan, bera izan baitzen lehenengoetako agentzia garapen-helburuei lehentasuna ematen, eta laguntza herrialde pobreetara eta bertako sektore urrakorreetara orientatzen. Bestalde, agentzia honek kudeatzen du Larrialdiko Nazioarteko Elikadura Erreserba (LNEE); ez da erreserba fisikoa, baizik eta emaileen konpromiso-mekanismoa EMPren eskueran elikagaien bolumen jakinak jartzeko, gosetei eta larrialdi-egoerei bizkor erantzun ahal izateko. Baina, egiaz, ekarpenak beraiek zehazten dituzten herrialdeetarako izateko aukerari lotuta egiten dituzten emaileek, euren joera eta interesen arabera. Zirkunstantzia hori eragozpena da EMPk izan beharreko neutraltasun, independentzia eta irizpide orokorrak biltzen dituen kudeaketarako.

#### Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa (ENBGK)

1951n sortu zen eta Genevan du egoitza; haren mandatari-tzak, lehenik, munduko errefuxiatuen nazioarteko babesa du aztergai; eta, bigarrenik, gobernu eta erakunde pribatuentzako laguntza errefuxiatuentzako konponbide iraunkorren bilaketan euren aberriratzea tarteko, edo hori ezin bada, lehen asiloko herrialdean gizarteratzea edo beste herrialde batean finkatzea tarteko. Bere lehentasuneko eginkizunari begira, ENBGKri dagokio errefuxiatuen estatusa definitzen duten nazioarteko arau juridiko nagusien aplikazioa garatu eta gainbegiratzeko erantzukizuna, eta horien artean Errefuxiatuen Estatutuari buruzko 1951ko Nazio Batuen Konbentzioa eta 1967ko haren Protokoloa nabarmentzen dira. Tresna horien zati diren Estatuak ENBGKrekin juridikoki lankidetzan aritzera behartuta daude, agintaldi betetze-ari dagokionez.

Errefuxiatuentzako konponbide iraunkorrak bilatzeari dagokionez, ENBGK bere gain hartu du haientzako laguntza materiala, larrialdiko egoeretan laguntza humanitario urgentea zein egoera luzeetan programa iraunkorrak (finkatzekoak, gizarteratzekoak, prestakuntzakoak eta abar). Laguntza material edo legaleko eginkizun hauek guztiak Estatuak edo GKEek (horietatik 450 baino gehiago agentziaren bazkide operatiboak dira), eta ENBGKk, berriz, gainbegiratze, koordinazio eta laguntza tekniko eginkizunak gauzatzen ditu. Fondo gehienak gobernuen eta gobernu arteko agentzien ekarpenetatik datoz.

90eko hamarkadan barne gatazkak eta nahitaezko migrazioak ugaritu izanak ENBGK bere hasierako mandataritza zabaltzera behartu du; hasiera batean errefuxiatuen babesak bazuen aztergai, orain beste zenbait talderi ere eskaintzen die laguntza tarteka, esaterako barne-desplazatuak, itzultitakoak (etxera itzuli diren errefuxiatuak eta desplazatu ohiak) eta tokian tokiko populazioei, aurreko guztiekin elkarrekin bizi baitira, eta horiek ere laguntza behar dute.

Nazio Batuen deialdi bateratuen fondo gehien jasotzen dituen bigarren agentzia da ENBGK, guztizkoaren laurdena inguru, nahiz eta baliabide falta geroz eta handiagoa duen. Horretaz gain, bere jarduna murriztuta dago, eta haren mandataritza errefuxiatuak babesteko zenbait atzerako joerak ahultzen dute, azken boladan gobernu askorekin gertatzen den bezala; horren adierazgarri dira zenbait praktika, esaterako haiei «aldi baterako babesak» ematea asilo iraunkorra eman beharrean, segurtasun zonaldeak sortzea gatazkan dauden herrialdeetan populazioaren irteera gutxitzeko, edo jatorrizko herrialdeetarako aberriratzeko eragindakoa eta nahitaezkoa.

#### Haurrentzako Nazio Batuen Fondoak (UNICEF)

1946an sortu zuen Batzar Nagusiak aldi baterako larrialdiko laguntzak koordinatzeko gerrak suntsituriko Europako eta Txinako haurrentzako, egoitza nagusia New York-en duela. 1953an zabaldu zen haren mandataritza, mugagabe, haurren eskubideen alde borrokatzeko, bere oinarritzko premiak betetzeko aukera babesteko eta bere potentzial guztia garatu ahal izateko aukera areagotzeko. Dena den, euren lana herrialde pobreetako premia handiena duten haurretara bideratzen da, baina baita haien ametara ere, haien ongizatearen bermatzaile nagusiak baitira.

Euren jardun-arloen artean haurren eskubideen defentsa eta sustapena nabarmentzen da, batez ere arloko tresna juridiko nagusian babestuta, 1989an Batzar Nagusiak onarturiko Haurren Eskubideari buruzko Konbentzioan. Orduz geroztik Konbentzio hori berresteko eta betetzeko lan egiten du, eta bere eskubideak nazioarteko jarrera-arauak bihurtu daitezke. Haurtzararen Munduko Gailurra, 1990ean New York-en eginikoa, pauso handia izan zen bide horretan. Baina, horretaz gain, UNICEFek beste alorretan ere burutzen ditu programak, esaterako hezkuntza, nutrizioa (ama-haurrentzako elikaduraren sustapena, nutrizio-prestakuntza), osasuna (edateko urerako aukera, gaixotasun diarrikoen aurkako kanpainak, haur-gaixotasun nagusien txertatze-kanpaina), errefuxiatu eta barne-desplazatuak laguntza (ENBGKren lankidetzarekin), edo laguntza humanitarioa hondamendia izanez gero. Haurrentzako zonalde lagunak deituriko ekimena ere nabarmendu behar da; gatazkan dauden alderdiekin izandako alde aurreko negoziazioa tarteko hainbat neurri ezartzen dira –esaterako, bake-korridoreak, su-eteneko

egunak, edo antzekoak-, segurtasun-guneak ezartzeko moduan, bertan haurrentzako oinarritzko laguntza bermatu ahal izateko.

#### Osasunaren Munduko Erakundea (OME)

1946an sortu zen eta Genevan du egoitza; osasunaren alorrean munduko ahaleginak gidatzen dituen agentzia dugu. Nazioarteko lan sanitarioa zuzendu eta koordinatzen du, 90eko hamarkadan lan horren zati bat Munduko Bankuak ere burutu duela kontuan izanda. OMEk osasun eta nutrizio arauak eta estandarrak ezartzen ditu, lankidetzak teknikoak eskaintzen ditu osasun-sistema nazionalak indartzeko, eta gaixotasunak kontrolatu eta kentzeko programak sustatzen ditu (esate baterako tropikalak eta Hirugarren Munduan ohikoak diren beste zenbait), eta abar. OMEk eginkizun operatiborik ez duenez, larrialdiko egoeretan izaten duen eginkizuna ez da beste agentziena bezain ikusgarria, eta hori eskatzen duten gobernuei laguntza teknikoak ematea izaten du ardura.

#### Gai Humanitarioen Koordinazio Bulegoa (GHKB)

1998an sortu zen Gai Humanitarioen Departamentua (GHD, ingelesez DHA) ordezkatzeko; 1992an sortu zuten hura Nazio Batuen agentziak eta laguntza humanitarioan jarduten zuten nazioarteko bestelako erakundeak koordinatzeko. New Yorken duen bulegotik, bi eginkizun betetzen ditu GHKBk, ingelesez dituen siglak tarteko ere, OCHA, ezaguturikoak. Alde batetik, politika humanitarioak landu eta koordinatzen ditu, normalen erakunde humanitarioen mandataritzetan biltzen ez diren alderdiak barne hartuta, esaterako barne-desplazatuak babesa eta laguntza. Bestalde, lotura-lanak betetzen ditu Nazio Batuen Sistemarekin, eta bitartekaritza-lanak bere gain hartzen ditu gai humanitarioak defendatzeko Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluan eta haren bestelako erakunde politikoetan. Aldi berean, Genevako egoitzak bere gain hartzen du operazio humanitarioen koordinazioa erantzun bizkor eta azkarra emateko, eta horretako bere Agentzien Arteko Batzorde Iraunkorra du (IASC), adibidez; kontsulta-organoa, Nazio Batuen agentzia espezializatuek, Gurutze Gorriak eta GKEen hainbat partzuergok osaturikoa.

Horretaz gain, GHKB arduratzen da, IASCREn beste erakundeekin lankidetzan, agentzien arteko deialdi bateratuak lantzeaz, edo nazioarteko komunitateari eginiko fondo-eskaerak krisialdi humanitarioei erantzuteko. Gatazka-zonaldeetan, diplomazia humanitarioaren lanak betetzen ditu zenbait kasutan erakunde humanitarioek biktimengana heltzeko aukera negoziatzeko, baita bere langileen babesa bermatzeko ere. Gainera, Larrialdietarako Txandakako Fondo Zentrala ere badu, hura tarteko krisialdietarako erantzuna bizkor finantzatzeko. Era berean, alerta goiztiarreko sistemaren eginkizunak ere betetzen ditu, hau da, informazioa biltzen du krisialdi humanitarioak sortzen

ari direla ohartzeko, Reliefweb ere aldi berean kudeatuta, gaiari buruz informazio ugari duen Interneteko gunea.

GHKBk mandataritza garrantzitsua du, eta hura sortu izana, edo GHD aldez aurretik, aurrerapauso handia izan zen sistema humanitarioaren koordinazioari dagokionez. Hala ere, ez du nahikoa baliabide, ezta Nazio Batuetan nahikoa aginte eta botere ere, eraginkortasunez baliatu ahal izateko. Eragiteko ahalmenik ez hori New Yorkeko eta Genevako bulegoen artean lana banatzeari zor zaio neurri handi batean. Horretaz gain, euren koordinazio-ahalegin guztiek GKEek jarduteko euren independentzia galtzeko duten beldurra gainditu behar dute batzuetan, baita Nazio Batuen agentzia operatiboena ere, euren mandataritzen berezitasunak ematen dien autonomiari eutsi nahi izaten baitiote.

### 1.5. Nazioarteko GKEak

Iparraldeko herrialdeetako GKEek, 80ko hamarkadatik hasita, geroz eta zeresan handiagoa dute laguntza humanitarioan, garapenerako lankidetzaren kasuan baino are gehiago. Aktore erabakigarri bihurtu dira; proiektuak tokian bertan burutzen dituzte zuzenean, edo zeharkako tokiko erakundeak edo instituzioak tarteko. Horretarako euren fondo propioak dituzte, krisialdi jakinei erantzuteko abiatutako kanpainak tarteko bildurikoak neurri handi batean, gobernu emaileek edo Nazio Batuen agentziek horniturikoak (batez ere EMPk eta ENBGKk).

Gaur egun, ia gobernu gehienek euren laguntzaren laurdenetik gora ematen diete GKEei, kopuru horrek herrialde gehienetan gora egin duela kontuan izanda. Gorakada hori bereziki aipagarria izan da ECHOren kasuan; izan ere, 90eko hamarkadaren erdialdean aurrekontuaren %45 jasotzen zuten, eta 1999an, berriz, %60 kudeatzen zuten. Era berean, Ipar Amerikako USAID agentziaren laguntza humanitarioaren hiru laurden GKEak tarteko bideratzen zen.

GKEen egungo sareen artean, *VOICE (Voluntary Organizations for Cooperation and Development)* deiturikoa azpimarratu behar da; larrialdiko laguntzan aktiboak diren erakundeak koordinatzen ditu, betiere Europar Batasunean kokaturikoak izaki, edo ECHOrekin Partenariotza Kontratu Markoa sinatuta badute. 1992an sortua, jarduerak laguntza larrialdikoa eta humanitarioa dute aztergai, birgaitzea, hondamendiak direla-eta prestatzea eta horiek prebenitzea.

Elkarrizketako foroaren, informazio-trukearen eta GKEen arteko koordinazioaren lanak betetzen ditu VOICEk, baita horien hizketakide-lanak ere Europar Batasunarekiko.

GKEen zeregina areagotu egin da, 80ko hamarkadaz geroztik emaleek laguntzaren pribatizaziorako izan duten joraren ondorioz. Hau da, geroz eta gehiago jotzen dute GKEengana fondo-bideratzaile gisa, eta gobernutik gobernurako lankidetzak, berriz, behera egiten du, horrek emaleen lankidetzako gobernu-agentzien kudeaketa-kostuak murriztea ahalbidetzen duela kontuan hartuta. Horretaz gain, herrialde hartzaileetako gobernuak saihestea ahalbidetu die horrek emaleei, esaterako Afrikako zenbait herrialderen kasuan, haien ezintasuna edo ustelkeria aitzakiatzat hartuta. GKEen jardun-eremua zabaldu duen bigarren zirkunstantzia bat zera izan da; Hirugarren Munduko Estatu askoren ahultze-prozesua, baita kolapsoa ere, pobretuak eta indarkeriak zati-katuta geratu baitira, eta beraiek eman ezin dituzten oinarritzko zerbitzu asko atzerriko GKEek hartu dituzte euren gain. Zenbait gatazka-testuingurutan, GKEak eta agentzia humanitarioak biktimgana iritsi eta haiei lagundu izana gobernuaren edo talde matxinatuen baimenik gabe gertatu izan da, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak arrazoi humanitarioak tarteko jardutea baimendu duenean, sarritan erakunde horrek zabalduko tropen babesarekin.

Euren ezaugarriak, tamaina eta mandataritza kontuan hartuta GKEak oso desberdinak izan badaitezke ere, zenbait abantaila dituztela esaten da oro har, horien artean ondokoak nabarmenduta: bizkor eta malgutasunez jarduteko ahalmena, independentzia politikoa, arazoan zuzeneko ezagutza, tokiko erakunde eta komunitateekin dituzten harremanak, eta urrakorregana, eta arrazoi politiko eta diplomatikoak tarteko gobernu emaleen agentziak iritsi ezin izango liratekeen lekuetara iristeko ahalmena (batez ere gatazka armatuko testuinguruetan). Horretaz gain, zonalde urrakorretan duten presentzia eta tokiko baldintzei buruz duten ezagutza tarteko, funtsezko elementua dira datu-bilketari dagokionez, krisialdi humanitarioak sortzeko aukerari buruz bizkor ohartarazteko moduan, baita horiei erantzun bizkorra emateko ere.

Hala ere, GKEek eta euren eginkizunek ere izan dituzte hainbat kritika. Zenbait autoreren arabera, 80ko hamarkadaz geroztik benefizientzia-sistema internazionalizatu eta pribatizatzeke tresna bihurtu dira hainbat herrialdetan, beraiek baitute gobernuak eskaini ezin dituzten oinarritzko zerbitzuek eskaintzeko ardura. Atzerriko zenbait GKEk tokiko administrazioak berak baino baliabide gehiago eduki ditza-



kete; eragin politikorako ahalmen handia ematen die horrek, eta hori negatiboa izan liteke kontuak eman behar dituzte-nean, gehiago herrialde publikoko gobernuari edo iritzi publikoari tokiko populazio edo agintariei baino. Sarritan, gobernu emaileek nahiago izaten dute euren laguntza mendebaldeko GKEak tarteko bideratzea, eraginkortasuna hobetu eta desbideratze ustelak saihesteko. Hala eta guztiz ere, dauden sistema estatalekiko paraleloak diren laguntza eta zerbitzuak banatzeko sistemak sortzea eragiten du horrek, 80ko hamarkadan Mozambiken gertatu bezala. Horrela jokatzeko moduak ez ditu tokiko ahalmenak sendotzen (informazioa biltzeari, plangintzari, koordinazioari eta abarri dagokionez); aitzitik, ahuldu egin ditzake, eta Estatuaren irudia eta bere populazioaren aurrean harturiko konpromisoa ere gainbeheratu dezake. Azken batean, sarritan bi mailatako sistema noranzko bakarrekoa osatzen da, finantzatzen duten emaileak eta burutzen duten GKEak bilduta, eta sarritan saihesten ditu gobernu nazionalak, horien programak eta horien koordinazio-organoak.

Horretaz gain, geroz eta kezka handiagoa da GKEak, edo horietako zenbait, ez ote diren bihurtzen ari gobernu-entzuen laguntza-politiken betearazle, kostu baxuan; horiek ematen dizkiete fondo gehienak, baina lehentasuneko zonaldeak, helburuak eta irizpideak ere mugatzen dizkiete. Horrek euren independentzia eta gaitasun kritikoa nolabait galtzea ere eragin dezake, eta hori dela-eta zenbaitek *quango* (*quasi non governmental organizations*) deitzen diete. Azpikontratazio-mekanismo horrek fondo publikoak direla eta GKEen arteko lehiakortasuna areagotu dezake, baita irudi publikoa, marketinga eta lanaren estaldura mediaktikoa gehiegi kontuan hartzea ere, eta hori dela-eta arreta publiko eta mediatiko handiagoa duten krisialdietarako joera izan dezakete. Baina, batez ere, bere *erantzukizunaren* edo *kontu-ematearen* (*accountability*) arazoa planteatzen du, oro har gehiago baitago orientatuta jatorrizko herrialdeetako emaile eta iritzi publikoetara lan egiten deneko herrialdeetako populazio eta gobernuetara baino.

Beste arazo bat sektore humanitarioak zenbaitetan duen profesionalizazio eskasa da, neurri batean erbesteraturiko langile humanitarioen txandakatze handia dela-eta, sarritan gazteak, prestakuntza eskasekoak eta lan-egonkortasun gutxiak baitira.

Hitz batean, GKEek lan-karga handiagoa hartu behar izan dute euren gain, erantzukizun gehiagorekin batera (esaterako, ez soilik laguntza materiala, baita babesa eta

giza eskubideak ere), eta bestelako aktoreekin ere lan egin behar izan dute, militarrek edo tokiko gizarte zibila esaterako, eta horrek euren ohiko eginkizunak aldatu egin ditu. Horrek gehiago jarri ditu kritiken eraginpean, eta barne-gogoetako zenbait prozesu ere piztu ditu.

#### 1.6. Gurutze Gorria

Bere garrantzia eta beste erakundeekiko dituen ezaugarri bereziak direla-eta, aparteko aipamena merezi du Gurutze Gorriak. Erakunde honek eragin erabakigarria izan du ekintza humanitarioaren sorreran eta bilakaeran, hura eragiten duten printzipio humanitarioenean, baita gatazka-egoeretarako Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioarenean ere (ikus 3 eta 6. kapituluak). Izan ere, haren sorrera, XIX. mendeko erdialdean, ekintza humanitarioaren sorrerarekin identifikatzen da. 1994ko Laguntza Humanitariorako Jokabide Kodearen sustatzaile gisa izandako papera ere azpimarratu liteke (ikus 3.2 puntua, kapitulu honetan).

Dena den, Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimenduaren izendapenak hiru erakunde bilzen ditu, bakoitzak bere berezitasunak dituela:

- a) Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea (GGNB). Mugimenduaren erakunde zaharrena, haren inspiratzailea izan baitzen. Erakunde humanitario suitzarra da; herritar suitzarrek osatzen dute eta Genevan du egoitza. Bere ezaugarri nagusia zera da, Genevako Hitzarmenek horiek betetzen direla gainbegiratzeko erantzukizuna ematen diotela. Erantzukizun hori dela-eta, ez da propio GKE bat; nazioarteko legezko estatusa du, eta horrek zenbait pribilegio eta immunitate ematen dizkio, baita bere langileei estatus diplomatikoa ere. Eginkizun horretaz gain, gatazka armatuetako biktimei laguntza ematen die eta haiak babesten ditu Genevako Hitzarmenei jarraiki. Mugimenduaren laguntza-ekintzak ere koordinatzen ditu gatazka armatuko testuinguruetan.
- b) Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Sozietate Nazionalak. 176 erakundek osaturiko taldea dira, eta herrialde bakoitzean agintari publikoen laguntzaile gisa jarduten dute alor humanitarioan, borondatezko zerbitzu-sorta zabala emanez: laguntza katastrofe naturaletan, programa sanitarioak, talde urrakorrenzako laguntza, sorospen eta erreskate jarduerak, eta abar.

Gerran, biktimei ematen dieten sorospena GGNBk koordinatzen du.

- c) Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Sozietateen Nazioarteko Federazioa. 1919an sortua, Sozietate Nazionalak euren jardueretan babesteko eta hondamendietan euren laguntza-operazioak koordinatzeko (atentzio medikoa, elikagai-laguntza, laguntza-esparruen kudeaketa, eta abar) nazioarteko erakundea da.

### 1.7. Komunikabideak eta iritzi publikoa

90eko hamarkadan, komunikabideen globalizazioak eta zenbait krisialdiren (esaterako, Somaliako gosetea, edo Ruandako genozidioa eta exodo masiboa) estaldura denbora errealean egin izanak sistema humanitarioan eragin handia duen aktore bihurtu ditu komunikabideak. Izan ere, krisialdi humanitarioei buruzko mendebaldeko iritzi publikoaren pertzepzioa moldatu egiten dute komunikabideek, aktoreek nola, noiz eta non erantzuten duteneko aukeran eraginez.

Komunikabideen, gobernu emaileen eta GKEen arteko elkar eragina aipatzen da, bakoitzak helburu jakinak baititu, hau da, audientzia, legitimitate politikoa eta euren interesen defentsa, hurrenez hurren, baita babes sozial eta fondoak ere. Baina komunikabideek aktoreengan duten eragina eta hondamendiei emandako erantzuna zenbateraino muga dezaketen eztabaidatzen da.

Askok defendatzen duten iritziaren arabera, eta onarpen-maila handia izan duela kontuan hartuta, albiste diren hondamendietan soilik jarduten du nazioarteko komunitateak: komunikabideek hura estaltzeak iritzi publikoaren mobilizazioa eragiten du, eta horrek jarduteko beharrezkoa den estimulu politikoa ekartzen du; haiei buruz informaziorik ematen ez den krisialdiak, ordea, ahaztu egiten dira. *CNN efektua* eman zaio izena fenomeno horri, eta horren arabera komunikabide handiak laguntza humanitarioaren aktore garrantzitsu bilakatu dira, gobernuak, agentzien eta GKEen agendak baldintzatzeko ahalmen handia baitute. Horren adierazgarri, gauza jakina da BBCK eta NBCK 1984an Etiopiako goseteari buruz emandako erreportajeek eragin zutela laguntza humanitarioaren hasiera, nahiz eta nazioarteko komunitateak zenbait hilabete lehenago bazuen jada krisialdiari buruzko informazioa.

Dena den, azken urteotan zenbait kazetari eta autorek CNN efektu hori existitzen ote den zalantzan jarri dute. Euren

iritziz, ez dago kausa-efektu erlazio zuzenik gerra baten telebista-estalduraren eta gobernuen kanpo-politikaren erantzunaren artean. Esaten dutenez, *interes nazionalek* (ekonomikoak, geopolitikoak, eta abar) markatzen dute egiaz emailen agenda politikoa, eta 1994an Txetxeniarren aurkako errusiarren bonbardaketek nazioarteko ekintzarik ez eragin izana da horren adierazgarri. Aitzitik, mendebaldeko potentziek esku hartu zuten, ordea, estaldura mediatiko handirik ez izaki baina interes nazionalak jokoan zeuden beste zenbait kasutan.

Amaitzeko, zera esan dezakegu; ziur asko ez dago erlazio mekanikorik estaldura mediatikoaren eta erantzun politikoaren artean, eta arrazoi estrategikoek pisu handiagoa izan dezakete Estatuaren jardunean iritzi publikoaren sentsibilizazioak baino. Dena den, CNN efektuak ziur asko badu eraginik gobernuak zer egin zalantza dutenean, edo esku hartzeko kostua erlatiboki baxua bada. Hala dirudi, ziur asko pisu handiagoa baitute interes geopolitiko esanguratsuak ez dituzten gatazketan, edo katastrofe naturalek eragindako hondamendietan.

Bestalde, komunikabideek aktoreengan eragina badute ere, alderantziz ere gerta liteke. Gobernuak erabili egiten dituzte emozioak piztu eta interesak jokoan daudenen haiekin euren esku-hartzea legitimatzeko (Golkoko Gerra), asmo onak erakusteko, erretorika humanitarioak beharrezko neurri politikoak ordezkatzeko moduan. Horren antzera, GKEek eta bestelako agentzia humanitarioek komunikabideekin harremanak izaten ikasi dute krisialdi humanitarioei publizitatea eman eta CNN efektua suspertzeko, baina baita ere lana ikusgarri egiteko, eta babes publikoa eta finantzaketa lortzeko.

Bestalde, komunikabideak erreminta oso baliagarria izan litezke hainbat alorretako ekintza humanitariorako, hondamendietako biktimei informazioa emateari, kanpainak zabalteari (pertsonek aurkako minak direla-eta izandako autobabeseko neurriei buruzkoa, esaterako) giza eskubideak defendatzeari, presio politikoa egiteari eta bakearen eraikuntza bultzatzeari begira. Zenbaitek esaten dutenez, gatazken prebentziorako ere lagungarriak izan litezke, izan ere krisialdi-egoera bat eta haren kausak ezagutaraztean, batzuetan esku-hartze goiztiarra eta egokia suspertzeko. Gatazka batean elkarren aurka aritutako taldeen adiskidetze eta elkar bizitzarako ere lagungarriak izan litezke, birgaitze-prozesurako ekarpena egiteko moduan, egiazkotasunez eta inpartzialtasunez informatuta, alderdiak elkar ezagutzeko aukera ahalbidetuta, eta estereotipoak eta aurreiritziei aurka eginda.

## 1.8. Armadak

Indar militarrek, Nazio Batuen edo beste zenbait erakunderen, esaterako NATO, banderapean (Kosovoren kasuan), geroz eta indar handiagoa dute 90eko hamarkadaren hasieratik gatazka edo gatazka osteko testuinguruetan, betiere horietan laguntza humanitarioaren zati handi bat garatzen bada, batez ere bakea ezarri, mantendu edo inposatzeko operazioei dagokienez. Horrela, agentzia humanitarioek harremanak hasten dituzte jarduten duten lekuan zabalduko tropekin, zenbait akordio ezarrita hainbat punturi dagokionez: garraiorako logistika eta laguntzaren banaketa, laguntzaren eskolta eta babesa, azpiegituren eraikuntza edo langile humanitarioen segurtasuna. Eginkizun hauek izan dezaketen erabilgarritasuna gorabehera, kontingente militarrek aktore humanitariotzat ezin direla hartu azpimarratu behar da, ezaugarri duten hertsadura bateraezina baita laguntza humanitarioak ezaugarri dituen printzipioekin, esaterako neutraltasuna, inpartzialtasuna edo independentzia.

Militarrak erabiltzeko justifikazioen artean bitartekoak baliatzeko aukera, antolamendua eta eraginkortasuna, eta gatazka-testuinguruetan babes armatua izateko premia aipatzen dira. Hala ere, zenbaitek ohartarazten dutenez, erakunde zibilena baino garesti eta eraginik gabekoagoa izaten da armaden jarduna, ez baitute kualifikazio teknikorik izaten gai humanitarioei dagokienez, ezta errealitatearen ezagutza egokirik ere; euren presentziak langile humanitarioak oztopatu eta arriskuan jarri ditzake, populazio zibilak edo gatazkan dauden alderdiek atzerriko tropekin identifika baititzakete, batez ere haien nazionalitate berekoak badira. Illo horretan, laguntza humanitarioaren nolabaiteko *militarizazioa* aipatzen da, eta mendebaldeko armadek (neurrigabe) erabiltzen dutela *humanitario* kontzeptua euren irudia hobetzeko eta modu selektiboan esku-hartze militarrek justifikatzeko (zenbait tokitan bai, baina beste batzuetan ez), funtsean irizpide geopolitikoei edo segurtasun-arlokoiei erantzuten dietela kontuan izanda. Era berean, bilakaera hau NATOren doktrina berriarekin eta EBren segurtasun eta defentsa politikarekin du zerikusia, horietan esku-hartze humanitarioak armaden etorkizuneko etorkizun nagusietako bat bezala biltzen baita. Zenbaitek Kosovoko *gerra humanitaria* deiturikoa izan liteke joera horren adierazgarri nagusia. Laguntzaren militarizazioaren beste zenbait adibide berri Afganistango eta Irakeko okupazioetan gertatzen ari dira.

## 2. LAGUNTZA-FONDOEN JOERAK: BOLUMENA, EMAILEAK ETA DESTINOAK


### 2.1. Bolumena

Laguntza humanitariorako bolumena handitu egin da azken bi hamarkadetan, unean uneko gorakadak tarteko, ondoren geldialdiak izan badituzte ere. Hazkunde-une horiek eta krisialdi humanitario handiak une berean gertatu dira, esate baterako 1985 eta Sudan eta Etiopiako goseteak, 1994 eta Jugoslavia ohi eta Ruandako krisialdiak. Horrela 70eko hamarkadaren zati handi batean eta 80ko hamarkadako lehen erdian destinaturiko diru-kopurua urtean 500 milioi dolar izan bazen, 1985ean 1.000 milioira bikoiztu zen, eta diru-kopuru horrek 1991 arte iraun zuen. Urte horretan, Gerra Hotza amaitu eta ondorioz gatazka armatuko testuinguruetakoa krisialdiei nazioarteko erantzuna emateko ahalmena areagotu egin zenez, urteko kopurua luze bikoiztu zen, eta arian-arian gorakada izan zuen 1991n errekor historikora iritsi arte, 5.700 milioi dolar. Ondorengo urteetan beherakada izan zen. Hala ere, Kosovoko krisialdiak laguntza handitu egin zuen 1998an, eta are gehiago 1999an, urte horretan 1.000 milioi dolar baino gehiagotan gainditu baitzen 1994ko zifra.

Azken batean, 90eko hamarkadako azken urteetan finantza-zaketaren batez bestekoa 80ko hamarkadako amaierakoaren bikoitza izan dela esan genezake, 70eko hamarkadako baino lau bider handiagoa. 80ko hamarkadaren amaieran Garapenerako Laguntza Ofiziala laguntza humanitarioaren %4 bazen soilik, 90eko hamarkadaren bigarren erdian haren %8 izan zen, eta 1999an, berriz, %12.

Datu hauek ikusita, askok laguntza humanitarioari egotzi diote epe luzerako garapenerako lankidetzari baliabideak kendu izanaren errua. Egia esan, laguntza humanitarioa krisialdi handiak bultzatuta hasi dela kontuan izanda, ego-kiagoa dirudi pentsatzea hobeto eutsi diola, mobilizazio mediatikoa eta herritar-arlokoa tarteko, emaileek aurrekontu-aurrezterako eta pobreziaren aurkako borrokaren aldeko konpromiso politikoa murrizteko duten joerari.

### Alde biko laguntzaren bolumena



*Oharra:* laguntza humanitarioaren bilakaeraren adierazgarri da grafiko hau, baina haren zati bat baino ez du islatzen (gubernuen alde biko), alde askotarikoa kanpoan utzita (Nazio Batuen eta Europako Batzordearena), baita GKEena ere.

*Iturriak:* IASC (2000), *Global humanitarian assistance 2000*, Inter-Agency Standing Committee, OCHA, Geneva; eta OECD (2001), *Development Co-operation 2001 Report*, Development Assistance Committee, OECD Publications, Paris.

Bestalde, herrialde garatuaren aberastasunarekiko neurtuta, laguntza humanitaria egiaz xumea izan da eta behera egin du 90eko hamarkadan. Izan ere, ELGAko herrialdeen per capita BPGk %30eko gorakada izan duenez, haren %0'03 eta %0'02 bitartean behera egin du laguntza humanitarioak, hau da, 1.000 dolar bakoitzeko 20 zentimo besterik ez. Batez besteko gisa, herrialde horietako herritar bakoitzak urtean 5 dolarreko ekarpena egin du helburu horretarako hamarkada horretan.

Bestalde, laguntza humanitarioaren fondoak handitu izana zehaztu egin behar da, horietako zati bat lehen beste aurrekontu-sailekin ordaindutako jardueretarako bideratzen hasi baita. Izan ere, 1992az geroztik, ELGAren GLBk (Garapenerako Laguntza Batzordea) euren egonaldiaren lehenengo urtean bertan bizi diren errefuxiatu eta asilo-eskatzaileentzako gastua herrialde emaitzek laguntza humanitario bezala zenbatzea onartzen du. Herrialde askok jarraibide hori hartzen dute kontuan, eta 1998an ia 1.000 milioi dolar ziren kontzeptu

horretarako, alde biko laguntzaren heren batetik gorakoaren baliokidea. GKEek praktika hau kritikatu egin dute, laguntza humanitarioaren fondo eskasen desbideratzea ekartzen baitu, eta oso talde murrizari ordaintzeko gainera. 1997an emaleek 647 milioi dolar baliatu zituzten 400.000 asilo-bilatzaileentzako soilik, eta, 341 milioi besterik ez ziren baliatu diru-sarrera baxuko herrialdeetako 3'7 milioi errefuxiatuentzako.

## 2.2. Emaileak

Laguntza humanitarioak kontzentrazio-maila handia du jatorriari dagokionez. Izan ere, adibidez, 1998ko alde biko laguntza humanitarioaren %90 hamar herrialde emaletatik zetorren soilik; lehenengo bostek (AEB, Herbehereak, Norvegia, Suedia eta Erresuma Batua) guztizkoaren bi heren jarri zuten, eta AEBek bakarrik %30.

Emaleek euren aurrekontuetan laguntza humanitarioari ematen dioten garrantzi desberdina oso puntu interesgarria da. Garapenerako Laguntza Ofizialaren emaile nagusietako batzuek, Japoniak eta Frantziak zehazki, euren GLOren portzentaje txikia bideratzen dute laguntza humanitoria, %2 baino gutxiago, nahiz eta hori Nazio Batuen agentziei eginiko ekarpen handiarekin konpentsatu litekeen, lehenengoarekin gertatzen den bezala. Zenbait herrialdek, ordea, Suediak eta Norvegiak esaterako, euren alde biko GLOren %20 dute gutxi gorabehera laguntza humanitoriarako, eta horri Nazio Batuen zergadun handiak direla ere gehitu behar zaio.

Joera berri esanguratsuenetako bat, Garapenerako Laguntza Ofizial osoa ere eraginpean hartzen duena, alde biko laguntza humanitoria areagotzea da, hau da, gobernu emaileak zuzenean kudeaturikoa, eta aldi berean alde askotarikoa gutxitzea, Nazio Batuen agentziek bideraturikoa. 1988 eta 1998. urte bitartean, alde biko laguntza humanitarioaren guztizkoa %50etik %60ra igo da, eta alde askotarikoa, berriz, %47tik %27ra jaitsi da. Agentziek larrialdiei erantzuteko baliatzen dituzten fondoetako zati handia da NBERen *deialdi bateratuei* erantzunez gobernu emaileek eginiko ekarpenetatik datoz. Dena den, gobernu horiek euren eskuzabaltasun-maila gutxitu egin dute deialdi horiek direla-eta, eta 1994an errekerimenduen %80tik gora eman bazuten, 1999an eskaturikoaren %64ari erantzun zioten soilik. Horrek 1.960 milioi dolarretik 1.400 milioi dollarrera jaitea ekarri zuen. Bestela esanda, laguntzaren baliabideak betiere



eskasak izan badira premiekiko, azken urte hauetan desfase horrek areagotzeko joera du. Ondorioz, zenbait agentziak, esaterako Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioak (ENBGK) eta Elikagaien Munduko Programak (EMP), beherakada nabaria izan dute 90eko hamarkadako bigarren erdian.

Alde askotariko agentziak, baita GKEak ere, modu negatiboan eraginpean hartzen dituen beste joera bat, emaileek ematen dizkieten fondoak arian-arian handitzea da, zonalde, jarduera edo talde berezientzako erabiltzeko baldintzapean. Krisialdi jakinei erantzuteko Nazio Batuen deialdi bateratuen sistema joera horren mesedetan da. Berariazko herrialde baterako esleipena erroturiko praktika bada, azken urteotan esleituriko fondoak hazkundera nabaritu da, betiere berariazko jarduera edo programetarako erabiltzeko erreserbekin, eta 1997 eta 1999 bitartean bakarrik izandako gorakada bi herenekoa izan zen. Euren aurrekontu orokorrerako Nazio Batuen agentziek jasotzen duten dirua gutxitu dela dakar horrek (90eko hamarkadaren hasieran %45 zen eta 1998an, berriz, %25), eta hori da, hain zuzen, lehenetsi nahi dituzten premietarako libreki kudeatu dezaketena. Berariazko esleipenen joera horrek hainbat arazo pizten ditu:

- Agentziek baliabide egonkor, aurreikusteko moduko, gutxiago dituzte, haiekin euren jardueren plangintza egiteko eta larrialdiei erantzuteko premia-irizpideari jarraiki, eta ez emaileen baldintzei jarraiki. Lanaren kalitatea hartzen du horrek eraginpean, eta mendekotasun handiagoa dakar emaileek ezartzen dituzten irizpideekiko.
- Zatikitzea gertatzen da krisialdiei eman beharreko erantzunean, eta horrek agentziei jardun-lehentasan irizpide orokorrak tarteko ezartzea eragozten die. Emaileek herrialde edo jarduera jakinak soilik finantzatzeko duten joera kontuan izanda, alde askotariko agentziek zailtasunak dituzte programatu eta ikuspegi integratu eta sektore askotarikoarekin jarduteko, euren finantzaketa eta administrazioa bana-banako proiektu ugaritan zatikatuta geratzen baita.
- Joera laguntza material zuzeneko proiektuak eta epe laburrerako bestelako jarduerak lehenestea da, betiere ikusgarriak badira. Laguntzaren kalitaterako eta garrantzia sustatzeko garrantzitsuak diren jarduerak, esaterako hondamendiak direla-eta beharrezkoak diren kudeaketa, prestakuntza eta prestaketa, gutxitan izan dira aukera horretan, eta azpifinantzatuta geratzen dira.

- Administrazio-karga handiagoak sortzen ditu eta burokrazia eragiten du, fondoak proiektu berezi gisa kudeatu eta emaileei kontuak emateko bana-banako txostenak igortzera behartzen baitu.
- Malgutasuna gutxitzen du laguntza baliatzeko aukeran, eta zenbaitetan emaileei aurreikusitako leku, xede edo proiektuan zehatz-mehatz gastatu ezin izan den dirua bueltatzera ere behartzen du, hurbileko lekuetara eta antzeko ekintzetara bideratzea posible izanda.

Azken batean, 90eko hamarkadan izandako joera aipagarri bat ondokoa izan da; laguntza humanitarioaren kudeaketa geroz eta zatikatuagoa da, koordinazio eta integrazio handiagoa defendatzen zuten proposamenak eta horretarako erakundeak sortu izana gorabehera, esaterako Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoa. Nazioarteko laguntzaren kudeaketaren zatikatzea areagotu izana, gobernuen pisu handiagoa eta alde askotariko agentzien pisu txikiagoa tarteko, azken urteotako joera baten mesedetan da; berehala egingo dugu joera horren iruzkina. Lehenik, laguntzaren geroz eta politizazio handiagoa, emaile bakoitzaren interes politikoaren, ekonomikoaren edo segurtasun-erlotoaren arabera. Bigarrenik, krisialdi humanitarioetarako erantzunaren desberdintasun geografiko nabarmena, batzuk lehenetsita eta beste batzuk ahaztuta.

Emaien artean, kasu azpimarragarria da ECHOrena (Europako Erkidegoko Gizabidezko Laguntzako Departamentua), 1994an, sortu eta bi urte geroago, laguntza humanitarioaren emaile handiena bihurtu baitzen (alde bikoia eta alde askotarikoa). 1994an, 909 milioi dolarreko zifra-errekorra kudeatu ondoren, jaitsiera izan zuen arian-arian, eta 1999an baino ez zen hautsi, Kosovoko krisialdia tarteko. 90eko hamarkadaren erdialdeaz geroztik, guztizko laguntza humanitarioaren %10 inguru da.

### 2.3. Destinoak

Laguntza humanitarioaren urteko destino geografikoak une bakoitzean izandako krisialdiaren arabera izan ditu gorabeherak, baina 90eko hamarkadaren joanean Afrika eta Jugoslavia ohia izan ziren zonalde esanguratsuenak, Asiak (Afganistan eta Ipar Korea) eta Latinoamerikak hamarkadak aurrera egin ahala nolabaiteko pisua hartu bazuten ere.

Nabaria da herrialdeen artean dagoen desberdintasuna nazioarteko laguntza humanitarioa jasotzeko orduan. Larrialdi-

egoera batzuek per capita laguntza handia jaso dute, eta beste krisialdi batzuk, ordea, sarritan kronikoak, agenda politikotik kanpo geratzen dira, eta Nazio Batuen deialdi bateratuen xede ere ez dira izaten. 90eko hamarkadaren joanean, Laku Handietako eta Jugoslavia ohiko eraginpeko pertsona bakoitzeko finantzaketa euren hurrenez hurreneko eskualdeetako batez bestekoaren bikoitza izan zen gutxi gorabehera. 1998an, adibidez, Eritreak eta Etiopiak ez zuten ia ezer ere jaso euren deialdi bateratueterako (%4'3 eta %0, hurrenez hurren), eta Sudanek berriz eskaturikoa baino gehiago jaso zuen. 1998an, kaltetutako pertsona bakoitzeko bi dolar baino gutxiago jaso zituen Eritreak, eta Jugoslavia ohiak, berriz, 166. Era berean, 1998an Erdialdeko Amerikak pairatu zuen Mitch urakanari erantzuteko mobilizaturiko fondoak handiagoak izan ziren aurreko bost urteetan hondamendi natural guztiak zirela-eta munduko laguntza osoa baino, nahiz eta bertan izandako 9.000 hildakoak 1999ko Venezuelako uholdeetan izandako 30.000 hildakoak baino gutxiago izan ziren, edo 1991ko Bangladesheko zikloiak eta uholdeek eragindako 125.000 hildakoak baino gutxiago.

Hortaz, tratu-desberdintasunean oinarrituko da nazioarteko sistema humanitarioaren jarduna. Afrikak izaten du premia-maila handiena, baina per capita gastua, berriz, beste kontinenteetan baino baxuagoa. Izan ere, fondoak ez dituzte esleitzen hondamendien larritasunari eta biktimen premiei jarraiki, baizik eta ondokoak bezalako beste zenbaiti jarraiki:

- Emaileen interes ekonomikoak eta politikoak. Nahiz eta interes horiek laguntza humanitarioa historiaren joanean gutxiago baldintzatu duten garapenerako lankidetzara baino, egoera aldatu egin zen 90eko hamarkadan. Emaileek «koherentziaren» helburua finkatu dute euren kanpo-ekintzako tresnen artean; laguntza humanitarioa, orain horietako bat dela kontuan izanda, bestelako kanpo-politiken helburuei jarraiki garatu behar da, esaterako merkataritza-arlokoak (merkatu librearen sustapena), garapen-arlokoak, segurtasun-arlokoak, edo demokratizazio eta giza eskubideen arlokoak. Europar Batasunaren kasuan, adibidez, garapen-bidean dauden herrialdeetan *egiturazko egonkortasuna* deiturikoa (garapen iraunkorraren, bakearen, demokraziaren eta giza eskubideen konbinazioa) sustatzeko tresna gisa pentsatuta dago KSPK (Kanpo eta Segurtasun Politika Komuna) eta merkataritza-akordioak bezala. Helburu hauek herrialde batzuetan edo besteetan gauzatzeak horiek EBn eta haren herrialde kideetan dituzten interesekin du zerikusia, noski.

- Hurbiltasun geografiko edo kulturala; biktimekin lotura afektibo handiagoa inplikatzear gain, eta hortaz, haiek laguntzeko obligazio morala, zaindu beharreko interes ekonomiko eta politikoak ere inplikatzeko du. Horrela, 1999an ECHOk lau bider gehiago bideratu zituen baliabideak Jugoslavia ohira eta Kosovora Afrika-Karibe-Pazifiko osoko 70 herrialdeetara baino. Era berean, 90eko hamarkadako lehen erdian, hainbat herrialdek (esaterako, Alemaniak, Austriak eta Italiak) asko handitu zituzten euren laguntza-aurrekontuak Balkanetako krisialdiari erantzuteko. Era berean, Espainiak baliabide ugari mobilizatu zituen Mitch urakanak Erdialdeko Amerikan eragindako hondamenei erantzuteko. Eta beste zenbait herrialdek (esaterako, Australiak, Zeelanda Berriak eta Japoniak) gauza bera egin zuten Ekialdeko Timorrekin.
- Dagokion krisialdiaren garrantzi politiko eta mediatikoa. Izan ere, nazioarteko agendan profil altua duten larrialdietan biltzen da laguntza, eta beste batzuk, berriz, ez dira batere nabarmentzen. Haietan ez da laguntza humanitarioa soilik biltzen, baita ekintza politiko eta diplomatikoa, eta bakea mantentzeko operazioak ere.
- Laguntza humanitarioak gerorako ekarpenari begira eraginkortasuna eta emaitzak biltzeko duen gorakako joera; horren ondorioz, egokitzen jotzen diren politikak eta administrazio-kudeaketako gaitasuna duten herrialdeak lehenesten dira hartzailetzat. Hala ere, hondamendi eta gatazka testuinguruetan dauden herrialde ezegonkor askok ez dute ezaugarri hori, eta, hortaz, laguntzaren banaketatik kanpo geratzeko arriskua dute.

### 3. SISTEMAREN ARAZOAK, ETA HAREN KOORDINAZIOA ETA KALITATEA HOBETZEKO EKIMENAK

Ikusi dugunez, nazioarteko sistema humanitarioa geroz eta konplexuagoa egin da, eta hainbat arazo agertzen ditu, aldi berean, bere egiturari eta funtzionamenduan. Horien artean egungo aktore humanitarioen ugaritasuna azpimarratu behar da, erakunde asko eta asko agertu baitira, oso desberdinak tamainari, baliabideei, mandataritzari, ideologiari, jarraibideei, populazioarekiko eta gainerako aktoreekiko harremanei eta abarri dagokienez. Aniztasun horrek arazo endemikoa eragiten du sistema humanitarioan, esaterako inplikaturiko erakundeen arteko deskoordinazioa, orokorra zein tokian bertakoa, baita euren arteko nolabaiteko lehiakortasuna ere,

komunikabideetan ikusgarritasun, eta ezagumendu sozial eta politiko handiagoa bilatzeak bultzatuta.

Era berean kezkarria da laguntza humanitarioaren lehen adierazitako zatikatzerako joera, krisialdi humanitarioei erantzun orokorrago, integratu eta koordinatuagoa ematearen alde eginiko deialdi sarriekin kontrajarrita. Alde askotariko laguntzaren gutxitzean eta alde bikoaren handitzean ikusten da zatikatzeko hori, baita emaleek alde askotariko agentziei emandako finantzaketa herrialde edo xede jakinetarako erabiltzeko aukera baldintzatzeko geroz eta joera handiagoan ere. Horren ondorioa zera da, plangintza eta kudeaketa irizpide orokor eta integralekin egiteko duen ahalmena murriztu egiten dela, sistema zatikatuz eta eragin-kortasuna gutxituz.

Sistemak duen beste ohiko arazo bat zera da, legezko erregulaziorik eta lan humanitariorako eska daitezkeen gutxieneko kalitate-araurik eza. Indarkeria eta Estatuaren desegituratzea ezaugarritzat dituen testuinguru konplexuetan, erakunde humanitarioen jardunak dilema etiko eta operati-boei aurre egin behar izateak horiek betetzea zaildu dezake (alderdi kontrarioen ustelkeria, gatazkan dauden alderdien neutraltasuna, laguntzaren babes armatua, eta abar). Bestalde, laguntza jasotzen duten populazioen eta gobernuen aurrean erakunde humanitarioek duten kontu-emate (*accountability*) eskasari edo erantzukizunari buruz ere eztabaidatzen da.

Sistema humanitaria nabarmen erreaktiboa izatea ere arazotsua da, normalean behin larrialdia abiarazi ondoren jartzen baita martxan, eta ez lehenago. Krisialdi humanitario asko aurreikustea ahalbidetzen duten alerta goiztiarreko hainbat sistema badaude ere, emaleek ez dute alde aurretik jarduteko beharrezko borondate politikoa izaten. Horretaz gain, gutxi inbertitzen da erantzun bizkor eta eraginkorra ahalbideratzen duten hondamendietarako prestaketa-mekanismoa, esaterako kontingentzia-planak, zenbaitetan zailentzan jartzen baita gastu horren eraginkortasuna.

Arazo horiei eta beste askori buruzko geroz eta kontzientzia handiagoa dela-eta, horretarako zenbait esku-hartzeko humanitariori buruz (esaterako Ruandakoa, 1994ko krisialdiaren ondoren) eginiko hainbat ebaluazio kritiko lagungarri izan direla kontuan izanda, 90eko hamarkadaz geroztik hainbat tresna sortu dira sistemaren koordinazioa hobetu, eta hura zenbait printzipio eta jarraibide komunekin hornitzeko. Horien artean lau besterik ez ditugu nabarmenduko hemen, ondokoak: GHKBren agentzien arteko deialdi

bateratuak, zenbait Jokabide Kode onartzea, Esferaren Proiektua eta Ombudsman Humanitarioaren Proiektua.

### 3.1. Deialdi bateratuak: aurreikusgarritasuna eraikiz

Nazio Batuek larrialdi politiko konplexuak kudeatzeko duten gaitasuna hobetu egin da 1992an, haren Batzar Nagusiak proposatuta, *Nazio Batuen agentzien arteko deialdi bateratuak* deituriko sistema ezarri zenetik. Larrialdi-egoeran dagoen herrialdearen premiak ebaluatzen diren dokumentuak dira horiek, baita hark behar duen laguntza humanitarioaren kantitatea ere. Argitaratu ondoren, nazioarteko komunitaterako laguntza-eskaera dela kontuan izanda, hori nahi duten emaleek ekarpen ekonomikoko euren promesak egiten dituzte. GHKB, Nazio Batuen Gai Humanitarioak Koordinatzeko Bulegoaren erantzukizuna dira deialdi hauek.

Mekanismo horrek gardentasun eta informazio handiagoa ekarri dio testuinguru horietan NBERen kudeaketari; baliatu ahal izango dituen fondoa aurreikusi ahal izango denez, plangintza-ahalmen askoz ere handiagoa izango du.

Hala ere, ekarpen hori zehaztu egin behar da. Lehenik, laguntza humanitarioaren zati bat baino ez da esleitzen deialdi horien bidez. Bigarrenik, arestian adierazi dugunez, aurreko hamarkadan horiek tarteko bideraturiko bolumena jaitsi egin da, 1994an izandako 1.960 milioi dolarretik 1999ko 1.400 milioi dollarrera. Kezkagarria zera da, gutxitze hori ez dela egungo premien gutxitzearen ondorio, baizik eta emaleek geroz eta gutxiago eman dutela eskatutakoarekiko, %80tik %64era jaitzita denboraldi horretan. Mekanismo interesgarri horren baliagarritasuna murrizten duen bila-kaera horrek alde askotariko laguntza alde biko laguntzaren mesedetan gutxitu izanarekin du zerikusia, azken urteotan egiaztatu denez. Hirugarrenik, deialdi bateratuek krisialdi bakoitzaren kudeaketa hobetzen dute, baina ez du saihesten emaleak herrialde edo jarduera jakinak soilik finantzatzeko prest egoteko aukera, sistema humanitarioaren eraginkortasuna eraginpean hartuta. Ildo honetan, Nazio Batuek krisialdi humanitario guztiak krisialdi bakoitzaren premietan oinarrituriko irizpide osoarekin kudeatu ahal izateko, ez litzateke kasu berezi bakoitzera bideraturiko sistema behar-ko, hau bezalakoa, baizik eta Nazio Batuen aurrekontu komun eta iraunkorra indartzea.

### 3.2. Jokabide kodeak

Espazio humanitarioaren geroz eta konplexutasun handiagoak eraginda, zenbait GKEk, eta batzuetan zenbait nazioarteko agentziak ere bai, jokabide-kodeak landu dituzte. Atxikimendu libreko dokumentuak dira horiek, hortaz, balio moral hutsa dutenak, hainbat gairi buruz printzipio etiko, irizpide operatibo eta planteamendu komun jakinak ezartzen dituztenak. Jardueren nolabaiteko autoerregulazioa ahalbidetzea du xedetzat, lanaren kalitatea eta eraginkortasuna areagotzea, amateurismoaren aurrean profesionaltasuna hobetzea, eta hartzailleekiko kontu-ematea (*accountability*) egitea. Elkar lankidetzan ahalbidetzen duten metodoak eta irizpideak ere sortu nahi ditu, tokian bertako nahaste eta deskoordinazio egoerak saihesteko moduan.

Egungo kodeen artean, gehien interesatzen zaiguna *Gurutze Gorriaren eta Ilargierdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendurako eta GKEetarako hondamendietako sorospenari buruzko jokabide-kodea* da, *Laguntza Humanitariorako jokabide-kodea* ere deiturikoa. Zortzi GKE humanitario garrantzitsuk idatzi zuten 1994an, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea (GGNB) barne hartuta, eta ondoren 150 GKEk baino gehiagok sinatu dute, askotarikoak euren ideologiei eta lan-jarraitibideei dagokienez. Xehetasun operatiboetan sartu gabe, bere ekarpen handiena ekintza humanitariorako printzipio eta irizpide komun batzuk laburbildu eta adostu izana da, esaterako laguntza eskubidetzat kontuan hartzea, GKEen independentzia edo onuradunen parte-hartzea.

Horretaz gain, Kodeak zenbait jokabide iradokitzen ditu GKEen eta bestelako aktoreen arteko harremanak hobetzeko, esaterako larrialdi-egoerako herrialdeetako gobernuak, gobernu emaileak eta gobernuen arteko erakundeak. Horrela, adibidez, gobernu ahul edo gatazka-egoera batek ia geldiarazitakoen eta haiei dagozkiekeen eginkizunak euren gain hartzen dituzten GKEen arteko harremanetarako jarraitibideak ezarri nahi dira, biktimengana heltzeko aukera bermatzeko helburuarekin.

## Laguntza humanitariorako jokabide-kodea

GKEen oinarrizko konpromisoak:

1. Lehenengo gauza *agindu humanitarioa* betetzea da (laguntza humanitarioa jaso eta emateko eskubidea).
2. Hartzaileren arraza, sinesbideak eta nazionalitatea edozein izanda ere emango da laguntza, eta edonolako bereizketa negatiborik gabe. Laguntza-lehentasunak premiei jarraiki soilik kalkulatuko dira.
3. Laguntza ez da erabiliko ikuspuntu politiko edo erlijioso jakin bat sustatzeko.
4. Gobernuaren kanpo-politikaren tresnak ez izaten saiatuko gara.
5. Kultura eta ohiturak errespetatuko ditugu.
6. Herrialdearen ahalmenetan oinarrituta hondamendiari erantzuna ematen saiatuko gara.
7. Programen onuradunak laguntza humanitarioaren programe-tan inplikatzeko moduak aurkitu beharko dira.
8. Hondamendiak direla-eta gerorako urrakortasuna gutxitzen saiatu behar da laguntza humanitarioa, baita oinarrizko premiak betetzen ere.
9. Erantzule egingo gara lagundu nahi ditugunen eta haiengan-dik baliabideak onartzen ditugunen aurrean.
10. Gure informazio, publizitate eta propaganda jardueretan gizaki duin gisa aintzat hartuko ditugu biktimak, ez ezertarako ez diren objektu gisa.

Lan-harreman hobea izateko GKEek beste aktore humanitarioei eginiko iradokizunak biltzen dituzten eranskinak:

*1. eranskina: Hondamendi batek eraginpean harturiko herrialde-  
etako gobernuentzako gomendioak.*

1. Gobernuz Kanpoko Agentzia Humanitarioen (GKAH) ekintza independente, humanitario eta inpartzialak aintzat hartu eta errespetatu beharko lituzkete gobernuek.
2. GKAHek hondamendiaren biktimengan bizkor heltzeko aukera ahalbidetu beharko lukete harrerako gobernuek.
3. Gobernuek garaiz eman beharko lukete laguntza materialaren eta informazioaren fluxua hondamendietan.
4. Gobernuek hondamendiaren informazio koordinatua eta plangintza-zerbitzu bat eman beharko lukete.



5. Hondamendirako laguntza gatazka armatua badago: nazioarteko lege humanitarioaren dagozkion xedapenek bideratuko dituzte laguntza-ekintzak.

*II. eranskina: Gobernu emaileentzako gomendioak.*

1. GKAHen ekintza independente, humanitario eta inpartzialak aintzat hartu eta errespetatu beharko lituzkete gobernu emaileek.
2. Independentzia operatiboko bermea tarteko eman beharko lituzkete fondoak gobernu emaileek.
3. Gobernu emaileek euren zerbitzuak baliatu beharko lituzkete GKAEi hondamendiaren biktimengana heltzen laguntzeko.

*III. eranskina: Gobernu arteko erakundeetarako (GAE) gomendioak*

1. GKEak, nazionalak zein atzerritarrak, bazkide baliozkotzat onartu beharko lituzkete GAEEK.
2. GAEEK laguntza eskaini beharko diete harrerako gobernuen hondamendia dela-eta laguntza humanitario nazioarteko eta nazionalaren koordinazio marko orokorra lortzeko.
3. GAEEK GKAEtara zabaldu beharko lukete Nazio Batuen erakundeei emandako segurtasun-babesa.
4. Nazio Batuen erakundeei informazio esanguratsua baliatzeko ematen zaien aukera bera eman beharko diete GAEEK GKAEi.

Beste kode garrantzitsu bat GGKEen gutuna: Europar Batasuneko garapen eta laguntza humanitarioko GKEen oinarriko printzipioak deiturikoa da, Europako GGKEen Jokabide kodea izenarekin ezagunagoa. 1997an onartu zen dokumentu hau Europar Batasunerako GGKEen Lotura Batzordeak izandako eztabaida-prozesuaren ondoren. GKE sinatzaileek hura jarraitzeko konpromisoa hartzen duten erreferentzia-markoa da; bertan mugatzen dira euren ezaugarri propioak, helburuak, haietan sinesten duten balioak, ekintza humanitarioari buruzko ikuspegiak eta garapenerako lankidetzak, eta euren egitura eta funtzionamenduari buruzko alderdiak. Eztabaida humanitarioetan funtsezkoak diren alderdiak aztertzen ditu, esaterako, independentzia, kudeaketaren gardentasuna, profesionaltasuna edo genero-ikuspegia.

Hirugarren Munduari buruzko irudien eta mezuen kodea ere garrantzitsua da; Europar Batasunaren Garapeneko Gobernu Kanpoko Erakundeen Lotura Batzordeak (CLONG)

onartu zuen 1989an, arestian adierazitako kodeak baino lehen, hortaz. Dokumentu honek gomendioak egiten dizkie GKEei hainbat gairi buruz; sentsibilizazio jardueren bidez Hirugarren Munduari eta haren arazoei buruz emandako irudiak, garapenerako heziketa, finantzaketa, eta abar. Irudi dramatikoak, estereotipatuak, partzialak edo biktimak izaki pasibotzat hartzen dituztenak saihestu nahi ditu; karitatea edo fondoak biltzeko aukera sustatzeko eraginkorrak izan balitezke ere, errealitatea desitxuratzen dute, eta ez dute justizia bilatzea eragiten. Aldi berean, pobreziaren eta injustizien egiturazko arazoiei buruz kontzientziazten duten mezuen aldeko apustua egiten du, garapen-eredua zalantzan jartzen dutenak, eta oinarritzat hainbat balio (esaterako, justizia, aniztasun kulturala, bakea eta ingurumenaren errespetua) oinarritzat dituztenak.

Nazioarteko eremuko kode horiekin batera, badira esparru geografiko mugatuagoko zenbait kode, normalean aztergai garapenerako lankidetzak dutenak, euren edukien zati bat ekintza humanitarioari aplikatu badakioke ere. Horrela, Estatu espainolari dagokionez, Garapenerako GKEen Estatuko Koordinakundeak 1997an onartu zuen Garapenerako GKEen jokabide kodea. Dokumentu hau aurrerapauso erabakigarria izan zen GKEen nortasuna eta nondik norakoa definitzeko, baita euren lan-eremuetako oinarritzko ezaugarriak adosteko ere, laguntza humanitarioa, besteak beste. GKEek beraien artean eta beste aktoreekin dituzten harremanen irizpide orokorrak ere behar ditu, baita antolamendu eta kudeaketako oinarritzko irizpideak, eta komunikazioari eta erabilitako irudiei buruzko zenbait jarraibide ere. Kodeak jarraipen batzordea sortzeko aukera ezartzen du gomendioak egin eta haiekin haren ez-betetzeak saihesteko, baita zigorrak ezartzeko aukerak saihesteko ere, Koordinakundetik kanporatzea barne hartuta. GGKEen estatuko koordinakundearen kode honek pizgarri-lanak ere egin ditu zenbait autonomia-erkidegotan bestelako kodeak lantzeko.

### 3.3. Esferaren proiektua

Adierazitako kodeak, eta bereziki Laguntza humanitariorako jokabide-kodea aplikatu izanaren esperientziaren ondorioz printzipioak berariazko jardun-arauetan zehazteko premia ikusi zen. Hori dela-eta erakunde humanitarioen talde zabal batek Esferaren Proiektua deiturikoari ekin zion 1997an; haren lehenengo fasea urtebete geroago amaitu zen, *Hondamendietako laguntza humanitarioko gutxieneko arauen gutun humanitarioa* argitaratuta.

Proiektuari esker zenbait gutxienerako arau unibertsal adostu ahal izan dira lehen aldiz hondamendi osteko laguntza humanitarioaren alor garrantzitsuetan, haren kalitatea eta *kontu-ematea* hobetzeko moduan. 700 pertsona inguruk egin dute lan hori, hainbat alorretako espezialistak tartean, 60 herrialdeetako 228 erakunde inplikaturik (esaterako, Caritas, Oxfam, Mugarik gabeko Medikuek, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Federazioa, eta abar). Horren ondorioz, 1998ko azaroan argitaratu zen proiektuaren bi fruituen atariko bertsioa: Gutun humanitarioa eta hondamendietako erantzun humanitarioaren gutxienerako arauak.

Gutun Humanitarioa dokumentu bat da, eta haren ekarpena zera da; laguntza humanitariorako eta katastrofe naturalen edo gatazka armatuen eraginpeko pertsonen babeserako eskubidea aintzat hartu eta berrestea, eta ondorioz Estatuak edo gatazkan dauden alderdiek laguntza emateko edo besteek ematea ahalbidetzeko betebeharrak juridikoa. Horretarako Giza Eskubideen arloko nazioarteko itunetan oinarritzen da Gutuna (esaterako Giza Eskubide Deklarazio Unibertsala eta errefuxiatuei buruzko legeria), eta Nazioarteko Eskubide Humanitarioaren arloan (1949ko Genevako Hitzarmenak eta 1997ko haren Protokolo Gehigarriak) (laguntzaren legezko oinarriari buruz, ikus VI: kapitulua, 2. puntua).

Hiru oinarritzko printzipio azpimarratzen ditu bereziki gutunak: a) Bizitza duinerako eskubidea, eta horrek ondokoak inplikatu ditu; bizi-eskubidea errespetatzea, zigor edo tratu krudel, jasangaitz edo umiliagarrien aurka babestea, eta biziak salbatzeko bideraturiko laguntza zuzkitzeko aukera ez eragozteak. b) Borrokalarien eta ez-borrokalarien arteko bereizketa, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioak babeserako eta erasoaren xede ez izateko eskubidea bermatzen baitie zibilei, eta puntu horiek nabarmen urratzen dira gaur egungo gatazketan c) non-refoulement deituriko edo errefuxiatuak euren herrialdeetara ez itzultzearen printzipioa, haien bizia edo askatasuna arriskuan badago arrazari, erlijioari, ideologiari, eta abarri zor zaizkion arrazoiak direla-eta, hori ere geroz eta gehiago urratzen dela kontuan izanda.

Proiektuaren sarreran propio adierazten denez, oinarritzko giza eskubideak eta printzipio humanitarioak laguntza-maila jakinen zuzkidurari aplikatzen edo lotzen zaizkio, laguntzarako eskubidearen erabateko aplikazioa gauzatzeko lortu beharrekoa. Gutxienerako Arauetan ezarriko dira maila horiek.

Hondamendietako laguntza humanitarioaren gutxienerako arauak helburu unibertsalak dira, adierazle kuantitatibo eta kualitatiboekin zehazturikoak; eman beharreko eta eragin-

pekoek laguntza humanitarioaren bost alor nagusietako bakoitzean hartarako eskubidea duten gutxieneko laguntza-mailak finkatzen dituzte: ur-hornidura eta saneamendua, elikadura, elikagai-laguntza, babesguneak eta kokaguneen plangintza, eta osasun-zerbitzuak. Adibidez, arauetako bategen ezartzen duenez, elikagaiak baliatzeko bestelako bitartekorik ez dutenen elikagai-laguntza pertsona eta eguneko 2.100 kcal-eko hornidura erreferentziatzat hartuta planifikatu behar da. Hori lagungarria da eman beharreko kantitateari dagokionez erakundeek baliabide desberdinak erabiltzea saihesteko, lehen gertatzen zen bezala.

Azken batean, Esferaren proiektuak ekarpen garrantzitsuak egin ditu. Lehenik, printzipio humanitarioen eta zenbait tresna juridikotan bilduriko eskubideen iraunaldia berretsi du, azken boladan nahiko zalantzan zeudela kontuan izanda. Bigarrenik, laguntza humanitarioaren plangintza eta kudeaketa erraztu dezakeen marko operatiboa sortu du, eraginkortasuna hobetuta eta aktore humanitarioen arteko koordinazioa ahalbidetuta, oro har zein tokian bertan. Hirugarrenik, ezarritako arauak erreferentziako irizpideak ematen dituzte emaileek, iritzi publikoak edo onuradunek beraiek laguntza-proiektuak ebaluatu eta haiek hobetzea erreklamatu ahal izateko; aurre-rapauso garrantzitsua da hori inplikaturiko erakundeek egin beharreko kontu-emateari begira. Laugarrenik, proiektua izenpetzen duten erakunde humanitarioek arauak modu sistematikoan aplikatzeko konpromisoa hartuko dute, eta horrek ere konpromisoa eskatzen du haien profesionalizazio, prestakuntza eta gaikuntza maila areagotzeko.

Esferaren Proiektua oraindik martxan dagoen prozesua da, eta zenbait hutsune ditu, jakina. Horietako zenbait 1999an hasitako berraztertzeari ekiten hasi dira, esaterako larrialdi-testuinguruetako emakumeentzako berariazko arreta, edo laguntzaren kalte posibleak minimizatzea ahalbidetuko duten neurriak. Bestalde, zenbaitek proiektua kritikatzeko dute, alderdi teknokratikoak aztergai hartu eta arauak jardun-printzipio batzuen zerbitzura daudela ahaztu izanagatik, eta laguntzaren gehiegizko uniformizazioa eta estandarizazioa eragiteko arriskuagatik, baita GKEek independentzia galtzeagatik ere, izan ere zenbait emailek proiektuan parte hartu baitute.

Kontsiderazio horiek guztiak direla-eta, zenbait GKEk, bereziki frantses jatorriko erakunde handiek (esaterako Mugarik Gabeko Medikuak), Esferaren Proiektua utzi zuten eta beste batekin hasi dira, *Project Qualité* deiturikoa. Horren arabera, politika eta helburu zabalaren markoan hartu behar dira kontuan arau teknikoak, leku bakoitzaren testuinguru

berariazko eta aldakorretara egokituta. Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen da, esaterako egoeraren diagnostiko eta analisi geopolitikoko erremintak, populazioen parte-hartze mekanismoak, tokiko aktoreen parteneriotza eta tokian bertan jarduten duten erakunde eta langileen prestakuntza hobetzea. Horretaz gain, proiektu honek printzipio eta balio humanitarioen garrantzia azpimarratzen du, eta borrokalariek biktimengana heltzeko aukera ahalbidetu beharra.

Nolabait ere, bi proiektuen existentzia mundu humanitarioaren bi arlotako banaketaren adierazgarri da (agian gehiegizkoa litzateke horiei eskola deitzea), anglofonia eta frankofonia, alegia; sarritan zenbait desberdintasun dituzte hainbat gai direla-eta duten sentsibilitateari eta erabilitako terminologiari dagokienez. Baina, edozein kasutan ere, bi proiektuek laguntzaren kalitatea eta kontu-ematea hobetzeko nahia konpartitzen dute, iraganeko jardunekiko autokritika oinarritzat hartuta.

#### 3.4. Ombudsman humanitarioa eta kontuak emateko ekimenak

Ikus dezakegunez, azken boladan mundu humanitarioan aktore humanitarioen kontu-ematea hobetzeko premiari buruzko kontzientzia errotu egin da, eta ez soilik haren emaitzekiko, baita populazio onuradunarekiko ere. Eginiko jardueren ebaluazio-kultura ere mamitu da, eta hori garapenerako lankidetzan soilik gertatzen zen lehen. Bi fronte horietan aurrera egin ahal izateko, eta operazio humanitarioen ebaluazioak kontuan izanda, batez ere 1998ko Kosovoko krisialdian tokian bertan izandako esperientzia, aktore humanitarioen jarduna kaotikoa izan baitzen zenbaitetan, ombudsman edo herriaren defendatzaile baten antzeko irudi baten premia ikusi zen, larrialdiak pairatzen dituen populazioarentzat.

Ombudsman humanitarioaren Proiektua abiarazi zen horrela, egoitza Genevan zuen proiektu-pilotua, hiru urtetan eta gutxienez hiru larrialditan haren operatibitatea aztertzeko. Krisialdi humanitario handien jarraipena eta kontrola egitea zen haren eginkizuna, laguntzaren balizko hartzaileen keak bilduta, eta hondamendien eta gatazken eraginpekoentzako ahots inpartzial eta independentearen lanak beteta jardunez. Nazioarteko sistema humanitarioaren kontu-ematea indartu nahi zen, haren jarduna hobetzea eta *zigorgabetasun humanitarioa* deiturikoa saihestea, laguntzak kalteak eragiten dituenean.

Ondoren, nahi ziren helburuetarako ombudsman bat tresna egokia ez zela egiaztatu zen. Horrela, 2001ean *Humanitarian Accountability Project* (edo Kontuak Emateko Proiektu Humanitarioa) deiturikoak ordeztu zuen; horrek ere Genevan zuen egoitza, eta hainbat agentziak eta GKEk osatzen zuten. Hainbat mekanismo ikertu eta saiatu zituen tokian tokiko kontu-ematea hobetzeko, eta aktore humanitarioak inplikatu zituen horren aplikazioan. Proiektu pilotu honekin metaturiko esperientziak beste urrats bat egiteko premia ikusarazi zuen, eta, hortaz, 2003an sortu zen *Humanitarian Accountability Partnership-International* (Kontuak Emateko Elkartea Humanitario-Nazioartekoa). Nazioarteko organoa da, hainbat erakundek eta agentziak osatzen dute, eta horiek konpromisoa hartu dute beren gain hartu dituzten «kontuak emateko zazpi printzipioak» betetzeko, autoerregulatzeko eta arloan duten jardunaren jarraipena egiteko.

# VI

Printzipio humanitarioak eta  
oinarri juridikoak

Ekintza humanitarioak printzipio etiko eta operatibo sorta bat du erreferentzia-puntutzat, eta baita nazioarteko hainbat tresna juridikotan bilduriko legezko oinarri batzuk ere. Lehenengoen zein bigarrenen interpretazioa aldatu egin da denboran zehar, eta gaur egun arlo humanitarioko eztabaida-eremu nagusietako bat dira. Hainbat eragilek (politiko zein militarrek) diskurtso humanitarioa beretzat soilik hartzen ari direla ikusita, eta ekintza humanitarioaren printzipioak eta legezko oinarriak behin eta berriz urratzen direla-eta, komenigarria da bi alderdi hauek xehe-xehe aztertzea.

## 1. PRINTZIPIO HUMANITARIOAK

Ekintza humanitaria, bere jardueren edukiak eta bere helburuek ez ezik, printzipio etiko eta operatibo sorta baten jarraipenak ere definitu eta justifikatu izan dute denboran zehar. Balio eta printzipio jakin batzuen defentsa, eta oro har, gizakiaren duintasuna, ideologia oro edo beste edozein alderdi alde batera utzita, ekintza humanitarioaren legitimazio-iturria izan da, bai eta garapenerako lankidetzatik bereizten duen ezaugarrietako bat ere. Printzipio hauek errealitatearekin batera aldatu dira; beraz, ez dira absolutu eta aldaezintzat hartu behar, laguntza bideratzeko erreferente edo helburutzat baizik. Hala ere, garai bakoitzera egokitzeko gaitasuna onartzeak ez du esan nahi gaur egun sarritan jasaten dituzten urraketa eta ukazioa ontzat eman behar direnik pragmatismo handiagoa lortzeko.



Printzipio humanitarioen sorrera eta garapen historikoa oso lotuta egon da Gurutze Gorriarekin eta bere filosofiarekin. Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea (GGNB) sortzearekin batera hasi ziren eratzen 1863an, baina mende batez landu eta heldu ondoren finkatu ziren, 1965ean Vienan egin zen Gurutze Gorriaren eta Ilargi Erdiaren Nazioarteko Konferentzian erakundearen «Funtsezko Printzipioak» onartu zituztenean, hain zuzen. Beren filosofia, helburu eta jardueren ardatz diren printzipioak hauek dira: gizalegea, inpartzialtasuna, neutraitasuna, independentzia, unibertsalitasuna, borondatezkoa izatea eta batasuna.

Printzipio horietako batzuk Gurutze Gorriarenak berarenak dira, batez ere azken biak, baina gainerakoak humanitarismo klasikoaren ondare komunarenak izatera iritsi dira. Hala, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Mugimendua-  
ren Estatutuetan ez ezik, honakoetan ere bildu dira: gurutze Gorriaren eta Ilargi Erdi Gorriaren Nazioarteko Mugimendurako eta GKEetarako hondamendi-kasuetarako sorospenari buruzko 1994ko Jarrera kodea delakoan (ikusi V. kap., 3.2 puntua); 1998ko Esferaren Proiektuaren Gutun humanitarioan (ikusi V. kap., 3.3 puntua); eta baita GKE humanitarioen estatutuetan ere, batzuk ala besteak kasuaren arabera.

Oinarrizko printzipio humanitarioak
<p><i>Gizalegea</i></p> <p>Giza duintasunarekiko errespetuzko tratua ematea, hondamendiek eta gatazkek edonori eragindako giza sufrimendua arintzera bideratutakoa.</p>
<p><i>Neutraitasuna</i></p> <p>Gatazketan alderdi baten alde eta gainerakoen kaltean agertzetzat har litekeen inolako egintzarik ez egitea, politika, arraza, erlijio edo ideologiari buruzko eztabaidetan parte hartzea saihestuz.</p>
<p><i>Inpartzialtasuna</i></p> <p>Laguntza ematea, hondamendietako biktimen arraza, sexua, etnia edo ideologia dela-eta diskriminaziorik eragin gabe, irizpide bakartzat honakoa izanik: laguntza euren beharrekiko eta egoeraren larritasunarekiko proportziozkoa izatea.</p>

### *Independentzia*

Erakunde humanitarioen jardun autonomia, baldintzatzaile politikorik edo bestelakorik izan gabe, ez euren jatorrizko herrialdeetan, ez eta jardun dutenetan ere.

### *Unibertsaltasuna*

Irizpide honen arabera, hondamendietako biktima guztiek merezi dute laguntza gizateriaren partaide izateagatik, euren etnia, ideia politikoak edo beste edozein ezaugarri edozein izanik ere.

Dena den, azken hamarkadetan zalantzan jarri da printzipio hauek indarrean jarraitu behar duten eta egokiak ote diren, batez ere Gerra Hotza bukatu zenetik (III. kapituluko 3.5 puntuan azaldu dugun bezala). Askok zalantzan jartzen dute, egungo larrialdi politiko konplexuetan, ekintza humanitaria politikarekin nahastu gabe geratu ahal izatea printzipio humanitarioei esker, batez ere, neutraltasunari esker. Hainbat egileren ustez, praktikan neutraltasuna ezinezkoa da egungo gatazka askotan, zibilen (laguntza merezi dute) eta borrokalarien arteko bereizketa ez baita garbia. Bereizketa hori garai bateko gerretan egiten zen, eta horretan oinarritzen da nazioarteko zuzenbide humanitarioak zibilei ematen dien babesa. Are gehiago, batzuen ustez, biztanleria zibilak maiz giza eskubideen urraketa (genozidioa, garbiketa etnikoa, eraso armatuak, etab.) jasaten duen testuinguru horietan, neutraltasuna saihestu egin behar da, ezmorala baita. Euren ustez, egokiena, gatazkan jazarpena pairatzen duen sektorearen, edo triskantzak etenarazteko moduan dagoen indarraren alde agertzea da.

Argudio kritiko hauetako asko bere egin ditu *humanitarismo berriak*; printzipio humanitarioak zalantzan jarri dituen humanitarismo hau zabalduena da 90eko hamarkadaren erdialdetik. Laguntza neutral eta apolitikoaren aurrean, helburu politikoetara bideratuta dagoen beste bat nagusitu da gaur egun. Era berean, laguntzaren inpartzialtasun eta unibertsaltasun printzipioak, pertsona guztiei euren oinarritzko beharren arabera asistentziarako eskubidea aintzat hartzen dieten printzipioak, alegia, urratu egiten dira, asistentzia ematea helburu politiko jakin batzuk lortzearen baldintzapean jartzen den heinean. Halaber, agentzia humanitarioen independentzia zalantzan jartzen da, batetik gobernu emaleek gero eta gehiago kontrolatzen dituztelako, eta bestetik,

nazioarteko indar armatuekin izan behar dituzten erlazio estuengatik.

Laguntzaren oinarrietan izandako aldaketa hauek kezka piztu dute erakunde askotan. Oraindik ere neutraltasun-printzipioa baliagarria dela uste dutenek arrazoi moralak ez ezik praktikoak ere badituzte horretarako: borrokan dauden alderdiek laguntza bando batentzat edo bestearentzat onuragarritzat ez hartzea ahalbidetzen du, eta hori lagungarria da alderdiek laguntza errespetatu eta biktimengana iristea errazteko. Bestalde, laguntza helburu politikoek baldintzatu-ta egoteak, eta helburu horien arabera batzuetan ukatu ahal izateak (Afganistanen talibanen garaian gertatu zen bezala), *inperatibo humanitario* delakoa urratzen du, hau da, laguntza obligaziotzat duen nozioa, eta baita unibertsaltasun-printzipioa ere, hots, laguntza, krisialdi bat dela-eta behar-rak ase ahal izatea arriskuan duten pertsona guztien eskubidea dela dioen printzipioa, alegia. Aldiz, laguntza irizpide politikoaren mende baldin badago, litekeena da egoe-ra jakin batzuetan komenigarriagozat jotzea laguntza hori ez ematea, laguntza horren beharra duenik izan arren.

Hala, aurkako joera hau izan arren, agentzia eta GKE ugarik jarraitu dute neutraltasuna eta gainerako printzipio humanitarioak ardatz duen *gune humanitario* apolitikoari eusteko ahaleginak egiten. Horien artean, hainbat ekimen azpimarratu beharrekoak dira: Gurutze Gorriaren laguntza humanitariorako jarrera kodea, 1994koa; Esferaren Proiektua, 1997an hasitakoa; aurrekoarekiko erantzun gisa (batez ere Frantziako hainbat GKEk) hasitako Kalitate Proiektua; eta Ombudsman humanitarioa proiektua (Ikusi V. kap., 3. puntua). Era berean, Gurutze Gorria eta beste erakunde batzuek behin eta berriro esaten dute beharrezkoa dela ekimen politikoaren eta ekimen humanitarioaren arteko bereizketari eustea, neutraltasun eta inpartzialtasun humanitarioa babes-teko eta hartara biktima guztiengana heldu ahal izateko.

## 2. EKINTZA HUMANITARIOAREN FUNTSEZKO OINARRIAK

Ekintza humanitarioko jarduerak nazioarteko hainbat tresna juridikoren legezko babesa izaten dute, eta *izaera humanitarioko sorospen-ekintzak* izena ematen diete jarduera horiei tresna hauek.

Hauen artean, lehendabizi Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH) aipatu behar da: XIX. mendean sortu zen

eta gatazka armatuetako testuinguruetan aplikatzen da. Bigarrenik, giza eskubideen babesari buruzko legeria osatzen duten tresnak aipatu behar ditugu; legeria hori XX. mendean sortu zen, eta berez bake-garaian zein gerretan aplikatzekoa da. Gatazka armatuetan giza eskubide asko bertan behera utzi badaitezke ere, batzuk ezin dira indargabetu. Honela, NZHk eta giza eskubideek tresna juridiko eta aplikazio-eremu desberdinak badituzte ere, elkarguneak eta osagarritasun-guneak dituzte. Biek dute gizakia babesteko helburua.

### 2.1. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa

Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa (NZH), edo *gerragaraiko zuzenbidea*, nazioarteko edo barne gatazka armatuetan aplikatzekoa den arau-sorta batek osatzen du. Hau dela-eta, ekintza humanitarioaren funtsezko oinarri legala da, larrialdi handi gehienak gaur egun gerra-testuinguruetan izaten baitira. Bere helburua ez da gatazka armatuak bukaraztea, horiek arautzea baizik. Hau da, borrokan dauden alderdien ekintza militarrei mugak ezartzea, bai eta nolabaiteko babesa ematea ere gatazkaren biktimei eta hauek bizirauteko ezinbestekoak dituzten ondasunei. Estatuon arteko zuzenbide klasikoa da; honen arabera, Estatuok hartzen dituzte obligazioak euren gain euren sinaduraren bitartez, eta hori aplikatzearen, betetzearen eta zigortzearen arduradunak dira.

NZH 1864an hasi zen idatziz garatzen, borrokan zaurituriko militarrek eta ospitale militarrek zein bertako langile sanitarioak babesteko lehen konbentzioa egin zenean. Suitzako enpresari Henry Dunant-ek, 1859ko Solferinoko batailaren ondorioz sustaturiko ekimena izan zen. Bera izan zen Gurutze Gorriaren sustatzailea ere. Hain zuzen ere, Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordea (GGNB) izan da historian gehien bultzatu duena NZHren garapena. Izan ere, Gurutze Gorriak eginiko hainbat proiektutan oinarrituta, Suitzako Gobernuak deitu zuen 1949an Genevako Hitzarmenak onartu zituen nazioarteko konferentzia.

Nazio Batuek, ordea, hasiera batean ez zuten parte hartu ez NZHren garapenean, ezta aplikazioan ere, honen helburua gerrak arautzea baita, eta Nazio Batuen Gutunak, aldiz, indar armatua erabiltzea debekatzen baitu. 60ko hamarkadaren bukaeratik aurrera, gerrak ez zirela desagertu ikusita, Nazio Batuek euren gain hartu zuten NZHren kodifikazioa eta sustapena, adibidez, Genevako Hitzarmenetako Protokolo Gehigarriak bultzatu zituztenean 1977an. Era berean, NBEK *bakeari eusteko operazioetako* aginduetan NZH betetzen

dela gainbegiratzea hartu du barne. Halaber, azpimarratu beharra dago Segurtasun Kontseiluak, Gerra Hotza bukatu ondoren, NZHrekiko errespetua eskatzen duen hainbat ebazpen hartu duela, eta horrez gain, Jugoslavia ohirako eta Ruandarako Nazioarteko Auzitegi Penala sortu zituela 1993 eta 1994an, hurrenez hurren, NZHren urraketa larriak epaitzeko. Bestalde, duela gutxi Nazioarteko Gorte Penala sortu izana ere urrats garrantzitsua da NZH aplikatzeari dagokionez, gizateriaren aurkako krimenak, gerra, eraso eta genozidio krimenak epaituko baititu, hein handi batean NZH urratzen duten krimenak, alegia.

NZHk nazioarteko hainbat tresna juridikotan bilduriko arauak ditu:

- a) La Haya-n 1899tik aurrera eginiko adierazpen eta Konbentzio guztiak.
- b) Genevako 1949ko lau Hitzarmenak, bakoitza arlo banari buruzkoa: lehenengoa, kanpainan zauritutako eta gaixotutako militarren egoera arintzeari buruzkoa; bigarrena, itsasoan galdutako, zauritutako eta gaixotutako militarren egoera arintzeari buruzkoa; hirugarrena, itsasoan hartutako gerra-presoei eman beharreko tratuari buruzkoa; eta Laugarrena, zibilak gerra irauten duen bitartean babesteari buruzkoa.
- c) Genevako Hitzarmenen bi Protokolo Gehigarriak, 1977koak. Gatazka armatuetako biktimen babesari buruzkoak dira biak: lehenengoa, nazioarte-mailakoei buruzkoa, eta bigarrena, nazioarte-mailakoak ez direnei buruzkoa.

Aipaturiko lehen blokeak –batzuetan *La Hayako Zuzenbidea* ere deitzen zaio– borrokan dauden alderdiek gerran izan behar dituzten jarrera-arauak ezarri ditu, alderdien jarduteko ahalmena murriztuz. Genevako Hitzarmenak, edo *Genevako Zuzenbidea*, berriz, gerrak irauten duen bitartean biktimak babesteari buruzkoak dira. Azkenik, 1977ko Protokolo Gehigarriek aurreko bi blokeetako arauak bildu dituzte, eta hori lagungarria da euren arteko bereizketa gainditzeko eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren batasuna azpimarratzeko.

Adierazi beharra dago Genevako Hitzarmenek izaera unibertsala dutela, Estatu gehienek berretsi dituzte-eta. Gainera, haiek eta 1977ko Protokolo Gehigarriak sinatu zituztenek tresnak «egoera guztietan» errespetatzeko konpromisoa hartu dute, hau da, baita Estatu etsaiek edo beste estatu batzuek berretsi ez badituzte edo errespetatzen ez badituzte ere.

NZHK funtsezko ekarpen bat egin du: borrokaldian parte hartzen ez dutenen bizitzarako eskubidea eta integritate fisiko zein morala babestea, pertsona horiek zibilak edo borrokan parte hartzen ez duten militarrek izanik ere. Honela, euren eskuetan dituen alderdiak hartu eta zaindu behar ditu gaixoak eta zaurituak. Ildo honetatik, azpimarratu beharra dago Genevako IV. Hitzarmenaren ekarpena: gerra-testuinguruetan biztanleria zibila babestu beharra ezarri duen lehen ituna da. Hitzarmen honek bereizi egin ditu alde batetik borrokan parte hartzen duten militarrek eta bestetik, borrokan parte hartzen ez duten zibilak, eta ezarri du bigarrenei ezin zaiela eraso zuzenik egin eta gizalegez tratatu behar direla. Jarraibide honen arabera, I. Protokoloak espresuki debekatu ditu bereizketarik gabeko erasoak, hala nola, bombardaketa masiboak, hiriak erabat suntsitzea, eta helburu militar jakinera bideratuta ez dauden bestelako erasoak. Era berean, garrantzitsua da aipaturiko IV. Hitzarmenak eta I. Protokoloak biztanleria zibilak bizirauteko ezinbestekoak diren ondareak suntsitzea, konfiskatzea edo gauzaeztantzea debekatzea, hala nola, elikagaiak, uztak, azienda, edateko ura hornitzeko instalazioak, edo ureztatze-instalazioak.

Beste alderdi garrantzitsu bat NZH nazioarteko gatazka armatuak bereziki aintzat hartuta garatu izana da; izan ere, Genevako Hitzarmenak Bigarren Mundu Gerra bukatu eta handik gutxira sinatu ziren, eta gatazka horiek dira kezka handiena sortzen dutenak. Honela, barne-gerrei dagokienez, –gaur egun gehienak dira– bakarrik NZHren zati txiki bat da aplikatzekoa, Genevako Lau Hitzarmenek eta II. Protokoloak komunean duten 3. artikulua, hain zuzen ere. Aipaturiko 3. artikulua bizitzaren eta duintasunaren aurkako atentatuak, bahituak hartzea, eta aurrez epaitu gabe zigortzea edo exekutatzeko debekatzen du, «nazioarte-mailakoak ez diren gatazka armatuen» esparruan. II. Protokoloak aplikazio-eremu mugatuagoa du, ezaugarri eta indarkeria antolatuen maila jakin batzuk dituzten barne-gatazkei buruzkoa baita, talde armatu antolatu izenaz ezagutzen diren baldintza jakin batzuk betetzen dituzten eragile armatu disidenteak dauden gatazkei buruzkoa, alegia: agintari arduraduna, nazio-lurralde zati baten kontrol efektiboa, eta operazio militar artikulatu eta erregularrak egiteko gaitasuna. Baldintza horiek betetzen ez dituzten tentsioetako eta barne-indarkeriako kasuetan, NZH ez da aplikatzekoa, giza eskubide zibil eta politiko orokorrak baizik. Bestalde, erantsi beharra dago Estatu askok uko egin diola talde horiek NZHren menpeko subjektutzat hartzeari, horrek nolabaiteko estatus politikoa eta nazioarteko onarpenera emango dien beldur.

Hala ere, II. Protokoloak berak zehazten du horren aplikazioak ez duela inolako aldaketarik eragiten alderdien estatu-tu juridikoan.

NZH efektiboki betetzeko, Estatuak horren aplikazioa bermatzeko beharrezkoa den legeria eta beste neurri batzuk hartzera behartuta daude. Baina, gainera, Genevako Hitzarmenek eta I. Protokoloak nazioarteko aplikazio-mekanismo bat barne hartua dute, potentzia babesleen sistema, hain zuzen ere. Hau da, gatazkan dauden Estatuak gatazkan nahastuta ez daudenak borondatez izenda ditzakete hiru eginkizun betetzeko: Hitzarmenak betetzen direla kontrolatzea; aurka dauden alderdien arteko komunikazioa, Hitzarmenak aplikatzearen; eta biktimei sorospena eta laguntza emateko jarduerak. Sistema hau gutxitan erabili izan da, hein handi batean Estatuak arteko gerretarako pentsatuta dagoelako, eta horrelako gatazkek gaur egun oso gutxitan gertatzen dira. Euren hutsune nagusia hau da: Potentzia babesle bat izendatzea ez da nahitaezkoa; aldiz, horretarako Estatuak baimena behar da. Subiranotasun-printzipioari jarraiki, hauek dute azken hitza.

Praktikan, NZHren betetze-maila eskasa izan da nazioarteko gatazketan. Baina are zailagoa da gaur egungo barne-gatazketako egoera; hauetan NZHren urratzea handitu egin da, biztanleria zibila bera helburutzat hartzen duten estrategia eta taktika militarrek direla medio, hala nola, genozidioa, *garbiketa etnikoa* delakoa, gosetea gerra-armatza erabiltzea, bahituak hartzea eta giza ezkututzat erabiltzea, edo zibilen aurkako erasoak eta euren ondasun materialak suntsitzea. Honetarako guztirako lagungarria da egungo gerra zibiletan –hauen ezaugarrietako bat talde etniko edo erlijio-soen arteko borroka da– zibilak eta borrokalariak bereiztea ez izatea NZHn ageri den bezain erraza.

## 2.2. Giza eskubideak eta beste tresna juridiko batzuk

Ekintza humanitarioaren beste legezko oinarri bat giza eskubideei buruzko itunek eta hitzarmenek osatzen dute; hauek lagungarriak izan daitezke ekintza humanitarioa, karitate-auzitza hartu ordez, elkartasun-irizpidetzat (berdinen arteko harremana), eta baita obligazio-irizpidetzat ere (obligazioak eskatzen dituzten eskubideak) hartzeko.

Esan dugun bezala, giza eskubideak gizaki guztiei dagozkie gizaki izateagatik; hala ere, gai honi buruzko itun gehienek ematen diete sinatu dituzten herrialdeei gerra-egoeretan

eskubide horiek bertan behera uzteko aukera. Hala ere, giza eskubideen *muina* ezin da inoiz indargabetu. Hau honakoek osatzen dute: bizitzarako eskubideak, torturaren eta beste tratu anker eta iraingarri batzuen debekua, esklabotzaren debekua, eta alde aurretik epaitua izan gabe kondenatua ez izateko eskubidea. Azken batean, bake-egoeretan soilik da guztiz aplikagarria; gerra-testuinguruetan, ordea, hein batean baino ezin da aplikatu.

Asko dira ekintza humanitarioari aplikatzeko giza eskubideekin loturiko tresna juridikoak; beraz, nabarmenenak baino ez ditugu aipatuko. Lehendabizi, Nazio Batuen 1945eko Gutuna aipatu behar da, hori baita nazioarteko gizarteak dituen arazoak, humanitarioak barne, konpontzeko Estatuaren arteko ekintza eta lankidetzaren esparrua.

Hala ere, Gutunak berak ezarri duenez, Estatuaren arteko harremanak nazioarteko eskubidearen bi printzipio klasikoekiko errespetuan oinarritu behar dira, hala nola, Estatuaren subiranotasunean eta beste Estatu baten barne-azietan esku ez hartzean. Honela, nazioarteko ekintza humanitarioak, lehendabizi, beharrezkoa da hori hartuko duen Estatuaren baimena. Dena den, Gutunak printzipio horiekiko salbuespenak ere hartu ditu barne; izan ere, VII. kapituluaren Segurtasun Kontseiluak Estatu batzuei nazioarteko bakea eta segurtasuna mehatxatu edo urratu duen beste Estatu baten aurka jarduteko baimena eman dezakeela ezarri du. 90eko hamarkadan aldaketa garrantzitsua izan da; hain zuzen ere, larrialdi konplexu askotan (hala nola, Bosnia eta Herzegovina, Somalia, Ruanda edo Kosovo) izan diren giza eskubideen urraketa larri eta masiboak (genozidio-praktikak, garbiketako etnikoa, etab.) nazioarteko bakea eta segurtasunarekiko mehatxutzat hartu ditu Segurtasun Kontseiluak. Honi esker, esku-hartze humanitarioak areagotu egin dira; hauek, zorrozkari, Estatu batek edo batzuek beste batean giza eskubideen urraketa larri eta masibo horiek eteteko, eta gobernu subiranoak asistentzia humanitarioa iristea eragozten duenean biztanleriak behar duen asistentzia humanitarioa ezartzeko ekingarriko ekintza militarrik dira.

Ikusten den bezala, Gutunean bi printzipio juridikoren arteko oreka dago: alde batetik, Estatuaren subiranotasunarena, eta bestetik, Estatuak eta nazioarteko komunitatea delakoak giza eskubideak errespetatzeko eta babesteko duten obligazioarena. Gerra Hotzaren ostean, dilema hori aldatu egin da hein batean, eta lehenengoa ahuldu egin da bigarrenaren mesedetan; horrek, behartzeko esku-hartze humanitarioak ez ezik, oro har ekintza humanitarioaren eragilean inguruko



eskubide eta obligazio guztiak birformulatzea eta hezurramitza ere ekarri du. Zehazki, hauek dira eskubide eta obligazio nagusiak:

- *Asistentzia humanitarioaren zuzenbidea*; honek erakunde humanitarioei gatazka armatuetako biktimei laguntzeko eskubidea ematen dieten Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren arau guztiak biltzen ditu.
- *Asistentzia humanitariorako eskubidea*; honen arabera, gatazketako eta beste hondamendi batzuetako biktimek berehalako beharrak asetzeko laguntza eta babesa eskatzeko eta jasotzeko eskubidea dute. Honen aldekoak gero eta gehiago badira ere, eskubide hau oraindik ez dago guztiz onartua.
- *Asistentzia humanitarioa emateko betebeharra*; obligazio hau asistentzia humanitariorako eskubidetik eta Nazio Batuen Gutunaren zein Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren hainbat xedapenen ondoriozkoa da; hala ere, zaila da zehaztea eta gauzatzea.
- *Biktimgana heltzeko eskubidea*, edo agentzia humanitarioek hondamendiak jotako herrialdeetan segurtasun fisikoa gordez eta mugitzeko askatasunez sartzeko duten eskubidea, honela beharrak independentziaz ebaluatu ahal izateko eta laguntza zuzentasunez banatu ahal izateko. 90eko hamarkadan, Nazio Batuen Batzar Nagusiaren eta Segurtasun Kontseiluaren hainbat ebazpenek eskubide hau abalatu dute, eta laguntza humanitarioa eragozteko NZHren urraketatzat kondenatu dute.
- *Estatuek nazioarteko laguntza humanitarioari nahierara uko ez egiteko betebeharra*; bake-egoeretan betebeharrak hau giza eskubideak asetzeko obligazioaren ondoriozkoa da; obligazio hori, adibidez, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenean barne hartuta dago; gerra-garaietan, berriz, NZHren eta Segurtasun Kontseiluak horri buruz emandako ebazpenen ondoriozkoa da. Honela, Estatuak salbuespen gisa soilik dute agentzia humanitarioei sartzeko aukera, euren asistentzia ez dela inpartziala izango eta etsaiarentzat onuragarria izango delako susmoa dutenean, alegia; adibidez, etsaiak kontrolpean dituen zonaldeetara bideratzen baldin bada, edo politikoki legitimatzeko balio badu.

Eskubide eta obligazio orokor hauez gain, beste tresna juridiko zehatzak ere aipa litezke ekintza humanitarioaren euskarri gisa; horien artean, batzuk baino ez ditugu zerrendatuko.

- *Elikagairako Giza Eskubidea*, adibidez honakoetan bilduta ageri dena: Giza Eskubideen Nazioarteko Adierazpenean, Genevako Hitzarmenetan (gerra-garaietarakoak), eta batez ere, Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Hitzarmenaren 11. artikuluan. Pertsona guztiek behar adinako elikadura egokia izateko duten eskubide honek obligazio nagusiak ezartzen dizkie Estatuari; hauek, berriz, errespetatu, babestu, eta beharrezkoa izanez gero, zuzenean ase behar dute, gauzatzen duten birbanaketa edo asistentzia politiken bidez. Dena den, nazioarteko komunitatea ere behartuta dago eskubide hori gauzatzera nazioarteko lankidetzaren bidez; honek nazioarteko ordena ekonomiko zuzenagoa sustatzetik herrialde pobreeni behar duten laguntza hornitzerainoko ondorioak ditu. Nolanahi ere, beste eskubide sozioekonomiko batzuekin gertatzen den bezala, elikadurarako eskubidea modu erretrikoan aipatu ohi da, eta ez da borondate politikorik izan juridikoki loteslea den eskubide gisa garatzeko.
- *Haurraren Eskubideei buruzko Konbentzioa*, NBEren Batzar Nagusiak 1989an onartutakoa; nazioarteko itun loteslea eta ia guztiz unibertsala da, AEB berretsi ez duen herrialde bakarra baita. Azpimarratzekoa da, eskubide zibil eta politikoez gain (bizitzarako eskubidea, adierazpen, erlijio askatasuna, etab.), Konbentzioak hainbat eskubide sozioekonomiko ere bildu dituela (osasunerako, hezkuntzarako, gizarte segurantzarako, bizi-maila egokirako eskubidea, etab.); azken hauek pixkanaka betetzen joan behar dira, Estatuak dituzten baliabideek ahalbidetzen duten neurrian, eta horretarako, beharrezkoa izanez gero, nazioarteko lankidetzaz izan dezakete.
- Genevan 1951n egin zen *Errefuxiatuen Estatutuari buruzko Konbentzioa* eta ondorengo *Protokoloa*, 1967koa; hauek errefuxiatuei Nazio Batuen eremuan nazioarteko babesa emateko sistema orokorra osatzen dute, eta honakoak dira euren eragile nagusiak: Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa (ACNUR/ENBGK) –baberestu eta ikuskatzen duena–, eta baita harrera-gobernuak eta GKEak ere. Sistema honek errefuxiatuen babes legala bermatzen du, bereziki *non-refoulement* delako printzipioaren bidez –edo beste Estatu batera ez itzulazteko bermea han errefuxiatuaren bizitza edo askatasuna mehatxupean baldin badaude–, baina baita beste eskubide batzuk aintzat hartuz ere, hala nola, lanerako, hezkuntzarako, elkartzeko eta asistentzia publikorako

eskubideak. Era berean, sistemak biztanleria errefuxiatuentzako asistentzia materiala ezartzen du, adibidez errefuxiatu-esparruetan eman beharreko aldi baterako erantzun gisa, eskala handiko nahitaezko desplazamenduen kasuan. Bestalde (II. kapituluaren, 4.6 puntuan esan dugun bezala), euren herrialdetik atera gabe ihes eginda dauden *barne-desplazatuak* ez dute euren babesa bermatzeko aurrekoa bezalako tresna juridikorik. Nazio Batuek 1998an onarturiko Barne Desplazamenduari buruzko Printzipio Gidaria ez da loteslea.

- *Nazio Batuetako langileen eta langile elkartuen segurtasunari buruzko Konbentzioa*, Nazio Batuen Batzar Nagusian 1994an onartutakoa. Konbentzio honek, Nazio Batuek zuzenean kontrataturiko pertsonen babes eta gobernuekin, gobernuen arteko agentziekin edo GKEekin sinaturiko itunei jarraiki hauekin elkartutakoen babesa arautzen du. Langile humanitarioen integritate eta segurtasun fisikoaren aurkako mehatxuak azken hamarkadan areagotu den arazo bihurtu dira, larrialdi politiko konplexuek gorakada izugarria izan dute-eta. Horregatik, Konbentzio horrek Genevako Konbentzioen eta euren Protokolo Gehigarrien xedapenak sendotzen ditu, eta langile humanitarioei zibilak direla-eta babes orokorra ematen die, eta Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordeari babes indartua ematen dio, bere ikurrari eta langileei immunitatea ematen dlen berariazko hainbat arauen bidez.
- *Emakumearen aurkako Diskriminazio Modu Guztiak Kentzeari buruzko Konbentzioa*, 1979koa. Honek, diskriminazio hori ez-bidezkotzat eta giza duintasunarekiko iraintzat kalifikatzeaz gain, gizon-emakumeen arteko berdintasun-printzipioa aplikatzen du berariazko hainbat eremutan, hala nola, parte-hartze politikoan, gaitasun juridikoan, edo hezkuntzan. Era berean, azpimarratzekoa da Vienan 1993an egin zen Giza Eskubideen Munduko Konferentziaren Adierazpena; izan ere, zorrotz agertu zen emakumeen eskubideak arlo guztietan aintzat hartzearen alde; eskubide horien artean, biolentzia eta sexu jazarpen zein esplotazioa ez jasateko eskubidea dago barne hartuta.

## VII

Larrialdia/garapena arteko lotura  
eta beste zeharkako irizpide batzuk

Ikusi dugun bezala, ekintza humanitarioa konplexua eta askotarikoa da, bai bere edukiei eta baita bere helburuei zein jarduteko testuinguruei dagokienez. Horregatik, ezinezkoa zaigu kasu bakoitzean egokiak liratekeen jarraibide tekniko eta mekanismo operatibo guztiak hemen zehaztea; informazio hori hainbat erakunde humanitarioen eskuliburu espezializatuetan lortu ahal izango du irakurleak. Honela, azken kapitulu honetan, gure asmoa hau da soilik: ekintza humanitarioaren jarduera guztian aplikatzekoak izan litezkeen edo izan beharko luketen zeharkako irizpide orokor nagusietako batzuk azaltzea.

## 1. LARRIALDIA/GARAPENA ARTEKO LOTURA

Tradizionalki, laguntza humanitarioa garapenerako lankidetzatik argi eta garbi bereizirik dagoen elementutzat ulertu eta gauzatu da. Elkarren arteko desberdintasunak fronte guztietan ikusi ahal izan dira: jatorri historikoa, oinarri etiko eta legalak, helburuak, denbora-esparruak, mekanismo operatiboak, batean edo bestean espezializatuta dauden erakundeak, aurrekontu-ildoak, etab.

Hala ere, 80ko hamarkadaren erdialdean Afrikan izandako lehorteak zirela-eta, laguntza humanitarioa eta garapenerako lankidetzak lotzeko moduari buruzko eztabaida bizia piztu zen. Lotzeko proposamen honen oinarria hiru ideiak osatzen dute: a) larrialdiko laguntzaren edo laguntza humanitarioaren helburuak, bizitzak salbatzea eta hondamendietako biktimen sufrimendua arintzea ez ezik, garapena ahalbidetuko duten


oinarriak ezartzea ere izan behar duela; *b*) garapenerako lankidetzak giza talde urrakorrenetara bideratuta egon behar duela berariaz, berriro larrialdi-egoeretan erortzeko arriskua murriztearren; eta *c*) birgaitzea jarduteko eremu erabakigarria dela aurreko bien arteko lotura egokia gauzatzeko.

Lotzeko proposamena sortzearen arrazoiak hainbat izan ziren. Lehena, egiaztatu izana laguntza humanitario aringarri hutsa, bizitzak salbatzera eta sufrimendua arintzera bideratutakoa, alegia, ez dela nahikoa, ez baitu eragozten etorkizunean berriro sortzea larrialdi-egoerak. Bigarrena, hondamendien ikuskera teoriko berria; hauen arabera, hondamendiak ez dira aurreko egoerarekin zerikusirik ez duten salbuespeneko gertakizun anormalak, egitura ekonomiko, sozial eta politikoen araberako aurretiko urrakortasun-testuinguru baten ondorioa baizik. Hala, larrialdi-egoerak hondamendi aurreko testuingurutik ezin direla deslotu ulertuta, dagoeneko ez du zentzurik laguntza humanitarioaren (larrialdian zehar) eta garapenerako lankidetzaren (hondamendiaren aurretik edo ondoren) bereizketa zorrotzari eustea. Hirugarrena, 90eko hamarkadaren zati handi batean garapenerako lankidetzaren finantziazioa murrizteko eta laguntza humanitarioarena areagotzeko izandako joera; horrek eragin du laguntza humanitarioak epe luzeragorako helburuak izatea lortzen ahalegintzea. Laugarrena, bi laguntza-mota hauen arteko esku-hartzeko bitarteko moduek lortu duten gero eta pisu handiagoa, hala nola, hondamendi osteko birgaitzeak, hondamendietarako prestaketak edo horien prebentzioak.

90eko hamarkadan, eztabaida hau giro akademikoan zein emailen eta agentzia humanitarioen artean zabaldu zen; hala, hamarkada horren erdialdetik, loturaren helburua *humanitarismo berriaren* ideia nagusietako bat izatera iritsi da. Gainera, aurreko hamarkadan, eztabaida kalamitate naturalek eragindako hondamendietan ez ezik –hasieran bezala–, gatazka armatuetako testuinguruetan eta larrialdi politiko konplexuetan ere aplikatzen hasi zen. Hauetan gauzatzeko arazoak izan dira eta horregatik, kritikatu egin dute.

Loturari buruzko eztabaidak bi proposamen edo ikuspegi nagusi izan ditu. Sortu zen lehena larrialdia/birgaitzea/garapena *continuum* delakoa izan zen; segidako hainbat fase kronologiko dagoelako ideia hartzen du oinarri, hau da, larrialdi, birgaitze eta garapen faseak; horietako bakoitza beste bukatutakoan hasten da. Fase-segida hau ondoko grafikoan azaltzen da; grafikoan *arintzea* txertatu da; hala ere, hau berez ez da garapenekotik bereiz daitekeen fase bat, sortzen ari den hondamendi baten eragina txikiagotzera bideraturiko jarduera-multzo bat baizik.

*Continuum* honek fase batetik besterako trantsizio harmonikotzat hartzen du lotura; horretarako, beharrezkoa da, adibidez: horietako bakoitzean inplikaturik dauden agentzien arteko koordinazio ona, denboraren programazio egokia –proiektuen bukaera-aurreikuspena barne hartuta–, eta horien kudeaketaren eta lorturiko informazio zein eskarmentuaren eskualdatze arina.



Dena den, hainbat kritikek zalantzan jarri zuten eredu hau. Zenbait egilek azaldu duen bezala, ez da zuzena garapena bide lineal eta mailakakotzat, eta hondamendia bide horren unean uneko etendura apartekotzat hartzea, larrialdiko eta birgaitzeko laguntzari esker berriro har daitekeen bidetzat, alegia. Aldiz, egungo gizarte-aldaketak sarritan ez dira mailakakoak izaten, aurreikusteekin eta nahasiak baizik. Hondamendiak, berriz, ez dira anormalak, aurretik bazegoen urrakortasun estrukturalako testuingurutik sorturiko prozesuak baizik. Azken batean, ez du zentzurik denboran zehar argi eta garbi bereizitako faseez aritzeak, batez ere, larrialdi politiko konplexuez ari bagara. Hauek, unean uneko krisialdiak izan ordez, sistemaren krisialdi endemikoak dira, eta oso zaila da hauetan hondamendiaren aurreko, bi-tarteko eta ondorengo faseak bereiztea.

Honela, 90eko hamarkadako erdialdera-edo bigarren ikuspegi bat finkatua zen, larrialdia/birgaitzea/garapena contiguous-arena, hain zuzen; honek proposatzen duen lotura ez da diakronikoa, sinkronikoa baizik. Hau da, larrialdiko,


birgaitzeko eta garapeneko laguntzak ez ditu segidako fase kronologikotzat hartzen, hainbat helburu duten hiru esku hartzeko modutzat baizik, epe luzera planifikaturiko jardun integraleko esparru batean aldi berean konbinatu behar diren esku-hartze gisa, alegia. Honela, esku hartzeko mota guztiak egiteko aukera dago une oro; hori bai, horietako bat besteekiko lehenetsiz, egoeraren arabera.

*Contiguum*-aren ikuspegia grafikoki ikus daiteke ondoko laukian; bertan azaltzen da hainbat egoeratan zenbait jarduteko moduri eman beharreko garrantzi erlatiboa, dagoen urrakortasun-mailaren arabera. Hala, larrialdiko testuinguruetan biziraupena bermatzeko eta sufrimendua arintzeko berehalako helburuak dira nagusi, ondasunak emanaz eta oinarrizko zerbitzuak hornituz; horrek ez du eragozten epe luzeagoan eragina izango duten beste jardun batzuk era barne hartzea. Urrakortasuna eta krisialdia murrizten diren heinean, berriz, epe luzerako garapeneko esku-hartzeen tresna eta irizpide ohikoagoak pixkanaka sendotzen dira: plangintza zehatza, urrakortasun estrukturalarekiko erantzuna, parte-hartze komunitarioa, genero-ikuspegiarekiko arreta handiagoa, erakundeak sendotzea, ahalmenak sendotzea, etab.

Loturari buruzko diskurtsoa bere egin dute espezialista, emaille eta agentzia humanitario gehienek. Ondorioz, laguntza humanitarioan espezializaturiko erakunde askok garapenera bideraturiko lan-ildoak hartu dute, eta garapenerako lankidetzan diharduten erakundeak, berriz, hondamendiarrako prestakuntzari eta hauen prebentzioari buruzko arloak jorratzen hasi dira. Nolanahi ere, elkarrizketa praktikan gauzatzea erretorikaren atzetik joan da oso, arazo asko direla eta: laguntza-mota bataren eta bestearen arteko desberdintasun instituzional eta operatiboak, erakundeen artean koordinatzeko zailtasunak, laguntza humanitarioak komunikabideen arreta bereganatzeko eta finantziazioa lortzeko ahalmen handiagoa izatea, etab.

Salbuespenak salbuespen, gehienek onartu dute lotura helburu positiboa zela, eta eztabaidak hori lortzeko irizpide teknikoei buruzkoak izan dira soilik. Baina, azken urteetan hainbat egilek eta erakundek helburuaren beraren aurkako kritika ugari egin dituzte, sortzen dituen arrisku eta arazoak direla medio. Kritika horietako batzuk *humanitarismo berriaren* aurka egiten diren berberak dira; bere garaian ikusi bezala (III. kap., 3. puntua) honakoei buruzkoak dira: laguntza humanitarioaren politizazioa, hau epe luzeragoko garapen-helburuekin lotzearen ondoriozkoa; laguntzak irizpide politikoak jarraitzearen ondoriozko printzipio humanitarioen





*Iturria:* ROCHE, Chris (1998), «Operacionalidad en la turbulencia. La necesidad de un cambio»-tik egokitua, EADE, Deborah (ed.), *Desarrollo en Estados de Guerra*, Oxfam-CIP-Intermon, Madril, 17-27. orr.

bazterketa; ahalmenik ez duela-eta, laguntza humanitarioak konpondu ez eta nazioarteko komunitateak erantzunik ematen ez dien arazo politikoak konpontzeko alferrikako ilusioa; eta gobernu emaileek lotura-helburua beretzat hartu izana sistema humanitarioaren eta GKEen gaineko kontrola areagotzeko.

Laguntza humanitarioaren arloan gaur egun nagusia den ereduari buruz lehen azaldu ditugun kritika hauez gain, zenbait egilek larrialdia/garapena arteko loturari buruzko eztabaida soilik ardatz duten beste batzuk ere egin dituzte, hala nola:

- a) *Garapen (neo)liberalaren sustapena*. Ideologikoki, garapena ez da prozesu neutroa. Horregatik, emaileek laguntza humanitaria garapenerako lankidetzarekin lotzearen alde egin duten apustuak, lehenengoa garapen-kontzeptu neoliberala zabaltzearen zerbitzura erabiltzea dakar, nazioarteko finantza-erakundeek eta emaileek eurek sustaturiko doikuntza estrukturaleko erreformak bultzatzen dituen kontzeptu bera.
- b) *Desarrollismoa larrialdi politiko konplexuetan aplikatzeko ezintasuna*. Larrialdiko laguntzaren bidez eta birgaitzearen bidez garapen-prozesuari berrekiteko aukera dagoela azaltzen duen ideia erabilgarria izan daiteke katastrofe naturalek eragindako hondamendietarako. Baina ez du balio larrialdi politiko konplexuetarako. Hau da, erdi desegituratuta dauden estatuetakoa gatazka armatuetako testuinguruetarako; izan ere, horietan krisialdia une jakin batekoa izan ordez kronikoa eta estrukturala da, eta etorkizunean garapena lortzeko itxaropena ameskeria hutsa da.
- c) *Kuasi-Estatuen subiranotasunik eta legitimitaterik ezak garapenarekiko lotura eteten dute*. Gatazkan edo gatazka ostean dauden estatu ahulek erakundeei eta finantzei dagokienez, ez dute ahalmenik izaten GKEek gauzaturiko laguntza humanitarioko proiektu txiki eta zatikatuak alde batera utzi eta nazio-mailako garapen politika zabalei ekin ahal izateko. Era berean, erregimen horietako askok nazioartean behar adinako onespina ez dutenez, emaileek ez dute beraiekin garapenerako lankidetzan aritu nahi izaten, horrek euren politika publikoak babestea, euren erakundeak sendotzea, eta azken batean, nazio zein nazioarte mailan legitimatzea ekarriko bailuke. Horregatik, sarritan, emaileek luze iraunarazten dute laguntza humanitaria, honek ez baitakar dagoen agintaritza aintzat hartzea edo politikoki legitimatzea, eta beraz, garapeneko ikuspegia sustatzea praktikan bideraezina izaten da.

Bukatzeko, esan genezake larrialdia/garapena arteko loturari buruzko eztabaida gauzatzeak zenbait zailtasun eta arrisku dakartzala, batez ere gobernu emaileek beretzat hartu izanaren eta erabili duten moduaren ondorioz. Horregatik, laguntza humanitarioaren eta garapenerako lankidetzaren arteko bereizketa garbia berriro ezartzearen alde ageri da zenbait egile eta erakunde; hala, lehenengoa bizitzak salbatzeko eta sufrimendua arintzeko helburu tradizionaletara mugatuko da. Gure iritziz, ordea, loturaren helburua baliozkoa da oro har, berehalako beharrei zein etorkizuneko arriskuei erantzutea baitu helburu. Dena den, uste dugu beharrezkoa dela laguntza humanitarioaren zati batek gutxienez printzipio humanitarioak soil-soilik izatea ardatz, beste alderdi politiko batzuk alde batera utzita, laguntza neutrala eta independentea bermatzeko, krisialdi-testuinguruetan laguntza behar duten guztientzako eskubidetzat hartutako laguntza, alegia.

## 2. LAGUNTZA HUMANITARIOA GAUZATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

### 2.1. Berehalako beharren eta etorkizunerako garapenaren arteko konbinazioa

Ikusi berri dugun eztabaidaren esparruan, 80ko hamarkadaren erdialdetik garapenera bideraturiko laguntza humanitaria gauzatu da nabarmen (*developmental relief*); horren helburuak hondamendiek kalteturikoen bizitzak salbatze eta sufrimendua arintze hutsetik haratago doaz, epe luzerakoak dira. Izan ere, laguntzak pertsona horien berehalako beharrei erantzun behar die, talde urrakor bakoitzaren berariazko beharretara egokituz. Baina, gainera, epe luzerako asmoa izan behar du, eta kalteturiko giza taldeen berehalako beharrei unean uneko erantzun aringarria eman ordez, etorkizuneko garapena izan behar du kontuan, bere eragina epe luzera iraunkorra izatea sustatuz, bere kalitatea eta eraginkortasuna areagotuko duen irizpide gisa.

### 2.2. Ahalmenak sendotzea eta urrakortasuna murriztea

Laguntza humanitarioak berehalako helburuei erantzuteaz gain, epe ertain eta luzekoei ere erantzuteko, helburu bikoitza

izan behar du: hondamendi-eszenatokiak izatea errazten duen urrakortasuna murriztea, eta tokian tokiko ahalmenak (gizarte zein erakunde mailakoak) areagotzea, hondamendiei baldintza hobeeetan aurre egin ahal izateko eta baldintza hobeeetan leheneratzeko. Gainera, *contiguum*-aren ikuspegitik –horren arabera, laguntza-modu guztiak (larrialdikoa, birgaitzekoa eta garapenekoak) jarduteko esparru integral batean konbinatu behar dira–, urrakortasuna murriztea eta ahalmenak sendotzea laguntza guztiek izan beharreko bi zeharkako helburu izan beharko lukete, hartara esparru horri koherentzia emateko. Bi helburu horiek gauzatzeko beharrezkoak dira ondoren xehatuko ditugun hainbat irizpide.

### 2.3. Ahalmenen eta urrakortasunen azterketa

Unean uneko egoera aritzeaz gain, epe luzearako helburuetarako lagungarria izateko asmoz emandako laguntzako esku-hartze orok kasuan kasuko errealitateara egokitu behar du, krisialdi-eredu jakin baten arabera aurrez ezarritako erantzun estandarizatuak saihestuz. Beraz, unean uneko beharren eta jasandako hondamendiaren ondorio zehatzen estimazioa izan behar du abiapuntu, kontuan izanik hainbat hondamendi-mota dagoela (katasstrofe naturalek, gatazkek edo asaldaketa ekonomikoek eragindakoa; mantso eraten direnak edo bat-batean sortzen direnak), eta bakoitzak eragiten dituen kalteak desberdinak direla.

Baina, unean uneko behar hutsetatik haratago, beharrezkoa da aztertzea lan egin beharreko komunitatearen *urrakortasunaren* (alderdi ahulak) eta *ahalmenen* (sendotasunak) egoera. Horretarako, bada eragile humanitarioen artean gero eta onespen handiagoa izan duen tresna xume eta erabilgarria: Anderson-ek eta Woodrow-ek eginiko *Ahalmenen eta Urrakortasunen Azterketa* (ikusi bibliografia), aurretiazko diagnostikorako zein laguntza proiektuen diseinu, jarraipen eta ebaluaziorako balio duen metodologia. Azterketa hau, ondoko matrizea aplikatuz komunitate baten ahalmenen eta urrakortasunen sailkapena egitea da, hiru maila desberdinetan:

#### a) *Urrakortasun eta ahalmen fisiko-materialak*

Komunitateak ez dituen faktore materialak (urrakortasunak) edo dituenak (ahalmenak) dira: produkzio-baliabideak, dirua, azpiegiturak, teknologia, etxebizitza, ingurumen-baldintzak, osasun-egoera, nutrizio-egoera, etab. Hiruren artean dimentsio nabarmenena denez, nazioarteko laguntza dimentsio honetara bideratutakoa izaten da lehentasunez.

b) *Urrakortasun eta ahalmen sozialak/antolamenduzkoak*

Gizarte-egituraren hainbat osagarri kohesioa sortzen duten eta horrela krisialdiari aurre egiten laguntzen duten ahalmenak osatzen dituzte: elkartasuneko gizarte-sareak, aitzindaritza legitimoak, erabakiak hartzeko prozesuak, ehun zibila, hezkuntza-sistema, etab. Beste batzuk, ordea, krisialdia indartzen duten urrakortasunak dira: gizarte-desegituratzea, aintzat harturiko liderrik eza, hainbat arrazoik eragindako borrokak (arraza, hizkuntza, erlijioa), etab. Nazioarteko laguntza orain dela gutxi hasi da dimentsio hau aintzat hartzen.

c) *Motibazioen edo jarrereren urrakortasunak eta ahalmenak*

Faktore psikologikoen ere funtsezko eragina dute hondamendi baten aurreko urrakortasunean, bai eta horri eusteko edo ondoren leheneratzeko ahalmenean ere. Urrakortasunaren kausen artean, etsipen, fatalismo, biktimismo edo mendekotasun jarrerak ageri dira. Ahalmenen artean, honakoak dira nabarmenenak: komunitatearen beraren ahalbideekiko konfiantza, adorea eta borrokarako joera, eta helburu berengan sinestea. Dimentsio hau da, zalantzarik gabe, neurtzen zailena eta laguntza-proiektuetan aintzat hartze maila txikiena duena.

Matrizearen sei esparruen artean, jakina, interkonexio eta gainjartzeak daude; hori lerro etenez adierazten da. Adibidez, giza talde urrakorren motibazio eta gizarte-antolamendua hobetzea lagungarria izan daiteke euren diru-sarrerak hobetzeko balioko duten produkzio-proiektuek arrakasta izateko.

Ahalmenak eta Urrakortasunak Aztertzeako Matrizea		
	Urrakortasunak	Ahalmenak
Fisikoak/Materialak Zein produkzio-baliabide, ezagutza eta arrisku daude?		
Sozialak/Antolamenduzkoak Zeintzuk dira pertsonen arteko harremanak eta antolamendua?		
Motibazioenak/jarrererenak Nola ikusten du komunitateak aldaketa eragiteko trebetasuna?		

*Iturria:* Anderson eta Woodrow (1989).

Metodo hau gehixeago findu daiteke hainbat gizarte-talderen berariazko urrakortasunak eta ahalmenak aztertzeko, zenbait aldagai txertatuz: generoa, adina, etnia, gizarte-klasa, etab. Hala, aurrekoa oinarri hartuta aldaturiko matrize batek urrakortasunen esparrua eta ahalmenena bi zutabetan bereizten du: bata gizonentzat eta bestea emakumeentzat.

Bestalde, urrakortasunak nahiz ahalmenak areagotu edo murriztu egiten direnez denboran zehar, aztertzeko metodo hau ezin da fotofinko baten moduan erabili; aldiz, hainbat unetan aplikatu behar da egoeraren bilakaera ikusteko.

Azkenik, laguntza humanitariorako azkar planifikatzea eta gauzatzea beharrezkoa denez, garrantzitsua da eragile humanitarioek alde aurretik tokiari buruzko ezagutza izatea, bai eta biztanleriaren urrakortasun eta ahalmen baldintzei buruzkoa ere. Aurretiazko ezagutza hau hondamendiei aurre egiteko prestakuntza delakoaren zati da, hau da, informazioa eta ahalmenak eskuragarri izatea ahalbidetzen duten mekanismoak ezartzearena (alerta goiztiarreko sistemak, zonaldearen urrakortasunari buruzko azterlanak, hondamendietan koordinatzeko organoak, krisialdietan martxan jartzeko kontingentzia-planak, elikagaien eta beste material batzuen erreserbak, etab.).

#### 2.4. Kalterik ez eragitea

Laguntza humanitarioko esku-hartzeek, lehenengo baldintza gisa, «kalterik ez eragiteko» ahalegina egin behar dute, Mary Andersonen hitzetan (*Do no harm*, 1999. Ikusi bibliografia); hau da, konponbideak baino arazo gehiago ez sortzekoa. Honek, adibidez, zera dakar:

- Ez laguntzea gatazka armatua areagotzen, gatazkan dauden gerra-ekonomiarako baliabideak ematea edo borrokan dauden fakzioetako bat indartzea saihestuz.
- Ez sortzea kanpoko laguntzarekiko mendekotasuna, hori biztanleriari bere garapenean eraginkor jokatzeko aukera kenduko liokeen oztupoa izango litzateke-eta.
- Bertako biztanleriaren ahalmenak ez urratzea, hala nola, krisialdiari aurre egiteko dituzten estrategiak, euren kapital soziala edo euren gizarte-sareak.
- Herrialde hartzaileen ahalmen administratibo eta operatiboa ez ahultzea, horrek etorkizunean euren ahalmenak ardatz dituen garapen iraunkorra lortzeko aukera urritu egingo bailuke. Hain zuzen ere, askotan larrialdiko

esku-hartzeetan emaileen euren mendeko tresna zentralizatu eta hierarkizatuak azkar zabaltzen dira; tresna hauek alderdi logistikoak lehenesten dituzte, eta batzuetan bat-batean bukatzen dira. Honek guztiak herrialde horretako erakundeak saihestera darama, eta horrela erakunde horiek ahuldu egiten dira, eta batzuetan baita deslegitimatatu ere bertako biztanleriaren aurrean.

## 2.5. Zerbitzuak eta azpiegiturak sendotzea

Laguntza, unean uneko eginkizun asistentzial hutsetan bildu beharrean, oinarrizko zerbitzu eta azpiegiturak sendotzera bideratu behar da izaera iraunkorra emanez, etorkizuneko garapenerako lagungarriak izateko. Horretarako beharrezkoa litzateke krisialdia iragandakoan epe luzean erabiltzea ahalbidetzen duten irizpide jakin batzuei jarraitzea (kokapen geografiko egokia, bertako material ekonomikoak, mantentzea errazten duen teknologia egokia, etab.). Beste irizpide erabilgarria da laguntza humanitarioa larrialdi-testuinguruetan aurretik zeuden garapenerako programak sendotzeko balio duen baliabidetzat erabiltzea. Hala, adibidez, azpiegitura sanitarioak edo ura hornitzekoak sor daitezke, dauden osasun eta saneamendu programak epe luzerako sendotzeko, eta horrela, azpiegitura horiek epe luzean erabiltzeko iraungo lukete.

Bada mekanismo zehatz aipagarri bat: Eragin Azkarreko Proiektuak (EAP). ENBGK-k (ACNUR) 90eko hamarkadaren hasieratik erabiltzen ditu errefuxiatuen eta barne-desplazatuaren gizarteratzea euren jatorrizko zonaldeetara itzultzen direnean. Proiektu txikiak, xumeak, eta azkar gauzatzekoak dira, zonalde horietako azpiegiturak eta oinarrizko zerbitzuak hobetzera bideratutakoak, komunitateen egoera eta itzuli berriak bertan hartzeko ahalmena hobetearren. EAP hauetako asko oinarrizko azpiegiturak eraikitzeke izaten dira (eskolak, putzuak, zubiak, osasun-postuak); hala ere, batzuetan enplegurako proiektuak edo prestakuntza-ikastaroak ere izaten dira. Azken batean, hondamendi osteko birgaitze-testuinguruetarako tresna erabilgarria da.

## 2.6. Tokian tokiko egiturak gaitzea

Kanpoko laguntzak dagokion herrialdeko erakunde publikoen eta gizarte-erakundeen planifikatzeko eta kudeatzeko ahalmenak hobetzeko lagungarria izan behar du, larrialdiko

zein garapeneko politikak edo proiektuak kudeatzeko baliabideak areagotuz, bai eta bere *prestakuntza* edo beste hondamendi batzuen aurrean erantzuteko ahalmena ere areagotuz. Atzerriko GKEek bideraturiko laguntza herrialdeko gobernerakundeekin eurekin, eta ahal den heinean, euren bidez koordinatu behar dira. Sendotu egin behar dira eta azkenean erakunde horiek ahuldu eta deslegitimatuko dituzten egitura paraleloak sortzea (hau, adibidez, Mozambiken eta Etio pian gertatu zen 80ko hamarkadan) saihestu behar da, horrek etorkizunean garapena hipotekatu egiten baitu. Horretarako, bertakoen parte-hartzea ere errazteko, laguntza deszentralizazio eta subsidiaritate irizpideen arabera kudeatu beharko litzateke, eta biztanleria onuradunarengana ahalik eta gehien hurbildu.

Hala ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, nazio-mailako erakunde publikoekin horiek sendotzea sustatuz lan egiteak, sarritan arazoak sortzen ditu, eta *kuasi-estatu* izenekoetan (ezegonkortasun edo indarkeria handiko testuinguru eta estatu urrakorrak) batez ere, ez da oso bideragarria; izan ere, emaileek eta eragile humanitarioek errezeloa dute erregimen zapaltzaile edo ustelak sendotu eta legitimatzeko. Kasu hauetan, emaileek gobernuak saihestu eta laguntza humanitarioa nazioarteko GKEen bide pribatuen bitartez bideratu nahiago izaten dute. Ezin hobea izango litzatekeenari buruzko teoria, beraz, ahal den heinean xehatu egin behar da.

## 2.7. Mantenu-sistemei eustea

Garapenera bideraturiko laguntza humanitarioak hondamendiak kalteturikoen berehalako beharrak asetzeaz ez ezik, euren mantenu-sistema edo bizimodua babesteaz ere arduratu behar du, une horretako krisialdiari aurre egiteko, eta etorkizunari begira, euren biziraupena eta garapenerako ahalmena bermatzeko modu hobereana baita. Horretarako komenigarria da laguntza materiala ematea (elikagaiak, dirua, edo baita azientzarentzako bazka ere), krisialdia gainditu ahal izatearren, dituzten haziak jan behar izan gabe edo euren produkzio-baliabideak (azienda, tresneria, lurra) merkeegi saldu behar izan gabe, bizirauteko elikagaiak erosi ahal izateko.

Honi dagokionez, egoera gehienetan, dirua ematea elikagaiak eman beharrean, askoz ere azkar, merke, efiziente eta onuragarriagoa da. Baina horretarako baldintza batzuk bete behar dira, hala nola, dirua jaso dutenek egingo duten elikagai-eskari handiagoari eusteko moduan egongo den tokian tokiko merkatua izatea.



Mantenu-sistemak babesteko mekanismo nagusietako bat sektore urrakorrenentzako enplegu-programa publikoak gauzatzea da. Janaria lanaren truke, edo dirua lanaren truke izeneko programak edo proiektuak dira; horietan, laguntza, gauzaz edo dirutan emandakoa, lan-jardueraren bat egitearen truke emandako ordainsaria izaten da. Proiektu hauek biztanleriaren berehalako beharrak asetzen laguntzen dute eta kanpoko doako laguntzak berez duen arriskua txikiagotu egiten dute, baina aldi berean, epe luzerako garapenerako lagungarriak diren azpiegitura publikoak sortzen dituzte (eraikin publikoak, errepideak, ingurumena zaintzeko obrak, etab.). Beraz, epe motz eta luzerako helburuak konbinatzeko modu egokia dira; horregatik, sortzen ari den hondamendiaren eraginak arintzeko esku-hartzeetan dira bereziki egokiak, hondamendi osteko birgaitzeko esku-hartzeetan, esate baterako. Abantaila hauek eta beste batzuk izan arren, badute arrisku eta mugarik, hala nola, biztanleria guztia lan egiteko moduan ez egotea; beraz, doako emariaren moduko laguntzak ezin dituzte erabat ordezkatu. Nolanahi ere, herrialde askotan nolabaiteko arrakasta izaten dute; adibidez, goseteak izateko joera duten herrialde batzuetan. Etiopian eta Botswanan esate baterako, jasotzen duten nazioarteko laguntza gehiena bideratzen dute proiektu hauen bitartez.

## 2.8. Biztanleriaren ahalmenak aprobeztatzea eta sendotzea

Geldoa edo ezgaiak izan ordez, hondamendiak kalteturiko pertsonak ere, nazioarteko laguntzarako abiapuntutzat hartu beharko liratekeen baliabideak, ezagutzak, antolamendu-mekanismoak eta beste gaitasun batzuk ere badituzte, laguntzak sendotu beharrekoak. Printzipio hau, adibidez, honako irizpideetan bil daiteke:

- *Tokian tokiko erakundeak* erabiltzea laguntza gauzatzeko, GKEen edo agentzia emaileen kontraparte gisa. Erakunde horiek ezagutzen dute ondoen bertako errealitatea; beraz, laguntza bideratzeko elementu hutsak izan ordez, egoeraren diagnostikoan eta esku-hartzearen plangintzan parte hartu beharko lukete. Era berean, laguntzaren zati bat erakunde horietako langileen prestakuntzarako eta erakundeon ahalmen operatiboak sendotzera bideratu beharko litzateke. Epe luzerako estrategia hau garatu ahal izateko, beharrezkoa litzateke laguntza-agentziek *partaidetza-harreman* iraunkorrak izatea tokian tokiko erakundeekin.

Hala ere, irizpide hauek sarritan ahaztu egiten dira, hainbat arrazoi dela medio: emaileek epe motzera azkar eta efizientziaz jarduteko eskatzea (batzuetan tokian tokiko erakundeek ez dute modu egokian bermatzen hau), larrialdiko laguntza hierarkizatu eta goitik beherakoaren aldeko joera tradizionala, eta gaztazkan dauden bandoetako baten alde nolabait ager daitezkeen erakundeekiko mesfidantza.

- *Langileak, baliabide materialak eta tokian tokiko enpresak ahal den gehien erabiltzea.* Presaz aritu behar dutela-eta, esku-hartze premiazkoenek horretarako zailtasunak izan baditzaizkete ere, etorkizuneko garapenerako ere lagungarria izateko asmoa duen laguntzak tokian tokiko baliabideak lehenetsi behar ditu, horrek hainbat abantaila ekarriko baitu: kostuak aurrezteak, langileak prestatzeko aukera, bertako ekonomia dinamizatzea, bertako gizartean hobeto txertatzea, teknologia egokiak erabiltzea, etab.
- Talde urrakorren *kapital soziala sendotzea*, hau da, pertsonak euren gizarte-harremanen bidez lortzen dituzten baliabideak (gizarte-sareak, eskubide zein betebeharrei buruzko arauak, antolamendu eta gizarte-konfiantzazko loturak, etab.), garapen iraunkorrerako, kohesiorako eta komunitatearen urrakortasuna murrizteko, bai eta pertsonen beharrak asetzeko ere, lagungarriak direnak. Bereziki aintzat hartzekoa da giza talde urrakorren arteko elkartzuneko *gizarte-sare* informalei, eta hauen interesak artikulatu eta hauen eskubideak defendatzen dituzten erakundeek (kooperatibak, elkarteak, etab.) eman beharreko babesa.
- Sektore urrakorrek hondamendi-egoerak gainditzeko eta euren mantenu-sistemei eusteko gauzatzen dituzten *aurre egiteko estrategiak* (edo *coping strategies*) *aprobetxatzea eta sendotzea*, orain zein etorkizunean irautea bermatzeko. Estrategia hauetan laguntzeko modu batzuk hauek izan daitezke: enplegua sustatzea, merkatuetarako irisgarritasuna hobetzea azpiegiturak eginez, edo basoetan edo lur komunaletan sartzeko eskubidea babestea.

## 2.9. Biztanleriaren parte-hartzea eta ahalduntzea

Laguntza humanitarioaren diseinuan, gauzatzean, jarraipenean eta ebaluazioan tokian tokiko biztanleriaren parte-

hartzera izan da laguntza humanitarioak betidanik izan duen hutsune nagusietako bat. Hala ere, ezinbesteko baldintza da garapenera bideratutako eragina lortu nahi bada. Batzuetan kontrakoa onartzen bada ere, larrialdi-egoeretan ere biztanleria inplikatu daiteke parte-hartzeko tekniken bidez, hala nola, *Landa Diagnostiko Azkarra* izeneko ikuspegikoen bidez. Pertsona hartzaileak inplikatzera lagungarria izango da hauek laguntza-programak kanpoko gauzatzen ez hartzeko, eta horien emaitzen iraunkortasuna erraztuko du (sorturiko zerbitzuei eustea, eraikitako azpiegiturak konpontzea, etab.). Era berean, pertsona urrakorren parte-hartzera erabakiak hartzeko prozesuan eta laguntza gauzatzean euren *ahalduntzerako* lagungarria izan daitekeen elementua da, hau da, bizi duten egoera aldatzeko kontzientzia, konfiantza eta ahalmena areagotzeko.

## 2.10. Genero-ikuspegia

Azken hamarkadan areagotu egin da ekintza humanitarioan genero-ikuspegia txertatzearen aldeko kezka, hau da, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunezko botere-harremanean oinarritutako azterketa. Ikuspegi hau aplikatzeko –garapenerako lankidetzaren kasuan errotuago dago– hainbat zailtasun izan dira, eta badira orain ere: erakundeen inertzia eta gai horretan agentziek eta GKEek duten kualifikaziorik eza, hauengan zein tokian tokiko biztanleengan aurkituriko errezeloak, eta larrialdiko laguntzaren ohiko ezaugarri batzuk, hala nola: premia eta biziraupena bera lehenetsiz jarduteko beharra, plangintza eta egoeraren diagnostikoa egiteari eskainitako denbora urria, bai eta laguntza goitik behera eta kanpoko agentzietatik mendekotasun handiz, eta biztanleriak parte hartzeko marjinarik gabe artikulatu izana.

Nolanahi ere, gaur egun gero eta zabalduago dago genero-ikuspegia ekintza humanitarioan aplikatzeko beharrari buruzko ideia; izan ere, gizonek eta emakumeek modu desberdinean jasaten dituzte hondamendiak, eta horiei aurre egiteko dituzten gaitasunak desberdinak dira. Oro har, emakumeak urrakoragoak dira krisialdietan, hainbat arrazoi direla-eta: euren mendekotasun sozioekonomikoa eta baliabide materialekiko kontrol txikiagoa; testuinguru horietan izaten den genero-indarkeriaren areagotzea eta jasaten dituzten sexu-erasoak; eta horrelako egoeretan familiaren biziraupena eta ongizatea bermatzeak dakarren lan-gainkarga.

Genero-azterketa bat lagungarria izan daiteke ekintza humanitarioko jardunak egokiagoak eta efizienteagoak izateko. Hainbat ekarpen egin dezake:

- Gizonek alde batetik eta emakumeek bestetik dituzten urrakortasunak, ahalmenak eta aurre egiteko estrategiak atzematea ahalbidetzen du. Normalean emakumeak urrakorrangoak izaten dira eta gizonek baino ahalmen gutxiago dute.
- Krisialdietan, batez ere gatazka-egoeretan, genero harreman eta identitateetan izaten diren aldaketak ulertzeko aukera ematen du. Horrelako testuinguruetan, emakumeen eskubideak, baliabideekiko kontrola eta mugikortasuna murriztu egiten dira, gizarte-jarraibide kontserbadoreak areagotu egiten baitira. Hala ere, batzuetan gerran inplikatzeko edo gizonak bertan ez izateak parte hartzeko eta rol sozioekonomiko berriak izateko ahalmen handiagoa ematen die.
- Laguntzak gizonengan eta emakumeengan izan dezakeen eragin desberdina ulertzeko aukera ematen du, bereziki euren genero-harremanei, baliabideen kontrolari, eta lan zein botere banaketari dagokienez.

Dena den, esan beharra dago agentzien praktika Emakumea Garapenean (EG) izeneko ikuspegian oinarritzen dela batik bat; ikuspegi hau emakumeen beharrak asetzera bideratuta dago, eta gainera aintzat hartzen du eurengan eginiko inbertsio orok gizarte-onurak dakartzala, ama, etxekoandre eta komunitatearen ongizatearen kudeatzaile gisa duten rola dela-eta. Aldiz, Generoa Garapenean (GG) izeneko ikuspegia ez da hain ohikoa; emakumeen ahalduntzera bideratuta dago, euren baliabideen kontrola, euren autonomia eta euren boterea areagotuz. Honela, emakumeak, umeekin batera, hondamendietako biktima nagusitzat hartzen dituen ideiak gailentzen jarraitzen du, eta generoko gizarte eta familia harremanei, hau da, gizonen eta emakumeen arteko botere-harreman asimetrikoei buruzko azterketak eskasa izaten jarraitzen du.

Genero-azterketa ekintza humanitarioan aplikatzeko, hainbat eredu edo plangintza-esparru garatu da. Gainera, agentzia askok hainbat urrats egin du, hala nola, gai horri buruzko ildoak txertatzea, langileak kontratatzeke eta prestatzeko irizpide berriak ezartzea, eta proiektuen identifikazio, jarraipen eta ebaluaziorako prozedurak berrikustea.

Genero-ikuspegiaren aplikazioak malgua eta dinamikoa izan behar du, kontuan hartuta testuinguruaren berariazko baldintzak, hala nola, biztanleria onuradunaren osaera, hondamendi-mota eta egiten den esku-hartze mota. Horregatik, kasu guztietarako ildo berberak ezartzea bainoago,

egokiagoa dirudi agentzietarako gutxieneko jarraibide edo atalaseak azaltzea. Hauek izan litezke:

- a) *Genero-azterketa aplikatzea larrialdiko esku-hartze guztietan*. Presaka ibili behar bada ere, genero-ikuspegi lehen unetik aplikatu beharko litzateke, eta laguntza-programen plangintza, gauzatzea, jarraipena eta ebaluazioan barne hartu beharko litzateke. Dena den, garbi dago errazagoa dela krisialdi akutuaren ondorengo faseetan aplikatzea, eta batez ere, birgaitze-fasean. Ikuspegi hau aplikatzeko beharrezkoa da genero-prestakuntza duten langileak hartzea, edo dauden langileei horri buruzko prestakuntza ematea, bai eta tokian bertan azterlanak egitea dauden urrakortasunak, ahalmenak eta beharrak atzemateko.
- b) *Emakumeei kontsultatzea, eta euren ordezkari eta parte-hartzea bermatzea*. Krisialdi akutueta testuinguruetan kontsulta eta parte-hartzea zailak badira ere, esku-hartze orotan jarri beharko lirateke biztanleria onuradunetako gizon-emakumeei euren kezkek eta beharrak adierazteko hitza emateko mekanismoak ematearren, komunitateko buruzagiei bakarrik (normalean gizonak) eman ordezkari. Horretarako, beharrezkoa da zenbait mekanismo eta irizpide erabiltzea, hala nola, tokian tokiko hizkuntza hitz egiten duten langile emakumeak, kultur sentikortasunez jardutea, edo partaide-tza-metodoak erabiltzea informazioa biltzeko.

Emakumeek izan behar duten parte-hartzeak laguntza banatzeko tresna soiltzat erabiltzea baino askoz ere gehiago izan behar du. Laguntzeko esku-hartzeak planifikatzeko eta gauzatzeko garaian euren ez kontsultatzeak ondorio negatiboak izango ditu, seguru aski, eurentzat eta laguntzarentzat: euren beharretako asko ezkutuan eta artatu gabe geratuko dira (familia-plangintza, gai sanitarioak, prestatzeko eta enpleguak sortzeko aukerak, babes fisikoa, etab.), litekeena da esku-ragarri izan ohi dituzten baliabideekiko kontrola murriztea, euren gaitasunak eta baliabideak ez dira aprobetxatuko, eta proiektu asko jasangaitzak edo ez-efizienteak izango dira. Hala, adibidez, euren ez kontsultatzeak laguntza-esparru batean instalatzen diren ur-iturriak eurentzat egokia ez den lekuan kokatzea ekarri dezake (urruti daudelako, segurtasunik eza dela-eta, etab.), eta horregatik ez erabiltzea.

- c) *Berariazko arreta segurtasun-arazoei*. Larrialdi-egoeretan emakumeek larriki mehatxatuta izaten dutenez euren

segurtasun fisikoa (erasoak, sexu-abusuak, etxeko indarkeria), beharrezkoa da berariazko neurriak hartzea, hala nola: laguntza-esparruak mehatxu horiek murriztea kontuan izanda diseinatzea; segurtasun-arriskuak aintzat hartzea komunak, iturriak eta beste zerbitzu batzuk instalatzean; esparruetako argia; segurtasun-taldeen antolamendua; indarkeriaren biktimenganako sostengua eta profesionalen aholkua; euren eskubidez gehiago jabetzea; etab.

- d) *Generoa aintzat hartzea laguntzaren edukiaren eta banaketaren plangintza egitean.* Laguntza banatzeko sistema (gizabanakoei, familiaburuei, komunitate-egituren bidez, etab.), testuinguruaren arabera aukeratuko da, generoko familia barruko harremanetan izango duen eragina aintzat hartuz. Kontuan izan behar da, adibidez, elikagaiak gizonei ematen bazaizkie, emakumeek duten familiaren elikaduraren kudeatzaile-papera ahuldu egingo dela agian; emakumeak baliabideak eskuratzeko baztertzen badira, emakumeak buru dituzten familiak baztertuta gera daitezkeela; edo lanaren truke janaria edo dirua ematen duten proiektuetan, emakumeek zailtasunak izan ditzaketela lana eta etxeko kargak bateragarri egiteko. Askotan, emakumeen bidezko banaketa izaten da familiaren ongizatean eragin positiboa izatea hobekien bermatzen duen mekanismoa. Era berean, kontuan izan behar da, sarritan, larrialdi-egoeretan emakumeek ardura gehiago izaten dituztela familiaren ongizatearen bermatzaile gisa, eta euren eskubideak eta baliabideekiko kontrola, ordea, murriztu egin daitezkeela.
- e) *Emakume errefuxiatuen errolda.* Errefuxiatu-esparruetan garrantzitsua da heldu guztiak erroldatzea, gizonak zein emakumeak, hauek euren eskubideak baliatzea eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea bermatzearen. Beharrezkoa da saihestea gizonak eta familiaburu diren emakumeak soilik erroldatzea.

Puntu hauek kasu guztietan bete beharreko gutxieneko atalaseak dira. Dena den, asmo handiagoko helburuak ere ezar daitezke, hala nola, emakumeak taldeetan antolatzearen sustapena, baita honetaz ohartaraztea eta erroldatzea ere.

## 2.11. Giza eskubideen babesa

Giza eskubideen babesa, eta bereziki Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioarena (gerra-egoeretan indarrean egon

ohi dena), erakunde humanitario klasikoen lana –Gurutze Gorriaren Nazioarteko Batzordearena, esaterako– izan da historian zehar. Dena den, GKE askok gero eta gehiagotan hartu dute beren gain horren defentsa aktiboa, gaur egun «ekintza humanitario» gisa ezagutzen denaren elementuetako bat delakoan, kontuan izanda egungo krisialdi humanitarioen zati handi bat giza eskubideen urraketa masiboak direla (genozidioa, biztanleriaren nahitaezko desplazatzeak, biztanleria zibilaren aurkako erasoak, elikadura ukatzea, etab.). Defentsa hori era askotakoa izan daiteke: legezko defentsa, ikerketa eta salaketa, edo presio politikoa. Oro har, giza eskubideen defentsa eta babesa ezinbesteko tresna da gerra osteko adiskidetze eta berreraikitze prozesuak, eta interesen defentsa, ahalduntzea, eta sektore urrakorren garapena ere sustatzeko.

#### 2.12. Bakea eraikitze laguntza

90eko hamarkadan hedaturiko ikuspegi baten arabera, gerra batean edo gerra ostean emandako laguntza humanitarioak tentsioak sortzeko edo areagotzeko arriskua txikiagotu ez ezik, gatazka kudeatzeko eta bakea eraikitze ere lagungarria izan behar du. Helburua *tokian tokiko bakerako ahalmenak* sendotzea da, eta horretarako beharrezkoa da irizpide jakin batzuen arabera jardutea. Horretarako hainbat jardura egin daiteke, honakoak adibidez: autoritate morala duten gatazkatik kanpo dauden taldeak edo sektoreak (adinduak, emakume-taldeak, elizak, etab.) sendotzea; gatazka kudeatzeko mekanismo tradizionalak babestea (zaharren kontseiluak, edo *shura*-k, Afganistanen, esate baterako); gizarte zibila sendotzen, antolatzen eta mobilizatzen laguntzea, eta batez ere, urrakorren ahotsak entzunaraztea erraztea; tokian tokiko erakundeak ondoren hainbat sektore (hezitzaileak, segurtasun-gorputzak, etab.) gatazken kudeaketan prestatzeko gaitzea; edo giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren sustapen edo defentsarako jarduerak egitea.

#### 2.13. Kontuak ematea (*accountability*)

Ekintza humanitarioak barne hartu behar luke agentzia humanitarioek euren jarduerari buruzko *kontuak ematea* (*accountability*), bai agentzien egoitza zentrali eta emailleei, ohikoa den bezala, eta baita biztanleria hartzaileari ere. Guxtienez, biztanleriari jakinarazi beharko litzaioke programaren

plangintza, gauzatze eta aurreikusten den iraupenari buruz beharrezkoa den informazioa, bai eta honek izan litzakeen arazoak eta zailtasunak ere. Helburua «inpunitate humanitarioa» delakoa saihestea litzateke, hau da, borondate onean eta paternalismoan oinarritutako jarduteko jarraibidea, alde batetik laguntzak hartzaileei ezartzen dien, eta bestetik, honen akatsak eta kalteak estaltzen dituen borondate ona eta paternalismoa, hain zuzen. Operazio humanitarioei buruz egin diren ebaluazioek laguntza jasotzen dutenei kontuak emateko mekanismoak ezartzeko beharrari buruzko kezka areagotu egin dute; hori Jokaera Kodeak, Esferaren Proiektua, eta batez ere, Ombudsman Humanitario izeneko proiektua ekimenetan gauzatu da (ikusi V. kap., 3. puntua).

#### 2.14. Mezu eta irudi egokiak

Laguntza humanitarioak, asistentzialista hutsa baino gehiago izatea nahi bada, publizitatearen eta kanpainen bidez transmitituriko mezuak eta irudiak egokitu behar ditu, adibidez, krisialdiak saihestezinak direla, eta biktimak pasiboak eta babesgabeak direla islatzen duten estereotipoak hausteko. Aldiz, hondamendien arrazoi estrukturaleri buruz sensibilizatzen eta ulertarazten lagundu behar dute.

#### 2.15. Printzipio humanitarioak betetzea

Egungo krisialdi humanitarioen konplexutasunaren aurrean 90eko hamarkadako humanitarismo berriak eman duen erantzunetako bat, neutraltasuna, inpartzialtasuna, independentzia edo unibertsaltasuna printzipio humanitario klasikoak indarrean jarraitzen ote duten erlatibizatzea izan da. Zailtza honek are beharrezkoago egiten du horien garrantzia aldarrikatzea. Laguntza humanitarioa epe luzerako garapen eta baketze helburuetarako lagungarria izateko nahiak ez du printzipio horiek ahaztea eragin behar, ezta interes politiko eta ekonomikoetatik kanpo emaileek izan dezaketen *gune humanitario* independentea deuseztatzea ere. Hainbat GKE humanitariok defendatzen dituen printzipio horiei eta gune horri eustea, laguntza eskubide bat izateko bermea da, hondamendiak kalteturiko guztien eskubidea, alegia, euren izaera edo testuinguru politikoa edozein izanik ere.



## Bibliografia

ACNUR (1997), *La situación de los refugiados en el mundo, 1997-98. Un programa humanitario*, Icaria editorial.

Urtekari honek errefuxiatuen eta barne-desplazatuena arazo aztertzen du, bai eta euren babes legala zein jasotzen duten nazioarteko laguntza ere. Aurtengoak, gainera, sistema humanitarioari buruzko alderdi-sorta zabal bat aztertzen du.

ANDERSON, Mary (1999), *Do no harm. How aid can support peace and war*, Lynne Rienner Publishers, Boulder (Colorado) eta Londres.

Eragin handiko obra honek laguntza humanitaria kalterako gertatu eta gatazka areagotzea eragin dezaketen modu guztiak aztertzen ditu, eta horren ordez, bake-guneak eraikitzeke balio izateko irizpideak proposatzen ditu. Gainera, laguntzan printzipio hipokratikoa aplikatzea proposatzen du, laguntzaren eragina positiboa edo negatiboa izango ote den zalantza izanez gero, kalterik ez eragiteko hoberena ez jardutea dela dioen printzipioa, hain zuzen ere.

ANDERSON, Mary eta Peter WOODROW (1989), *Rising from the ashes: development strategies in times of disaster*, Westview Press eta UNESCO, Boulder (AEB). 1998an Londres-en, Intermeditate Technology Publications argitaletxeak berrargitaratua.

Liburu klasikoa da dagoeneko; egileek izugarri zabaldu den ikuspegia plazaratzen dute, «ahalmenen eta urrakortasunen azterketa», hain zuzen ere. Honako ideia du oinarri: pertsona guztiek, hondamendia jasaten ari diren

edo jasan berri dutenek barne, urrakortasunak ez ezik ahalmenak ere (materialak, sozialak eta psikologikoak) badituztela, eta hauek funtsezkoak direla gizarteak berre-raikitzeko. Obra osatzeko, hondamendi ondorengo testuinguruetakoa hainbat kasu-azterketa biltzen ditu.

BOUCHET-SAULNIER, Françoise (2001), *Diccionario práctico de derecho humanitario*, MSF- Ediciones Península, Bartzelona.

Mugarik Gabeko Medikuek erakundearen zuzendariak egina, obra honek nazioarteko zuzenbide humanitarioari (gatazka armatuetan indarrean egoten dena) buruz hiru-rehun kontzeptu baino gehiago biltzen ditu, eta baita zuzenbide hori normalean urratu ohi den moduei zein aplikatzeko arazoei buruzkoak ere. Gainera, zuzenbide horrekiko errespetua sustatzeko aholku praktiko erabilgarri batzuk ere aipatzen ditu.

DE WAAL, Alex (1997), *Famine crimes. Politics and the disaster relief industry in Africa*, James Currey & Indiana University Press, Oxford.

Egilea zein obra bera nazioarteko sistema humanitarioaren aurkako korrante kritikoaren adierazgarririk erradikalenetako bi dira. Agentzia humanitarioen hutsuneak eta praktika txarrak azpimarratzen ditu obrak, eta zalantzan jartzen du laguntza humanitario profesionalizatu baliagarria izatea, baldin eta ez bada elkartasun politiko gisa aintzat hartzen. Baina, gainera, goseteen arrazoi politikoei buruzko ekarpen teoriko garrantzitsua egiten du.

EADE, Deborah (ed.) (1998), *Desarrollo en Estados de guerra*, Oxfam-CIP-Intermón, Bartzelona.

Hainbat egilek, gatazka armatuko testuinguruetan egiten diren ekintza humanitarioko eta garapeneko jardueri buruz idatziriko artikuluko sorta baten bilduma eta itzulpena. Indarkeria-testuinguruetan dauden garapenerako aukerei buruzko artikuluko teoriko batzuekin batera, beste batzuek kasu eta arazo zehatzak lantzen dituzte, hala nola, gerrako haurrak, gerraren eragin psikologikoa, edo GKEen estrategiak gerra-egoeretan.

EADE, Deborah eta Suzanne WILLIAMS (1995), *The Oxfam Handbook of Development and Relief*, Oxfam UK and Ireland, Oxford.

Eskuliburu hau ezinbestekoa da garapenerako lankidetzaren zein ekintza humanitarioaren arloan. Oxfam-en eskarmen-tuan eta printzipioetan oinarrituta dago. Arazoak aztertu

eta esparru garrantzitsu guztietan jarduteko irizpideak azaltzen ditu hiru liburukitan: garapen ekonomikoa, osasuna, hezkuntza, asistentzia humanitarioa, giza eskubideak, generoa, etab.

GURUTZE GORRIAREN ETA ILARGI ERDI GORRIAREN ELKARTEEN NAZIOARTEKO FEDERAZIOA (2001), *Hondamendiei buruzko munduko txostena*, Oxford University Press, Oxford. Eskuragarria interneten: <<http://www.ifcr.org>>

Urtekari interesgarri honek hondamendi humanitarioei buruz 1993tik izan diren azken joerak, egintzak eta kopuruak aztertzen ditu. Azterketa teorikoko zenbait artikulua ez ezik, krisialdi jakinei buruzko kasu-azterlan ugari barne hartzen ditu.

IASC (2000), *Global humanitarian assistance 2000. An independent report commissioned by the IASC from Development Initiatives*, Inter-Agency Standing Committee, Office for the Coordination of Humanitarian Affairs, Nazio Batuak, Geneva. Eskuragarria interneten: <<http://www.devinit.org/3p5-1.pdf>>

Gerra hotzaren ostean laguntza humanitarioan izandako joeren azterketa interesgarri eta sakona. Horri buruzko azterlan kuantitatiboaz gain, aipagarria da nazioarteko sistema humanitarioaren funtzionamenduaren azterketa kualitatiboa, bere jarraibide eta interes guztiak kontuan hartzen dituen.

LE BILLON, P. ( J. MACRAE, N. LEADER eta R. EAST-EKIN) (2000), *The Political Economy of War: What Relief Agencies Need to Know*, Network Paper 33. zk., Humanitarian Practice Network, Overseas Development Institute, Londres. Eskuragarria interneten: <<http://www.odi.org.uk/hpn/PUBS/net-ab33.html>>

Gerraren ekonomia politikoari buruzko azterlana, edo egungo barne-gatazka armatuak bultzatzen dituzten interes ekonomikoen bilduma. Era berean, irizpide operatibo interesgarriak proposatzen ditu testuinguruotan lan egiten duten GKEentzat.

MACRAE, Joanna (2001), *Aiding recovery? The crisis of aid in chronic political emergencies*, Zed Books eta ODI, Londres.

Azterlan humanitarioetako eta birgaitzeari buruzkoetako aditu nagusietako baten obra iradokitzailea dugu hau. Liburuak hainbat herrialdetan gerra ostean osasunaren sektorean eginiko berreraikitzea aztertzen du, eta ondorioztatzen du larrialdiko laguntzatik garapenerako politiketara

pasatzeko honako eragozpenak izan ohi direla: herrialde horietako gobernuak baliabide gutxi izatea, eta barnean zein nazioartean legitimitate eskasa duten erregimenak sendotzeko emaileek duten errezeloa.

MARTÍN BERISTAIN, Carlos (1999), *Reconstruir el tejido social. Un enfoque crítico de la ayuda humanitaria*, Icaria, Bartzelona.

Laguntza humanitarioko eta birgaitzeko esku-hartzeetako dimentsio soziokomunitario zein psikologikoari buruzko azterlana. Obrak, gai honi buruzko arazoei heltzen die euren dimentsio teorikoa hainbat kasuren ezagutza sokinarekin –batez ere, Erdialdeko Amerikako kasuekin– konbinatuz.

OSORIO, Tamara eta Mariano AGUIRRE (koord.) (2000), *Después de la guerra. Un manual para la reconstrucción posbélica*, Icaria, Bartzelona.

Gerra osteko birgaitzeari buruzko hainbat arazo eta kasu-azterlan jorratzen dituen artikulu-bilduma: berreraikitze ekonomiko eta soziala, gerran parte hartu duten emakumeen gizarteratzea, EBren birgaitze-politikak, etab.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos (1997), *Guía de rehabilitación posbélica. El proceso de Mozambique y la contribución de las ONG*, HEGOA, Bilbo.

Gerra osteko birgaitzeari buruzko oinarritzko eskuliburua. Ohiko arazoak aztertzen ditu eta esparru guztietan jarduteko jarraibideak aholkatzen ditu: berreraikitze ekonomiko eta materiala, oinarritzko zerbitzuak berriro ezartzea, adiskidetzea, etab. Liburuak, gainera, Mozambikeren kasua eta Espainiako GKEek herrialde horretan eginiko lan-kidetzaz aztertzen du berariaz.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos (1999), *Vulnerabilidad y desastres. Causas estructurales y procesos de la crisis de África*, Lan Koadernoak, 24. zk., HEGOA, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.

Hondamendien kausak, dinamikak eta osagarriak aztertzeko esparru teorikoa eskaintzen du. Hauez gain, beste elementu batzuk ere aztertzen dira, hala nola, katastrofeak, urrakortasuna, eta aurre egiteko estrategiak. Bigarren zatian, Afrikako krisialdiaren jatorrizko kausen azterketari aplikatzen dio esparru hori.

PÉREZ DE ARMIÑO, Karlos (2001), *Diccionario de acción humanitaria y cooperación al desarrollo*, HEGOA eta Icaria Editorial, Bartzelona.

Hamabost bat ikertzailek egina, obra zabal honek, ekintza humanitarioari eta garapenerako lankidetzari buruzko egungo eztabaidak laburbiltzen dituzten berrehun artikulubaino gehiago biltzen ditu, eta horiei buruzko ikuspegi orokorra eskaintzen du. Honako arloak jorratzen ditu: garapena, osasuna, giza eskubideak, laguntzeko tresnak, genero-ikuspegia, parte-hartzeko teknikak, proiektuaren zikloa, etab. Gainera, aurkibide analitiko xehea du, testuan datu zehatzak bilatu ahal izateko.

PIROTTE, Claire, Bernard Husson eta François GRUNEWALD (ed.) (1999), *Responding to emergencies and fostering development: the dilemmas of humanitarian aid*, Zed Books, Londres eta New York.

Laguntza humanitarioaren eta garapenerako lankidetzaren arteko loturari buruzko eztabaida, eta birgaitzearen arloko hainbat arazo, zenbait ikuspegitatik jorratzen dituen artikulubilduma.

REY, Francisco eta Víctor de CURREA-LUGO (2002), *El debate humanitario*, Icaria, Bartzelona.

Laguntza humanitarioaren zenbait alderdiri buruzko eztabaidak gaur egun zertan diren aztertzen duen lan zabal eta interesgarria: humanitarioak nazioarteko testuinguru berrian duen papera, printzipio humanitarioei buruzko zalantza eta euren indarra, esparru juridikoak, jarrera-kodeak, koordinazioa eta kontuak ematea, etab.

REY, Francisco eta Mabel GONZÁLEZ (2000), «Las crisis humanitarias del nuevo siglo: aprender de la experiencia», Aguirre, M. (ed.), *Anuario del CIP 1998* obran, Icaria/Centro de Investigación para la Paz, Madril.

F. Reyk urtero *Anuario del CIPn* argitaratzen dituen artikuluetan bezalaxe, honakoan esparru humanitarioan nazioartean dauden joera eta eztabaida nagusiak azaltzen ditu.

UNIDAD DE ESTUDIOS HUMANITARIOS (1999), *Los desafíos de la acción humanitaria. Un balance*, Icaria, Bartzelona.

Ekintza humanitarioaren hainbat alderdi jorratzen dituen artikulubilduma: politikarekin duen harremana, sistema humanitarioaren artikulazioa, asistentzia-eskubidea, komunikabideak, esparru etikoa, etab.

UNIDAD DE ESTUDIOS HUMANITARIOS (2001), *Puertas cerradas. El acceso a las víctimas en la acción humanitaria*, Icaria, Bartzelona.

Laguntzak gaur egun dituen arazo nagusietako bat berriaz lantzen duen artikulua-bilduma: agentzia humanitarioak hondamendietako biktimengana iristea. Honako alderdiak aztertzen ditu: geopolitika, etika, printzipio humanitarioak, salaketa, edo komunikabideen eta militarren papera.

SECIPI (1999), *Conflicto, paz y cooperación para el desarrollo en el umbral del siglo XXI*, Secretaría de Estado para la Cooperación Internacional y para Iberoamérica, Ministerio de Asuntos Exteriores, Madrid.

ELGAREN (OCDE) Garapenerako Laguntza Batzordearen *Conflict, peace and development co-operation on the threshold of the 21<sup>st</sup> century*, Paris, 1998, argitalpenaren itzulpena. Gaiari buruzko arazoak aztertzen dituen, eta gobernu emaileei, euren garapenerako lankidetzak eta birgaitze-lanek bakea eraikitzen laguntzeko jarraibideak ematen dizkien txostena da.

#### Baliabideak interneten

Sarean informazio zabala dago: egungo krisialdi humanitarioen egoerari buruzko azterketa-dokumentuak eta artikulak, eta baita txostenak ere. Orrialde gomendagarrien artean, Nazio Batuen agentzia batzuetakoenak, gai honetan adituak diren institutuena, eta baita on-lineko aldizkari batzuenak ere. Hemen batzuk baino ez ditugu aipatuko.

- GHKB (OCAH), Gai Humanitarioak Koordinatzeko Nazio Batuen Bulegoa (Oficina de Coordinación de Asuntos Humanitarios de Naciones Unidas). Bere informazio-zerbitzua –Reliefweb– krisialdi humanitarioei eta ekintza humanitarioari buruzko informazio-iturri nagusia da (egungo egoera, herrialde bakoitzaren aurretiko testuingurua, laguntzarako finantzazioa, etab.). <<http://www.reliefweb.int>>
- OME, Osasunaren Munduko Erakundea. Honen tokiak larrialdiko testuinguruetan izaten diren osasun-arazoei buruzko atal interesgarria du. <<http://www.who.int>>
- EMP, Elikagaien Munduko Programa. Elikadura-laguntzan espezializatutako erakunde honen tokian informazio ugari dago honi buruz, elikadura-segurtasunari buruz eta baita munduan dagoen goseteari buruz ere. <<http://www.wfp.org>>

- ENBGK (ACNUR), Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa. Honen tokiak errefuxiatuen arazoa, euren babes legala eta jasotzen duten laguntza jorratzen du berriaz. <<http://www.unhcr.org>>. Era berean, aipatu beharrekoak dira agentzia honek argitaratutako Working Papers-ak; sarean eskuragarri daude. <<http://www.unhcr.ch/refworld/pub/wpapers>>
- HPN, Humanitarian Practice Network. Londreseko Overseas Development Institute-ren (ODI) programetako bat da. HPNk gai honi buruzko argitalpen ospetsu ugari ditu, eta horietako asko interneten eskuragarri daude. Honen tokiak, gainera, informazio zabal eta baliagarria eskaintzen du, bai eta beste erakundeekiko estekak ere: <<http://www.odihpn.org>>
- ALNAP, Active Learning Network for Accountability and Performance in Humanitarian Action. Hainbat agentzia humanitariok osaturiko foroa da, laguntzaren kalitatera eta kontuak ematera bideratua. Bere tokiak laguntza humanitarioko operazioen ebaluazioei buruzko datu-base bat du, eta horrez gain, beste material eta azterlan batzuk ere eskaintzen ditu. <<http://www.alnap.org>>
- URD, Groupe Urgence Rehabilitation Developpement. Nazioarteko laguntzaren esparruan hausnartzeko eta ikerketa operatiborako talde bat da. Frantzian dago. Bere tokiak hausnarketa-dokumentuak eta beste informazio batzuk ere ematen ditu. <<http://www.urd.org>>
- Journal of Humanitarian Affairs, interneteko aldizkari birtuala, Bradford-eko Unibertsitateko Department of Peace Studies-ek argitaratua. <<http://www.jha.ac>>